goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2014-03-21
EGUBAKOITZA
591. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Helburuak dira bakea, bizikidetza eta justizia"



**Laura Mintegi** | EH Bilduren bozeramailea | 6

## Bertsomovieda! lehiaketan, hiru debagoiendar

Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Oñatiko filmak dira | 32




**EZKONTZAK 2014**
Orrialde bereziak ezteiei buruz | 17

Ekainaren 22an hondakinen gaineko kontsulta Elgetan | 28



Zazpigarren Huhezinemaren sari banaketa gaur, barikua, izango da | 33



# GORLA ZAIN

DOMEKAN DA GORLAKO 40. IGOERA; BAILARAKO ZIKLISTAK HIRU TALDETAN ORDEZKATUTA LEHIATUKO DIRA | 30

Aurrean, ezkerretik eskumara, Eneko Lizarralde, Iker Eskibel eta Beñat Etxabe; atzean, ezkerretik eskumara, Jokin Etxabe, Aitor Umerez, Julen Irizar eta Asier Taboada. | JAGOBA DOMINGO



**ORDU ALDAKETA**
Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira. Gogoratu!

# Ikastolen jai handia Bergaran 2016an

Aranzadi Ikastolak antolatuko ditu urte bi barru Kilometroak, hirugarrenez | 5

**HARIRA** SAIOA | GOIENA TELEBISTA

## "Atzerapenarekin doaz lanak, baina irailerako gura dugu inauguratu Zaldibar antzokia"



**BEÑAT HERCE**
Eskoriatzako alkatea | 26

**SINADURAK**



**Kataia ez da eten** | 7
IÑAKI PEÑA



**Gure esku dago** | 7
IBAN ARANTZABAL



**Zabolako arraintxoak** | 25
MARTIN ARRIOLABENGOA



**Euskaltzaleak gogotsu** | 40
MIKEL IRIZAR







ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 5 | ELKARRIZKETA 6 | IRITZIA 7 | HERRIAK 9 | KIROLA 30 | KULTURA 32 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38




## Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitate Zaharra

**APIRILAREN 7AN,**
**arratsaldeko zazpietan:**

**ZAHARTZE AKTIBOA. BELAUNALDI ARTEKO BIZI-KALITATEA ETA ELKARTASUNA**



**Maria Isabel Genua Goena**
Matia Fundazioko Arreta Farmazeutikoko arduraduna. Farmaziako doktore Nafarroako Unibertsitatean Ospitale Farmazian espezialista, Elikagaien Teknologian espezialista, Ikerketa Zientifikoen Gol Mailako Kontseiluan.

**APIRILAREN 9AN,**
**arratsaldeko zazpietan:**

**ADINEKO PERTSONEN PARTAIDETZA-PLAN BATERAKO GAKO SOZIAL ETA KULTURALAK**



**Elisabet Arrieta Aranguren**
Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) irakaslea, formazioz soziologoa, soziologogian doktore, hiritarren parte hartzearen inguruko lanarekin.

2008tik aurrera Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanordea.

**APIRILAREN 10EAN,**
**arratsaldeko zazpietan:**

**OSASUNEZ ZAHARTU. ARRAKASTAZ ZAHARTU**



**Javier Yanguas Lezaun**
Doktorea Psikologia Biologikoan eta Osasun arlokoan, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. 1991n Helduen Hezkuntza arloko Unibertsitate Adituaren titulua eskuratu zuen, Salamancako Eliz Unibertsitatean. Neuropsikologia Klinikoko masterra egin zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan.

Antolatzailea
OÑATIKO UDALA
Ongizatea

Laguntzailea
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# Debagoiena, munduko zientziaren erakusleiho

Jakiunderen, Zientzia, Arte eta Letren Euskal Herriko akademiaren, eskutik bihurtuko da Debagoiena zientziaren topaleku, baina herritarrei begira ere

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

"Azken boladan egin diren deskubrimendu zientifikorik inportanteenetakoen artean egon daiteke Higgs bosoiaren aurkikuntza, eta horretan parte izan dute Elayko langileek. 6.500.000 pieza baino gehiago egin dituzte haiek, CERNeko detektoreetan (Ikerketa Nuklearretarako Europako Kontseilua) eta hango aparailuetan dagoeneko instalatuta daudenak, eta euren lanarekin hori eraiki da".

Hori abiapuntu antolatu ditu Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Euskal Herriko akademiak, bi hitzaldi Debagoienean datorren eguenerako, apirilak 3, Jesus Mari Ugaldek, Jakiundeko presidenteak esandako moduan.

Bata Antzuolako Elay tailerrean izango da, 13:00etan, eta Egoi Garitaonaindia izango da hizlari. CERNeko ikertzailea da Garitaonaindia, ingeniaria, eta lanean ibili da Higgs bosoia detektatu duen detektagailuan.

Bigarren hitzaldia, berriz, Pedro Etxenike fisikariak eta Jakiundeko ohorezko presidenteak egingo du, Bergarako osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. 45-50 minutuan zera landuko du: *De lo pequeño a lo grande, de lo simple a lo complejo, la sublime utilidad de la ciencia inútil*.

### "Gizartearen ongizaterako"

Antzuolako fabrikan antolatutako hitzaldiari dagokionez, helburua da "azaltzea Elayko langileek egindako 6.500.000 pieza baino gehiagok zertarako balio izan duten CERNeko detektagailu eta aparailu zientifikoan. Erantzuna horixe da, alegia: Higgs bosoia deskubritu, detektatu eta aztertu egin dutela aparailu zientifiko horretan, baina hori egiteko Elayko langileen lana eta grina behar izan da, 6.000.000tik gora pieza egin baitituzte aparailu zientifiko hori eraikitzeko".

Horrela, langileei eurei ere ikusarazi gura diete eurek egindako lanaren garrantzia soldata irabaztetik harago joan dela: "Langileak konturatu egiten dira eurek egindako lanarekin kontribuzio handia egin diotela gizarte osoaren ongizateri, jakintza handituz", azpimarratu du Ugaldek, Jakiundeko presidenteak.

### Azeleragailu barruan daude

*Elaytarren* ekarpena LHCaren (Hadroi Talkagailu Handia) hodiaren barruan dago, Genevatik gertu: "Trokeleria fina egiten dute Antzuolan, eta partikulak azeleratu egiten dituen hodiak barrutik behar dituen tramankuluak kokatzeko eta finkatzeko erabili izan dira, nik dakidanez. Baina zehazki zertarako erabili diren dakiena da Elayera etorriko den hizlaria; hura da ingeniaria da eta hark lan egin du aparailu horren eraikuntzan", azpimarratu du Ugaldek.

### "Elay, onenen artean"

Urteak eman dituzte Elayn piezok ekoizten. "Lehen kontaktuak 1999an izan ziren. 2000n hasi ziren piezak seriean ekoizten Antzuolako fabrikan, eta 2006ra arte jardun zuten piezak hara bidaltzen", jakinarazi du Ugaldek.

Lehiaketa publiko bitartez lortu zuten lan hori bereganatzea. "Halako azpiegitura handi bat onartzen denean, lanak konkurtsora ateratzen dira, enpresak aurkezten dira eta onenek irabazten dute. Beraz, honen ondorioa da Elay onenen artean dagoela", azpimarratu du Jakiundeko presidenteak.

### Akademia bat fabrikan

Bestalde, eta akademiari berari dagokionez, Jakiundek Antzuolan antolatutako ekitaldiaren ezohikotasuna ere azaleratu gura izan du hark, esanez "agerian" jartzen duela "ze nahi handia duen Jakiundek berak duena (ezagutza hutsa) gizartearen zerbitzura jartzeko, modu eraginkorrean eta modu hurbilean". Ugaldek uste du "akdemia guztien historia osoan lehen aldia dela akademia batek halako ekitaldi bat tailer batean prestatu, egin eta burutzen duela. Zerbait historikoa izan daiteke, edo akaso gehiago anekdota"; edozelan ere, haren garrantzia nabarmendu du.

### Puntako industria berria

Ildo horretan, Elayk zeregin hori egitea lortu duen moduan, munduan industria mota berria sortu eta halakoetan parte-hartzearen garrantzia eta horren bueltan dauden aukeren inportantziaren gaineko mezua ere helarazi gura du Jakiundek datorren asteko ekitaldien bitartez: ikerkuntza aparailuen industria. "Badaude hainbat ikerkuntza (CERNeko instalazioez gainera), teleskopio erraldoiak, neutrinoen detektagailuak Antartidan, satelite espazialak... non aparailuak beste modu batekoak diren: oso handiak, erraldoiak, eta horiek eraikitzeko teknologia oso punta-punta-puntakoa behar den. Diru asko balio dute, eta normalean nazioarteko erakundeak dira horiek kudeatu egiten dituztenak. Eta hor badago industria berri bat, zein hor sartzeko teknologia punta-puntakoa behar den eta baita organizazio industrial bikaina. Euskal Herriak badu hori, eta uste dut konturatzen bagara hor badagoela zerbait Euskal Herri bezala sartzeko, oso onuragarria izango dela guretzat. Beste adibide bat da Lund-en (Suedian) egin behar duten espalazio zentroaren laborategi satelite bat Bizkaian (Bilbo-Leioa inguruan) jarriko dutela".



Genevatik gertu dagoen Hadroi Talkagailu Erraldoia. | WIKISPACE.COM

**DATUA**

**6,5**

MILIOI PIEZATIK GORA

6.500.000 piezatik gora fabrikatu dituzte Elayn, Genevako azeleragailurako.

**JESUS MARI UGALDE** | JAKIUNDEKO PRESIDENTEA

## "Oinarrizko ikerketak ze balio duen, ze onura dakarren azalduko du Etxenikek"

*De lo pequeño a lo grande, de lo simple a lo complejo, la sublime utilidad de la ciencia inútil* izenbururekin , Pedro Etxenikek bere teoria azaldu gura die herritarrei datorren eguen iluntzean, Bergaran.



GOIENA

**Zer kontatuko du?**

Batez ere, azkeneko kontzeptua (*la sublime...*): ze erabilgarria den hasiera batean ezertarako balio ez duela ematen duen zientzia. Alegia, zientzia basikoak, ikerketa oinarrizkoa esaten denak, horrek ze onura dakarren. Eta horretarako, bi elementuok ditu aurretik: sinpletik konplexura, txikitik handira... justu, erredukzionismoaren kontrako kontzeptua da. Hau da, denok pentsatzen dugu zerbait esplikatzeko beti oinarrietara joan behar dugula, ahalik eta gauzarik txikiena hartu, behe-beheko elementu hori hartu, eta hori dakigunean horrekin dena dakigula pentsatzen dugu. Pedro Etxenikeren argudioa da justu kontrakoa: txikienaren propietateak ezagututa, handienaren portaera ezin daitekeela jakin. Baina kontuz, behin handienaren portaera eta propietate horiek jakinda, horrek izan behar du bateragarria (baina bateragarria bakarrik) txikienaren propietateekin. Hau da propietate berrien emergentzia.

**Adibiderik jar daiteke?**

Nire adibideak baditut, baina ez dakit Pedrok konpartitzen dituen; nireak, edozelan ere, adibidez, kolorea bera, gizateriaren portaera sistema konplexuetan... izan daitezke. Baina onena da hitzaldira bertara joan eta han jarriko dituen adibideak entzun. Oso ondo azalduko du.



**2.**
**FASEA**

www.garraioahobetzen.net




Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU**
**ETA IRABAZI**
Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.

Gipuzkoa
BERRIA

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

## DEBAGOIENEKO HERRIETAN EGINGO DIREN BILERAK

| HERRIA | EGUNA | ORDUA | LEKUA |
|---|---|---|---|
| Leintz Gatzaga | Martxoak 28 | 18:30 | Udalbatza aretoa |
| Aretxabaleta | Martxoak 31 | 18:30 | Arkupe |
| Eskoriatza | Apirilak 1 | 18:30 | Kultura etxea |
| Antzuola | Apirilak 2 | 18:30 | Olaran |

# 2016an Bergaran ospatuko dute Kilometroak jaia

Aranzadi Ikastolak antolatuko du, hirugarrenez

UBANE MADERA | BERGARA

Urte bi barru Kilometroak antolatzeko behin-behineko esleipena egin berri du Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak eta Bergarako Aranzadi Ikastolari eman dio ardura hori. Hortaz, hirugarrenez antolatuko du 2016ko urriko lehen domekan, 2007an eta 1991n bezala.

**2007koa eta oraingoa**

Pozik hartu dute berria Aranzadin, duela zazpi urte eskas ere antolatu bazuten ere. Ane Barruso zuzendariak hauxe dio: "2007ko Aranzadi Ikastola eta gaur egungoa desberdinak dira. Asko aldatu da, zentzu guztietan. Orduan, krisian zegoen, erabiltzen zituen eraikinak oso zaharkituta zeuden, Martinez Iralatik ateratzeko presiopean geunden, baina ez geneukan nora joan, ezin genuen Seminarioan obrarik egin... etsipena, nahi eta ezinean geunden sasoi hartan".

Egun, ordea, beste egoera baten daudela-eta, horrek jaia antolatzera bultzatu dituela aitortu du: "Orain, ikastola indartsu bat gara. Badakigu erabiltzen dugun eraikinean gelditurko garela, obra egiteko baimena izan dugu, denok elkarrekin gaude eraikin bakarrean, instalazioak berritu ditugu; jendearen, herriaren, sinesgarritasuna berreskuratu dugu eta momentu honetan gure betebehar nagusiari ekiten ari gatzaizkio gogoz eta ilusioz: Bergarako umeak haztea eta heztea".

**Zapore ona**

2007ko Kilometroak jaia oso ondo atera zela-eta oso pozik geratu zirela adierazi du Barrusok, eta horrek, ilusioa, adorea eta indarra eman diela berriro ere ekiteko. Jaiak lagunduko dio Aranzadiri garatzen lantzen diharduen Plan Estrategikoa eta helburuei eusten; Bergaran, "euskara eta euskal kultura" bultzatzen, Barrusok esan duenez. Era berean, eraikinaren "obra handiak ikastolaren ekonomia justu antzean utzi duenez, jaiarengandik bultzada ekonomiko bat ere" espero dutela adierazi du.

**Datorren urtean lanean**

Aurten Orion ospatuko da jaia, datorren urtean Usurbilen eta 2016an Bergaran. "Ikastola barruan hasi beharko dugu gaiari bueltak ematen, baina kalera begira ezin da ezer egin aurrekoak bukatu arte; momentuz hasiko gara pentsatzen, hausnartzen, diseinatzen... 2015eko udaberrian hasiko gara batzordeak eratzen, logoa eta abestia aukeratzen..., eta urrian sartuko gara buru-belarri urteko ekimenekin", esan du Ane Barrusok.

# Lau hilabetean 857 bazkide birkokatu dituztela jakinarazi du Mondragon Taldeak

Epe laburrera beste 200 birkokatze aurreikusita daude, aurretiko erretiroekin

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Urritik otsailera, "egoera ekonomiko zaila gorabehera" zela, 857 bazkide birkokatzea lortu dute kooperatibek, eta hori "enpleguarekin duten konpromisoaren erakuslea" da, Mondragon Korporazioak asteon prentsa ohar bidez esan duenez.

Birkokatze gehienak Banaketa eta Finantzen arloetan izan dira eta 55 kooperatiba inplikatu dira denetara. Eta profilari begiratuta, berriz, %59 gizonezkoak dira, eta %41 emakumezkoak

Egindakoez gainera, korporazioak jakinarazi du "epe laburrera beste 200 birkokatze aurreikusita daudela, aurretiko erretiroen bidetik".

**Ahalegina**

Korporazioak dioenez, "magnitude horiek elkartasunaren isla zuzena dira eta, bereziki, kooperatiba hartzaileek egiten duten ahalegina erakusten dute, iraganean bezala, benetako protagonistak baitira enplegurako benetako irtenbideak sortzeko"

"Gainera, bazkideen kolektiboak bere kualifikazio profesionalean eta laneratzeko bidean aurrera jarraitu ahal izan dezan, Prestakuntza Plan bat diseinatzen ari da, kanpoan geratu diren bazkideei zuzenduta", esan du.

**Beste 200, prestakuntzan**

Azken horri dagokionez, korporaziotik adierazi dute "beste eragile instituzional batzuekin lankidetzan, buru-belarri" dihardutela zeregin horretan, "helburu bikoitzarekin: profil profesionalak eskariari egokituz birkokapenak bultzatzea, eta kualifikazio profesionala handitzea, titulu ofizialen bitartez". Espero dute 200 pertsona inguruk parte hartu ahalko dutela.



Euskara elkarteetako ordezkariak, Bergaran. | JULEN IRIONDO

# Udako Abenturak zabalik: 9-16 urte arteko neska-mutikoendako aukera

Txatxilipurdi (Arrasate), Jardun (Bergara) eta Pil-Pilean (Soraluze) elkarteek aurkeztu dituzte

JULEN IRIONDO | DEBAGOIENA

Hiru udaleku mota proposatu dituzte asteon euskara elkarteek, udari begira, 9 eta 16 urte bitartekoendako; hain justu, adin tartearen arabera proposamen desberdin bat. Dena den, udaleku guztiak uztailean izango dira.

**Zerain, GaraiOn eta kostaldea**

9 eta 12 urte artekoak Zerainera joango dira, astebeteko bi txandatan. Bertan, irteerak eta askotariko ekintzak egingo dituzte.

12 eta 14 urte artekoentzako aukera, berriz, GaraiOn da, Arabako Ozeta herrian. Natura eta sormena batuko dituzte bertan.

Eta *Kosta ala Kosta* izeneko udalekua izango da, azkenik, 14 eta 16 urte artekoentzat. Araban hasi eta Gipuzkoako kostalderainoko udaleku ibiltaria izango da hori.

Kontuan hartu beharrekoa da azkeneko bi udalekuok hamar eguneko txanda bakarra izango dutela.

**Maiatzaren 9a aurretik**

Edozein aukeratan izena emateko azken eguna maiatzaren 9a izango da.

Txatxilipurdiko, Jarduneko eta Pil-Pileaneko kideek hartu dute parte aurkezpenean. Adierazi dute eurena hezkuntza eskaintza den heinean, euskara eta hezkidetza zehar-lerro hartuta, beste hiru balio ere sustatu nahi dituztela aurtengo udalekuetan: gazteen parte-hartzea eta autonomia; aisialdi ez kontsumista; eta natura.



OIHANA ELORTZA

## Ikasleak, eta langabeak ere bai

Hiru egunez, Lanbide Heziketaren eskaintzaren erakusleiho izan da Arrasateko Kulturate, Goiaz! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azokaren bitartez. Ikasle eta langabe asko erakarri ditu ekimenak.




GOIENA

## Hasi dira herriratzen ibarreko iheslariak

Miren Aierbe eta Enrike Jauregi iheslari bergararrek egin dute etxerako buelta, joan den domekan egin ere. Atzerritik sorterrira bueltatu diren lehen debagoiendarrak dira Aierbe eta Jauregi. 17 urte eta erdian izan da bikote hori iheslari, eta, argazkiak erakusten duen moduan, domekan bertan zain zituzten lagun eta senideak, eta txalo artean hartu zituzten Bergarara iritsi zirenean.

**Laura Mintegi** | EH Bilduren bozeramailea Eusko Legebiltzarrean

# "Helburuak dira bakea, bizikidetza eta justizia; eta ez du ardura nork jasotzen duen domina"

- Estatusari dagokionez, berresten du "gutxiengoak" ezin duela "bere nahia inposatu"
- Armagabetze keinuaz dio, funtsari begiratuta, "ekimena bera oso garrantzitsua" dela

JULEN IRIONDO | OÑATI

Luze jardun dugu Laura Mintegirekin (Lizarra, 1955). Kataluniaz, Iparraldearekiko Hegoaldekoon *"sudismo"*-az, ekonomiaz eta hondakinez ere egin dugu berba. *Goiena.net*-en, elkarrizketa osoa; papererako ondorengoak aukeratu ditugu.

**Estatus berriari buruzko Legebiltzarreko ponentziatik zer espero behar dugu?**

Argi dago badela sasoia berrikusteko zein den Erkidegoak Estatuarekin duen harremana, eta hori da helburu nagusia. Orduan, lehenik eta behin egin beharko da gaur egun dugun harremanaren balantzea, eta horren gainean bestelako harreman bat eraiki. Gure ikuspuntutik, mugarik gabeko ponentzia bat izan behar da; muga bakarra, izatekotan, izango litzateke herritarren euren nahia. Baina ezin da aurrebaldintzarik ipini, ezin da aurre-juzgurik egin, eta alde horretatik arduraz ikusten ditut egun hauetan esan diren gauza batzuk, aldez aurretiko mugak edo baldintzak ezarri nahian. Andoni Ortuzarrek ere argi erantzun dio Txarli Prietori: hoberena dela adostasun zabalak egotea, eta sentsibilitate guztiak barnean sartzea, baina hori ez balitz, gutxiengo batek ezin duela bere nahia inposatu gehiengo baten aurrean.

**Noiz arte edo zer gertatu arte jarraitu dezake sostengarri izaten erabakitzeko eskubidearen ukoak, gainera ikusita, adibidez, aurten bertan, Europan, eskoziarrek erabakiko dutela euren etorkizuna?**

Tantaka bada ere, gero eta ozenagoa da nazioartetik datorren iritzi hori, herri baten nahiari ezin zaiola oztoporik edo eragozpenik jarri. Are nabarmenago geratuko da, esaterako, Eskozian, Erresuma Batuko Gobernuarekin berarekin adostuta erreferenduma egingo dutenean; orduan, nahikoa *martzianoa* izango da Europan estatu batek esatea, "ba gurean ez dago galdetzerik". Urtean hogei aldiz galdetzen dute Suitzan, prozesu horretan dabil Flandria, Montenegron ere antzerako nahia dago, Krimean astebetean antolatu dute erreferenduma, eta nahikoa izan da herritarren nahia; orduan, noiz arte? Beste arlo batzuetan esan zaion moduen Europatik "honaino heldu zara eta hori ez da bidezkoa", berez ez badu jauzi hori egiten, agian Europatik ere etorriko zaio atentzio dei hori, esatea ez dagoela horrela jarraitzerik.

**Ze Espainiako barne politikan konfiantzarik? Badira demokraziaren aldeko mugimendu batzuk, gizarte arloan batez ere, baina ez dakit politikarengan baduzun federik gauzak iraul daitezen eta ager dadin inor defendatuko duena hemen eskubide batzuk badirela.**

Gaur eguneko Gobernuarekin ez dago askorik itxaroterik. Baina ni konbentzituta nago indarrak egon badaudela, bai Euskal Herrian, noski, zalantzarik ez daukat, eta baita Espainian ere; tantak dira: egun baten da Gamonal, hurrengoan da M-15, eta beste batean da Andaluzian egindako ekimenak supermerkatuetan. Eskaera hori egon badago jendearen aldetik, eta falta dena da katalizatzaile bat. Katalunian gertatu zen, suertatu da, katalizatzailea momentu batean izan zen bidegabekeria ekonomikoa, "honaino!" esan dute, "nahikoa da!", eta horrek piztu egin du ordurako siku zegoen egurra. Eta ni konbentzituta nago egur hori egon badagoela, hemen ere bai, eta behar dela txinparta hori, tximista, indarra katalizatuko duena. Zer izango den? Ez dakigu, eta ziurrenik ez da guk aldez aurretik imajinatu dezakegun ezer. Lehengo egunean sindikalista bati entzuten nion Gutun Soziala izango dela; nondik nora? Bulegoetan antolatutako gauza bat izango da? Ez, ziurrenik izango da espero ez dugun zerbait.

**Zeu nafarra izanda, zer deritzozu hango Gobernuaren inguruan eta PSNrekin gertatu ere denari?**

Niri Nafarroak min egiten dit, sakon sakonean, min fisikoa gainera. Nafarrok ez dugu merezi Gobernu hori. Gezurra ematen du nola alderdi batzuen koldarkeriak mantentzen gaituen egoera honetan. Zerbait positiboa ateratzekotan honetatik guztitik, eta beti gustatzen zait alde positiboa ikustea txarrenean ere, ba positiboa da argi eta garbi esan dutela Nafarroa dela Estatu kontua. Nabarmen ikusi dugu beti, eta, behingoz, hori aitortu dute. Hau da, Nafarroa galtzea da Espainia desegitea. Hori esan egin dute, behingoz, eta bazen sasoia hori entzuteko instantzia desberdinetatik. Eta orduan, horrela, norbait agian hasiko da konturatzen zer-nolako politikak eraman diren azken urteetan Nafarroan, eta zergatik egin den hainbesteko ahalegina beraren euskalduntasuna, beraren euskal herritartasuna ukatzeko; hau da, euskara ez zela berezkoa, astakeria galanta; edo ez zela *baskoa*, astakeria galanta, edo zerikusirik ez zeukala gainerako lurraldeekin. Behingoz begi bistan gelditu da, nabarmen, guztien begien aurrean, Nafarroa izan dela ariete bat *Vascongadak* kolpatzeko, *Vascongadek* prozesu independentistarik ez izateko lanabesa. Eta diagnosi zuzena egitea, behintzat, bada zerbait.



Laura Mintegi, martitzenean Oñatin. | JULEN IRIONDO

> **"Nafarroa galtzea da Espainia desegitea; hori esan egin dute behingoz"**

> **"Jendeak (...) ikusten duenean badagoela aukera bat abertzale guztiak batzeko (...)"**

> **"[Desarme keinuaz] Agian, bideo kaxkar bat emateak eragin du txantxa eta iseka"**

**Hasier Arraizek elkarrizketa batean zioen agian arazoa zela espektatiba handiegiak sorrarazi zituztela batzuek desarmea zela–eta nazioarteko egiaztatzaileak ematera zetozen mezuaren inguruan; urtarrileko Bilboko manifestazioko batasunaren inguruan ere espektatiba handiegia sorrarazi zen agian?**

Nik uste dut jendeari ezin zaiola leporatu espektatiba handiegiak edukitzea. Eduki ditzatela eta aurrera espektatibekin. Hemen konponbidea ez da jendeari espektatiba maila jaistea, baizik eta espektatiba horiei alderdiek erantzutea. Orduan, izatekotan da alderdien eta politikarien akatsa. Jendeak zuen berez espektatiba, eta orduan hori ikusi zenean, hor metatu ziren ilusioak. Hau ez da izango prozesu lineala. Antzeman daiteke gaudela fase baten amaieran, hain zuzen ere, aurrera eta atzera pauso asko daudelako. Baina gehiago aurreratuko dugu atzera egin baino. Jendeak bere imajinario kolektiboan ikusten duenean badagoela aukera bat abertzale guztiak batzeko eta aurre egiteko kanpotik datozen inposaketa basati eta burugabe horiei... LOMCEtik hasi eta aborturaino, adibideak nahi beste. Eta egia da, bai, atzerapausoak daudela, baina askotan atzerapauso horiek azaltzen dira bi korronte kontrajarri daudelako batera, batasun beharra, batetik, eta abertzaletasunaren hegemonia norberak lortzeko borroka, bestetik.

**Eta armagabetzea aipatu dudala, zer deritzozu ETAren keinuari?**

Nik uste dut oso garrantzitsua zela ekimena bera. Munduan oso aurrekari gutxi daude non ezeren truke eta aldebakarreko prozesu baten ondorioz indar armatu batek erabakitzen duen gelditzea, amaitzea eta armak ematea, eta ez izatea zeini eman. Agian, bideo kaxkar bat emateak eragin du txantxa eta iseka. Agian norbaitek ez zuen ondo kalkulatu, pentsatuz irudi batek duen indarra, irudi hori ondo ez baduzu egiten kontrako efektua izan dezakeela. Baina ezin dugu azalekoa bakarrik begiratu, sakonekoa begiratu behar da. Eta sakonekoa ikaragarri garrantzitsua da.

**Noiz arte edo zer gertatu arte aldebakarreko keinuak?**

Ba helburuak lortu arte. Eta helburuak dira bakea, bizikidetza eta justizia; askotan hirugarren hitza ahaztu egiten da. Eta nik gauzak ikusten ditudan moduan, ez du ardura nork jasotzen duen domina, eta nork eramaten duen horren etekin politikoa; niri esaten badidate, "horrek meritu guztia eramanda hemen lortuko dugu kartzela politika justuago bat, eta giza eskubide guztiak onartzea, erabakitzeko eskubidea barne, eta gizarte berdintasunezkoagoa ikuspegi ekonomiko batetik, eta horretarako dominak eraman behar ditu besteak", ba eraman ditzala.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## ZABALIK



**IÑAKI PEÑA**
goiena.net/komunitatea/

# Kataia ez da eten

Berriz min hau' - Agurrak - Absentziak - Besaulki, kulunkaulki, zabu hutsak - Ezin sinetsi - Maite dogulako min emoten deusku - Dolu trabatuak - 'Mina konpartitzen badozu arintzen da' - Barkamena eskatu eta eskaini, eskerrak emon, "maite zaitut" esan eta "agur" esan - Gutun bat idatzi - 'Dolu biek ez daukate zerikusirik' - Osatzaile zaurituak - 'Aita, ez dozu negar egiten medikua zarelako?' -

'Herra kanta' - Samina, sumina - Desegituraketa - Alzheimer, despertsonalizazioa - Umeek ere parte hartzea - Dolu debekatuak, ikusezinak, ulertezinak - Ez epaitu inoiz - Zainketa aringarriak z. intentsiboetako unitateetan - Emakumeak eta gizonak - Doluminak zelan emon? -

Egun "perfektuak" - Jaungoikoa eta hileta zibilak - EHn egina baina AEBetarantz eta Indiaranzko leiho banagaz - Geure hizkuntzaz egina baina polifonikoa - E. Kübler-Ross eta Literaturaterapia - Ez Dok Amairu eta ondorengo belaunaldi musikalak - Zinematerapia -

> **"Zergaitik neurtu bizitza urtetan eta ez gauzatutako ametsetan?"**

'Esperantzara kondenatuak' - Bizipoza - Bizimina, minbiziaren aurrean - Menditerapia, gailurrerako bidean barruko bidea osatzen - Dotoreziaz bizi eta hil - Zergaitik neurtu bizitza urtetan eta ez gauzatutako ametsetan? - Hamen gelditzen garenok aurrean badeukogu zer ibilia - Belaunaldiz belaunaldi transmititutako baloreak eta ondareak - 'Ez ahaztu sekula' - Omenaldiak - Bihotz beteak - 'Argia heldu da' -

Elgetako Espaloia - Arinduz Bilbon - Donostiako Koldo Mitxelena - Errenteriako Fatima Parrokia - Aretxabaletako Arkupe - Oñatiko zinema - Antzuolako eskola - Arrasateko Kulturate - Iruñeko Golem - Gasteizko Agruparte - Eskoriatzako Ibarraundi - Bergarako Zabalotegi - Bilboko Kafe Antzokia - EHUko zinema zikloa doluaz - OEEren 24. Biltzarra - Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia - Leintz Gatzaga - Aramaixo - Bartzelonako Palau Macaya -...

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.com

# Gure esku dago

Ez duzue igarri? Gainean dira hauteskundeak, ez da faltako oraindik urtebete falta dela dioenik, baina urtebete bakarrik dugu aurretik. Gure esku dago hauteskunde arteko egunetan gertatuko direnak lupaz begiratzea gero erabakitzeko, gobernukoen zein oposiziokoen lana jarraitzea dagokigu. Alkatetza berriak izango ditugu, baina ez denak. Eskertzekoa herri politikan egindako lana, gertuko harremanak asko eskatzen du-eta: desorduak, lagunekin haserreak, barruko iritzi ezberdinak baretu beharra, kanpoko iritzi zaratatsuak entzun... Eta beti dago aukera zuretzako ere, ez egon zain besteek zer egingo. Arrimatu gustuko duzun taldera, zure esku ere badago-eta herria egitea.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.net/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Malkoak

**Asier Osinaga**
blogak.goiena.net/osirenbloga/

Udaberriak elurra ekarri digu mendira. Egun eguzkitsuen ostean neguko giroari egin dio harrera udaberriak; oraindik ere, lozorrora joateko asmorik ez balu bezala azaldu zaigu lotsagabe. Peñas Negras aldean izan zen elur bustirik igande goizez. Balizen bila jarduten nuen bitartean, euriak eta elurrak sartu-irtena egin zuten horren inguru ederretan. Garai batean burdina ateratzen zuten bertako harkaitzetatik eta hauek zulatzerakoan marraztu ei zituzten lubaki perfektuetan barna aurkitu genuen baliza bat edo beste. [...]

Balizen ordez kilometroak batu behar izan zituzten larunbatean Azkoitia eta Azpeitia aldean. Diego handiaren omenez ospatzen den maratoi erdian marka politak egin ziren; elite mailako kirolariek ez ezik, korrikalari herrikoi gehientsuenek ere, denbora marka politak egitea lortu zuten. Ordubete azpiko muga gainditzea erdietsi zuten korrikalari afrikarrak egundoko lasterketa burutu zuten denon gozamenerako, Garcia nekaezinaren atseginerako. Eta ezin dut aipatu gabe utzi emakume afrikarren abiadura, izugarria.

Atletismoa maite dugunok Diego gurtzerainoko arrazoiak bilatuko genituzke edonon. Pertsona eta kirolari handia zen azkoitiarra. Eta gurtu beharrean daude Bilbon zendu berri den Azkuna alkatea; errespetu guztiz baina, *Azkuna* baino *astuna* bilakatzen ari da kontua. Pantaila erraldoiak, egunkari jakin batzuetako orrialde amaigabeak edota monarkikoegiak diren mozorro espainolek astintzen dute Bilbo zaharra. Izan da eta izango da oraindik ere, osasun kontseilari ohiak baino laudorio sendoagorik merezi duen euskaldunik.

Bilbo eraberritzeko hauspoa izan zen Azkuna. Esate baterako Miribilla eraiki zen hirian. Eta pabiloi erraldoi honetan egin zuten atzo negar Bilbao Basketeko jokalariek; . Egoera ekonomiko tamalgarrian omen dago Arrindaren taldea eta ondorioz, denbora batetik hona, soldataren faltan daude. Zalegoarean babesa ikusirik negar malkoak masailetan. Klasiko bat bihurtzen ari da klub ezberdinen kontu korronteak zenbaki gorriz ikustea. Eta klasikoak aipatze aldera, *Bernabeukoa eta Milan -San Remorakoa* jarriko nituzke mahai gainean. Penaltiekin eginiko porrusalda ederra bizi izan da Chamartin delakoan eta bizikleta gaineko lasterketan berriz, orain artean itzalean aritu den Kristoff norbegiarra izan da onena.

Eibar futbol taldeak meritu handiko garaipena lortu zuen Mirandan. Lider sendoa dela erakutsi zuen eta tinko jarraitzen du lehen mailarako bidean. Sendotasunik gabeko osasuna dakusat Sadarreko taldeari; indarrik gabeko partidua jokatu zuen atzo eguerdian erresumako hiriburuan.

Horrela jarraitzen badu arazoak izan ditzake mailari eusteko. Zalantzarik gabe osasuna hobetuko zaie iheslariei. Pauso berri bat eman dute aberritik kanpo izan diren euskaldunak; zorte on guztiei.

Eguna luzatuz doa. GPSaren itzaletik kanpo diren erlojuak laster batean moldatuko ditugu. Energia aurrezteko omen da; zenbaki gorririk gabe jarduteko bidea dugu eskura eta bien bitartean, izango da norbait pozez edota penaz negarrez Bilbo, Azkoitia ala Madrilen. Ondo izan.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Txirrinka bueltaka

**Aitor Ugalde**
(Txirrinka elkartearen izenean)
Oñati

Hori da txirrinka batek egiten duena, bueltak eman eta bidea egin. Hori da Oñatiko bizikletazaleen elkartea, Txirrinka, sortu genuenetik egin duguna: pedalei eraginez txirrinkari bueltak eman eta bidea egin, abiadura handiegia hartu gabe, baina geratu gabe. Oñatin bizikletaren erabilera sustatzeko sortu zen Txirrinka, bizikleta kirolerako edo aisialdirako bezala eguneroko garraiobidea izateko eta bizikletan modu seguruan ibili ahal izateko bideak eskatzeko.

Gauzak asko aldatu dira ordutik, onerako. Hasieran aldats pikoak besterik ez genuen topatzen, orain bidea leundu egin da, geroz eta jende gehiagok erabiltzen du bizikleta Oñatin, horretarako bideak ere egin dira. Txirrinka, ordea, ez da geratzen, bizikleten txirrinkak bueltaka dabiltzan bitartean, beti dago bidea egiteko, batzuetan korapilatsua izaten den oinezkoen eta beste garraiobideen arteko elkarbizitza baten barruan.

Bidea egiten jarraitzen du Txirrinkak, baina berrindartu beharra dauka pedalei eragiten jarraitzeko, indar berria behar dugu. Horregatik, elkartean parte hartzeko gonbidapena luzatzen dugu edo elkarteko bazkide izateko aukera eskaini. Etorri nahi duenarentzat, hilero lehen astelehenetan elkartzen gara (19:15ean kiroldegian); elkarteko bazkide egiteko kuotak 10 euro balio du eta opari ikusgarri bat (benetan ikusgarria) jasoko dute bazkide egiten direnek. Martxoaren 29an Oñatiko plazan egongo gara, gure asmoak azalduko dizkiegu bertaratzen direnei, bazkide egin nahi duenak bertan izango du aukera, gure kamiseta erosi ahal izango da eta gaiarekin lotutako beste edozein kontutarako ere hantxe egongo gara.

Etorri, aurrerantzean ere Txirrinkak bueltaka jarrai dezan.

## Eskerrik beroena

**Ander Alberdi Lete**
Bergara

Ez dut nahikoa hitz, ez eta espaziorik ere, bergarar guztiei eskertzeko joan den asteazkenean, martxoak 12, 12:30ean, Matxiategi kalean gertatu zitzaidan istripua dela-eta jasotako laguntza eta elkartasuna, nire egoera delikatuagatik ez bainintzen gai, nire kabuz, anbulatoriora joateko ere.

Modu berean, bertaratu ziren Bergarako udaltzain eta 112ko profesionalei nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, emandako laguntza eta zerbitzuagatik eta, bereziki, eskainitako maitasun eta pazientziagatik.

Halaber, eskerrik asko nitaz kezkatu zareten guztioi, zuzenean niri edota nire familiarteko, ezagun edota lankideei galdetuta. Guztia susto batean geratu dela eta, orain arte bezala, Bergarako edozein txokotan elkar ikusiko dugula jakinarazi nahi dizuet.

Ez dut sentikor jarri nahi, baina horrelako ustekabeko gertakizunetan ikusten da eta ikusi ahal izan dut bergararren solidaritate, esku-zabaltasun eta altruismoa. Guztiek izango duzue lekua nire oroitzapen eta bihotzean.

Guztiei, bihotz-bihotzez, eskerrik asko!

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Lan gehiago eta kritika gutxiago, Garcia jauna

**Juan Karlos Garitano**
(EAJ-PNVren bozeramailea)
Arrasate

Ze fundamenturekin kritikatzen du Arrasateko PSEren idazkari Francisco Garcia jaunak hondakinen mahaian EAJk lortu duen akordioa?

Mahai honetako partaide izanez, EAJk, beti bezala, arrasatear gehienen interesen alde lan egin du. PSEk, bestalde, ezin du horrelakorik baieztatu. Garcia jaunak ez du nahi izan eta jadanik badaki erabaki okerra hartu zuela.

Hondakinen mahaian hartutako akordioak, atez atekoaren sistema alde batera utzita, edukiontzien bitarteko hondakin bilketari ematen dio lehentasuna, Arrasateko sentsibilitate politiko ezberdinetako herritarren nahia beteaz, Garcia jaunak ordezkatzen dituenenak barne.

Ez dago dudarik arrasatear gehienak akordio hau lortzeaz poztu direla eta edukiontzien bitartezko hondakinen bilketa defendatzen dugunok konfiantza osoa daukagu denon artean lortuko dugula sistemaren baliagarritasuna demostratzea, lortuko baitugu hitzartutako helburuak betetzea.

Halere, nola ulertu daiteke, Garcia jauna, zeinek 5. edukiontzia defendatzen duela esaten duen, ez dela fio arrasatearrek demostratuko dutela?

Gainera, EAJ kritikatzen du, Arrasate Garbirekin batera (AG), hondakinen mahaiko beste partaideen (Bildu, Aralar, Ezker Anitza, Zero Zabor eta Ekologistak Martxan) konfiantza lortu izana eta edukiontzien bitartezko hondakin bilketaren aldeko apustua egin izana, akordio batean islatuz.

Akordio hau aste honetan udaletxean ospatutako osoko bilkuran onartu da, eta, horri esker, 2012ko ekainaren 12ko osoko plenoan atez atekoa inplantatzeko hartutako erabakia bertan behera gelditu da.

Garcia jauna noiz konturatuko da heldu dela momentua behingoz "elkarlanean aritzeko eta gutxiago kritikatzeko"?

## Hator, hator neska-mutil etxera!

**Jose Mari Zugasti Arregi**
Oñati

Martxoaren 22a, larunbat goiz euritsua. Eguerdia heltzearekin batera, argi izpi batek aurre egiten dio eguraldi ilunari Euskal Herri osoan.Albiste zoragarria, bolo-bolo dabil komunikabide eta sare sozialetan. Euskal iheslari politikoen kolektiboa, gatazka politikoaren konponbidean, beste urrats ausart bat egitera doala irakurtzen dut.

Nire barnean poztasuna da nagusi, euskal iheslari politikoen kolektiboa osatzen duten kideen %20k beren sorterrira itzultzeko urratsa egitera doazela irakurtzeak poztasunerako eta hausnarketarako nahiko arrazoi ematen baitit.

Euskal iheslarien kolektiboa oso anitza eta zabala da. Arrazoi desberdinak medio, azken hamarkadetan, ehunka euskal herritarrek beraien sorterria utzi eta alde egiteko hautua egin dute. Bizi baldintza gogorrak pairatu behar izan dituzte, desagertuak, hildakoak... izan dira. Argi dagoena da gatazka politikoaren ondorio direnez gatazka politikoaren konponbidean ere subjektu aktibo izan behar dutela.

Garaia da, konponbide garaia da. Soluzio demokratikoa emateko irekia den prozesua bultzatzeko, beraien ekarpena egin dute. Iheslari guztiak Euskal Herrira eta beraien etxeetara zentzuzko denbora batean itzultzeko beraien bideorria aurkeztu dute:

*www.kazeta.info/harhitza/sorterritik-sorterrira-lepoan-hartu-eta-segi-aurrera/*

Baina tamalez, oraindik ere, frantziar eta espainiar estatuak ez daude konponbiderako parametroetan. Beraz, egin duten mugimendua Euskal Herriari begira egin dute. Gu gara beraien arnasgune. Gu gara beraien babes eta arnas. Iheslariek konponbidearekiko hartu duten konpromisoak eta Euskal Herrian gehiengoaren nahiak bat egiten dutenez, gatazka politikoaren korapiloak askatzen joateko aukerak parez pare ditugu.

Ez izan dudarik esfortzuak merezi izango duela: urrats batek ondorengo urratsa dakar, eta, denon artean herri babesa indargune izanik, emango ditugun aurrerapausoak geldiezinak izango dira.

Aske izateko joan ziren eta aske izateko itzultzen hasi dira, den-denak etxean izan arte. Denok izan gaitezen libre!

## Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki! LOMCEri ez!

**Arianna Arizabaleta, Ibane Baseta, Xabi Eguren eta Idoia Larrañaga**
(Bergarako Hezkuntza Mahaiaren izenean)
Bergara

Espainiar Gobernuak LOMCE hezkuntza erreforma basatia onartu eta indarrean jarri du.

2014-15 ikasturtean abian jartzeko arazo teknikoez harago, datorren ikasturtean zein hurrengoetan lege honen aplikazioa ekiditeko eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza sistema egituratzeko, pausoak ematea ezinbestekoa dugu.

Nabaria da Euskal Herriko hezkuntza eragile gehienon, ikasle, familia, langile eta beste hainbat elkarte eta erakunderen erabateko aurkakotasuna. Zentralizatzailea, adoktrinatzailea, uniformatzailea, atzerakoia, segregatzailea eta elitista den legea Euskal Herrian inposatzea inola ere ez dugu onartzen.

Euskal Herriko alderdi politikoei eta Nafarroako eta EAEko legebiltzar eta gobernuei behin eta berriro eskatu diegu eta eskatzen diegu LOMCEa gure herriko ikastetxeetan ez dezatela aplika eta horretarako bitarteko guztiak erabil ditzatela.

Hezkuntza eragileok LOMCEa gure herrian aplika ez dadin estrategia komunak eta bitartekoak lantzen ari gara. Bergaran Hezkuntza Mahaia osatu da herritarren bultzadaren eta San Martin ikastetxearen, Migel Altunaren, Aranzadi Ikastolaren, Ipintza Institutuaren eta Helduen Eskolaren oniritziarekin. Helburuak dira Bergarako hezkuntza komunitate osoa (irakasle, ikasle, guraso, herritar…) islatzea, LOMCEren kontra indarrak batzea eta hezkuntza propioa eraikitzea.

Eta ezinbestekoa deritzogu azken hamarkadetan inposatu nahi izan dizkiguten lege eta dekretuen gainetik ehuntzen joan garen hezkuntza ereduari jarraipena eman eta hezkuntza sistema propioaren garapenean pauso berriak emateari.

Asko dugu egiteko, baina orain arteko bide hori aintzat hartuz, baditugu abiapuntua diren eta garatzeko premia duten adostasun zabala batzen duten oinarrizko edukiak.

Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza eraikitzerakoan ardatz hauek hartu nahi ditugu hezkuntza eragileen artean, ikastetxeetako ikasle, familia eta langileekin eta herritarrekin batera landu eta garatzeko:

1-Ikasle garapen beharrak eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzailea, kritikoa…) eta baliabide guztiak izango dituena. 2-Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituena. 3-Curriculum propioa izango duena. 4-Ikastetxeen autonomia eta parte hartze eta funtzionamendu demokratikoa bermatuko duena.

LOMCEri aurre egiteko eta gure hezkuntza propioa eraikitze bidean ezinbestekoa da hezkuntzan dihardugunon eta herritarren inplikazioa. Horregatik, antolatuko ditugun ekimenetan eta luzatuko ditugun proposamenetan parte hartzea eskatzen dizuegu.

Bergarako Hezkuntza Mahaiak, herriko ikastetxe guztietan, ostiralero jolas orduetan LOMCEren aurkako 5 minutuko kontzentrazioak egitea adostu du. Lehen ekintza izango da, baina Hezkuntzaren Mahaiak lanean jarraituko du.

Apirilaren 3an 19:00etan kultur etxean egingo den bilera irekira interesatu guztiei gonbidatzen zaituztegu.

Guztion artean lor dezakegu! Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki! LOMCEri ez!

# HERRIAK

BERGARA

# Naturak ere badu historia

- Natura Eguna egingo dute etzi Gorlan, naturaguneko ondare historikoa balioan ipintzeko
- Pagola-Loidiko pagadian 100 zuhaitz landatuko dituzte; pagoak, urkiak, elorriak, eta abar

MIREN ARREGI | BERGARA

Natura Eguna ospatuko dute domekan Bergaran. Gorlan izango da eta aurten ere natura eta ondare historikoa balioan ipintzeko ahalegina dago egun horren oinarrian. Hala, zuhaitzak landatuko dituzte, eta, horrekin batera, Gorlako naturaguneak gordetzen dituen ondare eta elementu historikoak ezagutzeko aukera eskainiko dute.

**100 zuhaitz**

Pagola-Loidiko pagadian landatuko dituzte zuhaitzak. Helburua pagadia berreskuratzea izanik, landatuko diren zuhaitz gehienak pagoak izango dira, baina gorostiak, sagarminak, urkiak eta elorri zuriak ere landatuko dituzte. Guztira, 100. "Bergaran, San Martzialen eta Gorlan egin izan ditugu landatzeak. Bi gune horietan ari gara basoa berreskuratzeko lanetan", dio Iñaki Irizarrek, Ingurumen teknikariak.

Zuhaitz landatzea bukatuta, Gorlako kantina inguruan, Neolitora eta Brontze Arora bidaia egiteko aukera egongo da. "Gorlako naturaguneak dituen beste balio batzuk erakutsi gura ditugu", dio Irizarrek.

**Historiaurreko ehiza moduak**

Landatzearen ostean, historiaurreko gizakiak ehizatzeko erabiltzen zituen tresnen erakustaldia egingo dute, Debanatura elkartearen eskutik. "Neolitoan eta Brontze Aroan ehizan nola egiten zuten erakutsi gura diegu ume eta gaztetxoei", dio Debanatura elkarteko Diego Mendozak. "Horretarako, bi ekintza antolatu ditugu: batetik, uztai jaurtiketa; eta bestetik, lantza arinen jaurtiketa", gaineratu du. *Historiaurreko Olinpiadak* izena eman diote ekintzari, eta, esan bezala, Neolitoko eta Brontze Aroko Euskal Herriko kulturara bidaia bat izango da. Uztai jaurtiketari dagokionez, zirkuitu baten dianak ipiniko dira. "Dianak izango dira garai hartan ehizatzen zituzten oreinak, basurdeak...", dio Mendozak. Arkuak, nola ez, egurrezkoak izango dira, eta baita azagaiak edo lantza arinak ere.

Elosuko eta Gorlako ingurua ingurune aberatsa da historiaurreko aztarnei dagokienez. Hori dela-eta antolatu dute Neolito garaiko ehizatzeko moduak erakusteko ekintza. Hain justu ere, Irimo mendian hasi eta Elosua eta Agerreburu pasatuz Maltzagaraino eta Soraluzeraino iristen den Elosua-Soraluze estazio megalitikoa ezagutzeko abiapuntu gisa antolatu dute *Olinpiada*. Jose Migel Barandiaran paleontologo eta etnografoak *Dolmenen ibilbidea* izenez bataiatu zituen ibilbide horretako aztarnak: 16 hilobi-monumentu daude ibilbide horretan.



Iazko Natura Egunean, San Martzialen, zuhaitza landatzen. | GOIENA

**Historiaurrea bakarrik ez**

Herritar guztiei zuzendutako ekintzarik ere ez da falta izango; izan ere, Gorlatik Santutxura ibilbide gidatua egingo dute Amaia Arriaran ipuin kontalari bergararrak gidatuta. Estazio-megalitikoa ez ezik, Elosuko gaztelua eta bandoleroak izango ditu protagonista bere kontakizunean. "Bideetan oinarrituko dut kontakizuna. Antzinako bideei begira hainbat gauza jakin ditzakegu. Bideetako arrastoek gure historia kontatzen dute", dio Arriaranek.

**Elkarlanaren emaitza**

Bergarako Udalaren eta herriko hainbat talderen elkarlanaren emaitza da etzi egingo den Natura Eguna. "Gaur egun garrantzitsua da ahaleginak batzea. Etekin handiagoa ateratzen da", dio Irizarrek, Ingurumen teknikariak. Hala, Lokatzak antolatzen duen txirrindulari lasterketarekin batera egingo dute Gorlan Natura Eguna. Pol-Pol Mendi Taldea ere batu da antolakuntzara: oinezko irteera, etzi, Gorlara izango da; 08:30ean irtengo dira, frontoitik. Hori bakarrik ez, mendi taldeko Mendia Bizirik taldeak ere parte hartuko baitu Udaleko Ingurumen Dailak bultzatutako Natura Egunean. Udalak autobus zerbitzua ere ipini du; goizean 09:15ean eta 10:15ean irtengo dira Ariznoatik. Buelta 12:45ean eta 13:45ean izango da.

### EGITARAUA

**08:30** Pol-Pol Mendi taldeak gidatuta Gorlara irteera.

**10:00** Zuhaitz landatzea.

**11:00** *Historiaurreko Olinpiadak.*

**11:00** Ibilbide gidatua Elosuko Benta inguruan.

**12:00** Hamarretakoa Kantina aurrean, ume eta gazteendako.

**12:15** Txirrindulari lasterketaren bukaera.

**IÑAKI IRIZAR**
INGURUMEN TEKNIKARIA

## "Landaketa bera ondare historiko eta kulturalarekin lotuko dugu"



GOIENA

Bergarako naturaguneak balioan ipintzea eta galdutako basoak berreskuratzea dira Natura Egunaren helburu nagusiak. Ingurumen teknikari Iñaki Irizarrekin izan gara.

**Galdutako basoak berreskuratzeko ahalegina dago oinarrian.**

Zuhaitz landatzeen atzean, galdutako basoak berreskuratzeko ahalegina dago. Orain arte egin dira landatze batzuk, baina ezin dugu esan basoak berreskuratzeko adinakoak izan direnik. Oraingo honetan, 600 bat zuhaitz landatuko dira Gorlan, bi hektareako lur eremuan. Domekan herritarrekin batera landatuko ditugun 100 zuhaitzekin osatuko da lan hori.

**Zuhaitz Eguna barik, Natura Eguna izango da.**

Landatzea bera Gorlako naturagunean dagoen ondare historiko eta kulturalarekin lotu gura izan dugu. Horregatik antolatu ditugu, besteak beste, arkuen eta azagaien jaurtiketak eta *Dolmenen ibilbidea* -n barrena bisita gidatua.






Hondeatzailea lanean Monterron parkerako sarreran. | JOKIN BEREZIARTUA

# Monterron inguruko zorua aldatzen hasi ziren eguaztenean

Herritarrak ez irristatzeko zorua jarriko dute; lanak bi hilabetean amaitzea aurreikusten da

J.B. | ARRASATE

Eguaztenean hasi ziren Monterron jauregiaren inguruan zorua aldatzeko lanak. Jauregi aurrealdean eta parkera sartzeko bidearen zati baten zorua aldatzea da lanon helburu nagusia. Eguaztenean bertan hondeatzaileekin aritu ziren aldatu gura den zatiko zorua altxatzen eta egun bakarrean, euria egin arren, zati handiena altxatzea lortu zuten.

**Labainkorra eta putzuak**

Denboraren poderioz kaltetuta zegoen zorua, eta labainkorra egoteaz gain, euri apur bat egiten zuenean putzuak sortzen ziren. Erdigunean egonda eta Arrasate Musikalen egoitza bertan dagoela kontuan hartuta, adin guztietako hainbat herritarrek erabiltzen dute pasabide hori.

Horregatik, obretako langileen arabera, zorua altxatu ez den lekuetatik pasabideak irekitzen joango dira obretatik igaro edota musika eskolara sartu gura duten herritarrendako. Horrek zenbait aparkaleku erabileraz kanpo geratzea eragingo du. Bestalde, Monterron parkera sartu ahalko da, baina atzeko aldetik.

**'Graniblock' izeneko harlauza**

Obrak hasi baino lehen *Canto Rodado* edo *China Miranda* izenekin ezagutzen den materiala zegoen jauregiaren aurrealdean eta parkerako sarreran eta, haren ordez, Pavitusa etxeko *Graniblock* izeneko harlauza jarriko da, labaingarria ez dena. Udalak aditzera eman duenez, bi hilabete inguru iraungo dute lanek eta kontratuaren prezioa 56.040 euro da (BEZa barne).

Asfaltados y Construcciones Morga SL enpresako langileek dihardute lanean.

# Kaleko erosketak etxeko tuperrarekin egiteko deia

Gaur eta bihar 50 zentimotan jarriko dituzte salgai ontziak, Seber Altuben

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Astelehenean, hilak 31, abiatuko dute kaleko erosketak etxeko ontziarekin egiteko *Ontziratu zaitez, erosketak ganoraz! Erabilizu tuperra!* kanpaina. Ekimena abiatu aurretik, gaur –10:00etatik 12:00etara– eta bihar –11:00etatik 13:30era–, tuperrak salgai jarriko dituzte 50 zentimoren truke, Seber Altube plazan. Herritarrei tuperrak banatuko zaizkie, guztira 3.000 ale. Asteburuan banatzen ez direnak dendetan jarriko dira salgai gero.



Sustatzaileak ontziekin eta kanpaina iragartzeko kartelarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

**Hondakinak ez sortzea helburu**

Dendetan paper eta plastikozko poltsen erabilera murriztea eta arrasatearren artean kontsumo arduratsuaren aldeko jokaera zabaltzea dira helburu nagusiak: "Ahalik eta hondakin gutxien sortzea da kanpainaren helburu garrantzitsuena", adierazi zuen Ingurumen zinegotzi Josu Peredak kanpainaren aurkezpenean.

Hondakinen Mahaitik irten zen kanpaina antolatzearen ideia eta Udalak, Kutxa Ekoguneak eta ekimenarekin bat egin duten 14 komertzioak izan dira sustatzaileak. Sei arrandegi eta zortzi harategi dira hasiera baten parte hartuko dutenak: Kresala –bi arrandegiak–, Eguren –biak–, Danarrain eta Itsaski arrandegiek eta Saburdi, Salegi, Otamendi, Landaluze, Gorka, Agirre-Etxe, Kortaberri eta Txomin harategiek: "Harategi eta arrandegien erdiek baino gehiagok bat egin dute kanpainarekin eta beraz, pozik gaude orain arte egindakoarekin", adierazi du Arrasate Zero Zabor taldeko Itsaso Beitiak.

Ohitura aldaketa suposatzen du eta horregatik, pizgarri moduan, sariak emango dituzte kanpainak iraungo duen sei hilabetetan zehar: "Zozketako irabazleari 30 euroko balioa duen txartela emango zaio eta txartel hori saritua izan den komertzioan trukatu beharko du", dio Beitiak. Sariaren erdia komertzioek jarriko dute.

Era berean, Kutxa Ekoguneko Kontsumo Jasangarria Saileko arduradun Amaia Otazok erosoagoa dela dio: "Oso garrantzitsua da konturatzea dendariak aurpegi ona jarriko dizula. Behin ontzia erabiltzen hastean konturatzen zara hozkailura zuzenean doala eta ez duela zikinkeriarik sortzen. Horregatik, jendeak erosotasunagatik jarraitzen du".

**ESANAK**

**"Ahalik eta hondakin gutxien sortzea izango da kanpainaren helburu nagusia"**
JOSU PEREDA | INGURUMEN ZINEGOTZIA

**"Behin ontzia erabiltzen hastean, jendeak erosotasunagatik jarraitzen du"**
AMAIA OTAZO | KUTXA EKOGUNEA

**"Erdiek baino gehiagok bat egin dute eta, beraz, pozik gaude orain arte"**
ITSASO BEITIA | ARRASATE ZERO ZABOR

## 'Ocho apellidos vascos' filmaren beste bi emanaldi asteburuan

Joan den asteburuan izan zuen arrakasta ikusita, Udaleko Kultura Sailak erabaki du *Ocho apellidos vascos* filmaren beste bi emanaldi eskaintzea datozen egunetan. Lehena domekan izango da, hilak 30, 19:30ean. Filma Arrasaten ikusteko azken aukera, berriz, astelehenean, hilak 31, 20:30ean. Joan den asteburuan 3.500 pertsona inguru hurbildu ziren Amaia antzokira. Izan ere, Kultura Sailaren aurreikuspen guztiak gainditu ditu film horrek: "Arrakasta izango zuela bai, baina ez zen espero horrenbesterainokoa izatea". Aurretik halakorik bizi izan ez dutela adierazi dute.

## Bihar Kurtzetxikin egingo den auzolanean 25 lagun espero dira

Udalak eta Bagarak auzolana antolatu dute Kurtzetxikin biharko. Astean zehar eguraldi txarra egin duen arren eta biharko iragarpenek hobera egingo dutela ikusita, ekimena mantentzea erabaki dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 25 lagunek eman dute izena: "Esan digutenez, gogotsu daude biharko". Lau lan egitea aurreikusten dute: goiko larreko zuhaitzak babestea, itxituretan animaliendako pasabideak zabaltzea, artadiko bide zaharra berreskuratzea eta naturako elementuekin artelan bat egitea. Bedoñako aparkalekuan elkartuko dira, 09:00etan.

# Venezuelako etxebizitza politikak hizpide

J.B. | ARRASATE

Venezuelako Gobernuaren etxebizitza politika eta *Gran Misión Vivienda Venezuela* ekimena azaltzen aritu zen Bilbon Venezuelako Errepublika Boliviarreko kontsul jeneral Yolanda Rojas. Euskal Herrian kaleratzeak "egunerokoa" diren bitartean, Venezuelan Gobernua herritarrekin duen zorra kitatzen ari dela esan zuen Rojasek, eta *Gran Misión Vivienda Venezuela* ekimena ipini zuen horren adibide moduan: hiru urtean 500.000 etxebizitza eraiki dituzte aterpe gabekoei emateko.



Salva Gonzalez eta Yolanda Rojas asteleheneko hitzaldian. | ASKAPENA

Horrekin batera, herri-kontseiluen antolaketa zertan datzan azaldu zuen, egungo nazioarteko harremanen berri eman, eta bereziki azken hilabeteetako gertakarien eta komunikabide handienek hartutako paper "manipulatzaileaz" jardun. Arrasateko Askapenak, Circulo Bolivariano La Pueblak, Euskadi-Cubak eta Kaleratzeak Stop Desahucios Debagoienak gonbidatuta egin zuen hitzaldia. Interesa piztu zuen saioak.



Oinezkoentzako pasabidea egoera kaskarrean dago. | JOKIN BEREZIARTUA

# Zalduspe-Osinaga zubian urte amaieran hasiko dira lanean

Gune hezea izan arren azkarregi ari da herdoiltzen; zorua egurrezkoa ez izatea jasotzen du proiektuak

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Nafarroa etorbidea Zigarrolako industrialdearekin lotzen duen Zalduspe-Osinaga pasabidea konpontzeko lanak urte amaieran hasiko direla jakinarazi du Udalak. Zubia nahiko berria da –ez ditu 15 urte baino gehiago– baina hainbat arazo eman izan ditu azken urteetan. 2012ko apirilean, esaterako, pasabidea itxi egin behar izan zuten, zubiaren egituran hainbat lagin hartu behar zituztelako. Egitura azkarregi ari da herdoiltzen eta hori aztertu du Udalak. Oso hezea da gunea eta eguzkiak ez du jotzen apenas; horrek eragin zuzena izan du zubiaren hondatzean.

Lanen aurrekontua da 146.643 eurokoa eta esleipen prozesua uztail inguruan irekiko da. Enpresa arduradunak bi hilabete izango ditu lanekin amaitzeko.

**DATUA**

**146.643**

EUROKO AURREKONTUA

**Zalduspe eta Osinaga arteko oinezkoendako pasabidea konpontzeko lanek 146.643 euroko aurrekontua dute.**

### Proiektua idatzita dago

Proiektua Injelan S.L. enpresak idatzi du eta Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak honako zuzenketak egin zizkion: ez da aproposa ikusten labainkortasun arazoak ekiditeko berokuntza sistema elektrikoa instalatzea gastu ekonomikoengatik eta zubiaren zorua egurra ez izatea gura dute, labainkortasun arazo horiek saihesteko.

Obra hasi aurretik, baina, honako aldagaiak zehaztu behar dituzte, besteak beste: metalezko egituran errefortzu puntualak ala orokorrak egin behar diren zehaztea, oxido geruza ezabatu behar den zehaztea –*corten* motako altzairuaren bereizgarri den geruza sortu aurretik ala metalezko egitura babestuko duen margo bat aplikatu aurretik– eta ondoren egin beharrekoak definitzea, izotza gutxituko duen elementuren bat jartzeko aukera aztertzea –neguan gatza edota urea erabiltzea ekiditeko–, pasabidea nola argiztatu aztertzea, zoru eta argiteria berriaren ondorioz zubiko barandak berritu edo aldatu behar diren proposatzea eta pasabidera heltzeko espaloiak konpontzea.

# Elkartrukeak eta koloreek herria aberasten dutela defendatzen

**J.B.** | ARRASATE

Astelehenean aurkeztu zieten herritarrei *Arrasatetik Mundura, mundutik Arrasatera* ekimena. Arrasaten bizi den "jendarte zabalak" Arrasate mundura irekitzea ekarri duela esan zuten, besteak beste, Kulturaten egindako aurkezpenean. Bertan izan ziren Gizarte Zerbitzuetako teknikari Maider Huerta eta zinegotzi Amaia Larrañaga, Inazio Azkarragaurizar alkatea eta Topaguneako Jasone Mendizabal.

2007an hasi zen Ekin elkartea etorkinendako eta baztertze arriskuan daudenendako harrera, orientazio eta prestakuntza modulua eskaintzen. Era berean, 2012an hasi zen Udala zerbitzu hori finantzatzen, ikusi zuelako Udalak immigrazioaren inguruan egiten duenaren osagarri garrantzitsua bilakatu zela. Kontuan izan behar da etorkinek Arrasateko biztanleriaren %6 osatzen dutela.

### Euskara erdigunean

Udalak eta Ekinek hitzarmena sinatu dute "kultura aniztasuna eta aberastasuna" azaleratu eta "herritarren arteko elkar-ezagutza" sustatzeko.

Hiru dira egitasmoaren gakoak: euskara, aniztasuna eta herritarrak: "Euskara jartzen dugu erdigunean, kohesio eta komunikazio hizkuntza gisa". Amaitzeko, herriko hainbat txokotan jarri dituzten kolorezko kaxak Euskal Herria "mila kolorez" margotzeko duten asmoarekin erlazionatu zuten.



Ekimena Kulturaten aurkeztu zieten herritarrei, astelehenean. | MONDRABERRI

## ZALDIBAR

**PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| MARTXOAK 29, ZAPATUA | |
| **10:00** | Aldatz-Abokajarro |
| **11:00** | Lasagabaster-Betrayer |
| **12:00** | Iluntz-Fidel & Discipulos |
| MARTXOAK 30, DOMEKA | |
| **10:30** | Dribling-Jibaros |
| **11:30** | Sonografos-Ostantz |
| **12:30** | Haizea's Weah-Sport in. |

**SAILKAPENA**

| A MULTZOA | P | J |
|---|---|---|
| **1** Dribling | **7** | **0** |
| **2** Haizea's Weah | **5** | **0** |
| **3** Iluntz | **4** | **0** |
| **4** Fidel & Discipulos | **3** | **0** |
| **5** Sport in tus bragas | **2** | **0** |
| **6** Jibaros | **1** | **0** |

| B MULTZOA | P | J |
|---|---|---|
| **1** Aldatz | **7** | **0** |
| **2** Sonografos | **5** | **0** |
| **3** Lasagabaster | **4** | **0** |
| **4** Betrayer | **3** | **0** |
| **5** Ostantz | **2** | **0** |
| **6** Abokajarro | **1** | **0** |



ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

# Dribling taldea, Zaldibarko Kopako txapeldun

Dribling taldea da aurtengo Zaldibarko areto futbol txapelketako Kopako txapelduna, finalean Sonografos taldea 7-3 menderatu ostean. Atsedenaldira binako berdinketarekin heldu ziren, baina bigarren zatiaren hasieran aurretik jarri eta gero kontraeraso azkarrak aprobetxatu zituzten Dribling taldekoek finala irabazteko. Aste bukaera honetan ligako bigarren fasea hasiko dute, sei taldetako bi multzotan banatuta.

## Euskalitek arloko diploma eman dio Gazte Bulegoari

Martxoaren 21ean, Gazte Bulegoak arloko diploma jaso zuen Euskaliten eskutik, *5S*-en ezarpenagatik, Zamudion ospatutako Praktika Aurreratuen urteko topaketetan. *5S*-en aplikazioak erakundeen lehiakortasuna hobetzea du helburu; besteak beste, produktu eta zerbitzuen kalitatean, pertsonen motibazioan zein garapenean, eta malgutasunean hobetuta.

Diploma jasotzera joan ziren Gazte Bulegoko gazte informatzaile Dorleta Kortazar eta Gazteriako zinegotzi Kepa Urteaga. Gazte Bulegoan 2010ean ezarri zen *5S* delako metodologia.

## Nafarroako Erriberara irteera Abaroa elkartearen eskutik

Abaroa erretiratu elkarteak irteera antolatu du Nafarroako Erriberara apirilaren 11rako. *Pacharán la Navarra* bisitatuko dute, besteak beste, eta ardoa eta patxarana dastatzeko aukera izango dute bisitariek, baita doako ogitarteko bat jateko ere.

Izena emateko azken eguna apirilaren 3a da, eguena, 10:30ean. Prezioa 30 euro da eta txartela erosteko eguna, berriz, apirilaren 9a, eguaztena, 11:00etan. Hain zuzen, bi autobus antolatu dituzte txangorako eta herriko bestelako zaharren egoitzetan soberan dauden eserlekuak eskatu ahal izango dira.

# 'Apirilean musika' zikloak doinua jarriko dio herriari

## Kontzertuez gain, musikara gerturatzeko hainbat ikastaro ere antolatu dituzte

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Bergarako Musika Eskolak 30 urte betetzen dituen honetan, *Apirilean musika* zikloa hamargarren aldiz egingo da; horregatik, aurtengo egitaraua berezia izango da. Gaurtik apirilaren 11ra arte herria musikaz beteko da. Ohiko emanaldi, ikastaro eta elkartrukeez gain, *Benan eta Begigorri munstroa* ipuin musikatua izango da egitarauan berrikuntza nagusia.



*Benan eta Begigorri munstroa*-ren entsegua. | BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

**Egubakoitzetik aurrera**

Azken urteotan tradizio bilakatu den kantu ikasleen emanaldiarekin hasiko dute zikloa, baina, dudarik gabe, lehen aste bukaera honetako ekitaldi bereziena domeka arratsaldekoa izango da, 19:00etan *Benan eta Begigorri munstroa* ipuin musikatua taularatuko dute-eta. Udal Pilotalekuko agertokia jendez beteko da; izan ere, Musika Eskolako abesbatzako eta Bergarako Orfeoi Gazteko kideez gain, 5 eta 10 urte arteko 85 haurrek parte hartuko dute. Txikiek, abesteaz gain, aktore lanak ere egingo dituzte.

**Gozatu, erakutsi eta ikasi**

Ikuskizunez gainera, zer ikasi ere egongo da zikloaren barruan. Horretarako, hiru ikastaro egingo dituzte: hari-instrumentuen tailerra, gazte eta nerabeei zuzendutako txalapartara gerturatzeko saioa eta erritmoa lantzeko ikastaroa. Azken ikastaro hori edalontzien jolasaren bidez egingo da eta emaitza bideoan grabatuko dute.

Aurtengo elkartrukea Eibarko Musika Eskolarekin egingo dute, eta, Bergaratik kanpo, Bergarako Musika Eskolako ikasleek Deban eta Eskoriatzan emanaldi bana egingo dute; gainerako emanaldiak herriko hainbat txokotan izango dira.

Marije Ugalde: "Ziklo honekin denok gozatzea eta aldi berean zerbait gehiago erakustea eta ikastea espero dugu".

### ZIKLOAREN EGITARAU OSOA

**MARTXOAK 28**

**19:30** Kantu ikasleen emanaldia.

**MARTXOAK 29**

**11:00** Suzuki ikasleen emanaldia.

**11:30** *Organotak* kontzertua.

**MARTXOAK 30**

**19:00** *Benan eta Begigorri munstroa.*

**MARTXOAK 31**

**18:30** Biolontxelo ikasleen kontzertua.

**18:30** Ikasle helduen kontzertua.

**19:30** Orkestra Sinfonikoaren emanaldia.

**APIRILAK 1**

**17:45** *Arkuak martxan!*

**18:30** Instrumentu herrikoien kontzertua.

**18:30** Klarinete eta saxofoi ikasleen kontzertua.

**APIRILAK 2**

**18:00** *Basajaun eta mozolo.*

**18:30** Gitarra ikasleen emanaldia.

**18:30** Biolin eta biola ikasleen emanaldia.

**18:30** Tronpa ikasleen emanaldia.

**19:00** Piano ikasleen kontzertua.

**APIRILAK 3**

**18:00** *Musika kalera!*

**APIRILAK 4**

**17:30** Edalontzien jolasa.

**18:30** Debagoieneko musika eskolen kontzertua Eskoriatzan.

**18:30** Piano ikasleen kontzertua.

**APIRILAK 5**

Flauta jaialdia Oiartzunen.

**17:00** Txalaparta ikastaroa.

**APIRILAK 6**

Akordeoi topaketa Deban.

**APIRILAK 11**

**19:30** Akordeoiarekin jolasean.

## Udal Musika Bandak kontzertua egingo du domekan pilotalekuan

Udal Musika Bandak kontzertua egingo du domekan, hilaren 30ean, 12:30ean, Udal Pilotalekuan. Ohi bezala, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko duen kontzertuan bost obra egingo dituzte: Gonzalez Chirlaquek berak idatzitako *Gorla* martxa, *Euryante*, *La alegría de la huerta*, *The panthom of the opera* eta *It don´t mean a thing.*

## Bergarako eta Azpeitiko organo ikasleen saioa bihar

Bergarako eta Azpeitiko musika eskoletako organo ikasleek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 11:30ean. Hamar ikasle egingo dute emanaldia eta pieza bana joko dute. Bergarako ikasleen kasuan, Elena Lakak, Miren Azkaratek, Eugenio Etxebestek, Lorea Larrañagak, Leo Juaristik eta Pello Letek hartuko dute parte.

## Mor More eta Arrutiko Intxaurrak taldeak gaur gaztetxean

Mor More eta Arrutiko Intxaurrak zarauztarrek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, kartzela zaharrean, 23:00etan. Bi taldeek elkarrekin egingo dituzte zenbait kontzertu eta gaur gaztetxean egingo duten emanaldian disko berria aurkeztuko du Mor More taldeak. Zortzi abestiz osatutako *Izuak eta suak* izeneko lana, hain zuzen ere.

## Umeendako ipuinak gaur, egubakoitza, Udal Liburutegian

Dorleta Kortazar ipuin kontalariak *Zu eta ni* izenburuko emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Udal Liburutegian. Hain zuzen ere, emanaldi bikoitza egingo du: 18:00etan, 3 eta 5 urte arteko umeendako saioa egingo du eta 18:30ean, berriz, 5 urtetik gorakoendako. Bada, biak ala biak debalde izango dira.




ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

## LABEGARAIETA

| EMAITZAK | |
|---|---|
| T.C.C - Diego Valor. | 4-6 |
| T.C.C. - Beti Jai | 4-3 |
| Brunet - Minimou Taldie | 0-3 |
| Poteo Izarrak - Birgerias | 7-1 |
| Poteo Izarrak - Komando Piperrak | Jokatzeke |

| SAILKAPENA | | | |
|---|---|---|---|
| | A TALDEA | P | J |
| 1 | Poteo Izarrak | 3 | 1 |
| 2 | Minimou Taldie | 3 | 1 |
| 3 | Komando Piperrak | 0 | 0 |
| 4 | Birgerias | 0 | 0 |
| | B TALDEA | P | J |
| 1 | Diego Valor | 3 | 1 |
| 2 | T.C.C. | 3 | 2 |
| 3 | Irama Elgeta | 0 | 0 |
| 4 | Beti jai | 0 | 1 |

### Kopako partiduekin hasi dira dagoeneko

Liga amaituta, Kopako partiduei ekin diete Labegaraietako futbito mutilek. Aurreko astean abiatu zuten txapelketa, launako bi taldetan banatuta. Talde bakoitzetik bi talde onenak sailkatuko dira finalerdietarako.

### Asteburuan ez dute partidurik jokatuko

Hurrengo jardunaldia jokatu ahal izateko datorren asteburura itxaron beharko dute: gimnasia erritmika txapelketa dela, ordu barik geratu dira.

# Botikak egoki erabiltzeko akordioa sinatu du Udalak

Herriko sei farmaziatan botiken dosifikazio pertsonalizatua egingo dute

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Udalak eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoak etxez etxeko laguntza zerbitzuetan botikak hobeto erabiltzeko programa martxan jartzeko hitzarmena sinatu zuten astelehenean. Jaione Isazelaia alkateak eta Angel Garai Botikarien Elkargoko presidenteak sinatu zuten hitzarmena, herriko sei botikariren babesarekin. Izan ere, programa berri horrek, botikarien inplikazio handiagoa eskatuko du pazienteen asteroko dosiak zeintzuk diren jakin beharko dituztelako eta dosi horiek kudeatu egin beharko dituztelako.



Herriko botikariak eta elkargoko presidendeta alkatearekin. | JAGOBA DOMINGO

**Etxez etxeko gaixoentzat**

Etxez etxeko laguntza jasotzen duten gaixoentzat bideratutako programa da eta boluntarioa izango da parte hartzea.

Programa abian jartzearen arrazoi nagusia, botiken erabilera desegokia da, eta botikak egoki erabiltzea funtsezkoa da gaixoen bizi kalitatea bermatzeko. Azken batean, medikamentuak txarto erabiltzeak osasun-kalteak ekar ditzake, alde batetik, botiken eraginkortasuna murriztuta, eta bestetik, intoxikazioak edo epe ertain zein luzera begirako ondorio ezkorrak sortuz.

Hala, programaren bitartez, gaixoei euren botikak ezagutzen eta horiek nola erabili irakatsi nahi diete.

**Izena eman behar da**

Programa horretan parte hartzeko, gaixoek edo euren ordezkariek Udaleko Ongizate Zerbitzuan izena eman beharko dute, eta zerbitzua zein farmaziatan jaso nahi duten zehaztu beharko dute. Hori egin eta gero, parte-hartzea onetsita, farmazeutikoen txanda helduko da. Farmazeutikoak erabiltzailearen tratamendua aztertuko du sendagaiei dagozkion arazorik izan daitezkeen antzemateko, eta egokia dela ikusi ondoren, botikariak prestatutako aste osorako blisterra emango dio pazienteari; horrek medikamentuak egunen arabera eta dosien arabera antolatzen ditu. Sistema horri esker, pazienteei botiken dosifikazio pertsonalizatua egingo zaie, dosia modu egokian hartzeko argibideak emanez.



Asensio Esnaola. | I.G.

## Asensio Esnaola

Taila Eskolako maisua

# "Tailagintza ez da sekula menderatzen, egunero ari naiz ikasten"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bizitza erdi darama Asensio Esnaola (Deba, 1924) Bergaran; emazteak hona ekarri zuela onartu ostean, oso gustura bizi dela aitortu du. Domekan 90 urte beteko ditu egurra lantzea ogibide izan duen gizon jator horrek. Urteek garrantzirik izango ez balute bezala, indartsu dago, eta urteurren borobil hau birritan ospatuko du, zapatuan lagunekin eta domekan emaztearekin.

**Beti landu izan duzu egurra?**

Deban eskola bukatu eta gero, 14 urterekin hasi nintzen egurra lantzen. Etxe ondoan aroztegi bat zegoen, eta bertan lan txikiak egiten hasi nintzen tailagintza ikasten.

**Hemen ere lan bera izan duzu?**

Bai; orain, altzariak sinpleagoak dira, lisoagoak. Lehen, etxe guztietako altzarietan artisauek egindako erliebeak izaten zituzten. Kontuan izan behar da herri bakoitzean gutxienez aroztegi bat izaten zela. Orain, Taila Eskolan ibiltzen naiz buru-belarri.

**Eskola bat baino gehiago, lagunen arteko bilkura bat da.**

Halaxe da, bai; gehienak erretiratua gaude, eta lagun artean tarte on bat pasatzeko elkartzen gara. Nire ustez, afizio polita da.

**Zuk maisu lanak besterik ez duzu egiten?**

Laguntzeko nago, baina nire lanak ere egiten ditut. Ez daukat erretiratzeko asmorik.

**Zenbat denbora behar da tailagintza menderatzeko?**

Menderatzeko? Uf, ni oraindik ikasten ari naiz.

**Oraindik?**

Egurra elementu bizi bat da eta egunero ikasten da zerbait. Hala ere, eskua bizkor hartzen zaiola esango nuke.

**Ia 80 urtez egurra landu ostean, emazteari baino kasu handiagoa egin diozula esan daiteke.**

Kar, kar, kar. Ez, ez. Biei antzera, emazteak badaki taila afizioa izan aurretik nire bizimodua izan zela.

# Bergara Garbiak dio "Mahaiaz eta herri guztiaz burlatu" zela Gobernua

"Ez seriotasunik, ezta hitzik ere" ez dutela diote, eta poltsak, sailkatuta, lurrean lagatzen jarraituko dutela

M.B. | BERGARA

Bergara Garbiaren arabera, "alkatea arduratuta dago egunetik egunera arazo gehiago" dituelako "atez atekoa inposatzeko erabakia justifikatzeko". Plataformaren ustez, "Bilduk gobernatutako beste herri batzuek 5. edukiontziaren alde edo herriari galdetzearen alde egin dute; Andoain, Mutriku eta Debak, esaterako. Eta erabaki horiek agerian laga dute gure alkatea eta haren taldea". Hala, alkatea "justifika ezina justifikatzen saiatzen" ari dela gehitzen dute kaleratu duten prentsa oharrean, "gezurra baliatuz". Hondakinen Mahaiari erreferentzia eginez, hau diote: "Alkateak dio 5. edukiontzia nahi ez genuenez, atez atekoa inposatzea erabaki zutela. Nork sinistuko du hori? Eskaini zuena atez ateko gozoki pozoitsuaren trukua baino ez zen izan, beste bilgarri batez estalita. Hasieratik zuten erabakita zer egin behar zuten, baina ez zekiten nola saldu".

Bergara Garbiaren ustez, "gezur horren froga da ekain-uztail aldera, Hondakinen Mahaia negoziazio betean ari zela, Gobernu taldea lanean ari zela karkaben kontratazioan eta zintzilikario eta kuboak ezkutuan batzen. Are gehiago, Mahaiak hartutako konpromisoa zenean atez atekoarekin aurrera urratsik ez ematea, negoziazioak iraun bitartean. Eta galdetuta, erabakirik hartu barik zutela zin egiten ziguten. Mahaiaz zein herri guztiaz trufatu ziren. Eta egiten jarraitzen dute. Ez dute seriotasunik, ezta hitzik ere".

**"Kanpainaren fraudea"**

Plataformako kideek diote antzeko zerbait gertatzen ari dela "herrian kontsumitzea helburu duen *Bergaran bizi, Bergaran erosi* kanpainaren babesletzaren fraudearekin. Atez atekoarekin lotutako guztia Euskaditik kanpora esleitzeak argi lagatzen du guztia". Eta gehitzen dute: "Euren ekintzengatik ezagutuko dituzu. Gainerako guztia hitz hutsak dira. Guztiok gauza bera egingo bagenu, herriko denda eta enpresa guztiak itxita egongo lirateke".

Horrekin guztiarekin batera, berretsi egiten dute 5. edukiontziaren aldeko apustua eta "egoki sailkatua, poltsak lurrean lagatzen" jarraituko dutela ere gehitzen dute oharrean.

# Elizamendiko Andra Mari elizan bedeinkatuko dituzte umeak etzi

M.B. | BERGARA

Ospakizun bikoitza izango dute asteburuan Angiozarren. Batetik, Angiozarko Trikitixa Eskolak antolatuta, Udaberriko III. Jaialdia ospatuko dute gaur, 19:00etan hasita, elizan. Bertako artisten trikiti, piano, gitarra, organo, biolin, biolontxelo, akordeoi eta flauta emanaldiekin batera, ipuin kontaketa eta kantu saioa egongo dira.

Bestalde, Garikoitz Garitanok jaialdian bertan marraztutako lana zozketatuko dute amaieran. Jaialdia bukatu eta gero, Pagomendi elkartean jarraituko du ospakizunak.

**Bedeinkatzea Elizamendin**

Bestalde, Elizamendiko Andra Mariren jaia ospatuko dute Mainddaon domekan; 12:30ean meza izango da Elizamendiko ermitan eta amaieran, umeen eta haurdun daudenen ohiko bedeinkatzea egingo dute, semeari bularra ematen ari den Andra Mariren irudiaren babesean. Hain zuzen, urteetan ezin ezin da Elizamendin mezarik egin, baina auzotarrek txukuntze lan batzuk egin dituzte, eta ospakizuna berreskuratu nahi izan dute, meza eta bedeinkazioa bertan egindа. Erromeria eta luntxa ere egongo dira.

## Doako biodantza saio irekia egongo da Mariaren Lagundian

Astelehenean, hilaren 31n, doako biodantza saio irekia egongo da Mariaren Lagundia ikastolan. 18:30etik 20:30era eskainiko da saioa eta interesa duten guztiek ateak zabalik izango dituzte bertan parte hartzeko. Izena emateko zein informazio gehiagorako, deitu 626 66 12 92 telefono zenbakira (Mentxu).

## Librek antolatutako antzerkia gaur, ume zein nagusiendako

Bergarako Librek antolatuta, *Aberats gajoa* izeneko antzezlana ikusteko aukera egongo da gaur, egubakoitza, 19:00etan, Irala kalean –euria bada, plazako arkupeetan–. Green Anaien *Bizitzaren ura* eta *Aberatsa eta behartsua* ipuinetan oinarritutako lana da eta ume zein nagusiei zuzenduta dago.

# Enpresa berriendako eta ekintzaileendako lokal gehiago



Eguen goizean lau lokal berri zabaldu zituzten Zubillagako Olaburu enplegu zentroan. | MIREIA BIKUÑA

## Hamar bulego eta zazpi tailer daude egun Olaburun

**O.E. / M.B.** | OÑATI

Zubillagako Olaburu zentroan lau lokal berri zabaldu dituzte. Atzo, eguena, eguerdian egin zuten lokal horien irekiera ekitaldia. Hantxe egon ziren, besteak beste, Olaburun dagoeneko dauden 12 enpresetako hainbat lagun eta udal ordezkariak.

**Lau gehiago**

"Lau bulego berri hauekin aukera zabaldu gura diegu euren ideiak martxan jarri gura dituzten herritarrei", adierazi du Jesus Maria Ugartek, Udaleko Enplegu teknikariak.

Bulego horiek zabalduta, hamar modulu ditu egun Olaburu enplegu zentroak zerbitzuetara bideratuta eta beste zazpi, industria jardueretara. "Eskaera handia da. Itxaron zerrenda ere izan dugu bulego horiek erabiltzeko. Momentu honetan, esaterako, zerbitzuetara bideratuta dauden hamar bulegoetatik zazpi daude okupatuta. Industria arloko lanetarako erabiltzeko dauden tailerrak, berriz, zazpitik sei daude okupatuta, bakarra dago libre", azaldu du Ugartek.

Udal ordezkarien esanetan, Gobernuak autoenpleguaren alorrean egin duen apustuaren lekuko da eskari hori. Baita bulego berriak egokitzera bultzatu dituen arrazoi nagusienetako bat ere.

Horri lotuta, agintaldi honek arlo horretan egindako lana zenbakietara ekarri dituzte Gobernuko ordezkariek. Hala, diote aurreko agintaldi osoan 37 proiektu aztertu zituztela eta egungo agintaldian, oraingoz, 69 izan direla.

**Askotariko negozioak**

Enplegu teknikari Jesus Maria Ugartek azaldu duenez, era guztietako negozioak daude egun Olaburun: "Zerbitzuetako bulegoetan, esaterako, arkitektura lanak egiten dituen negozio bat dago; beste bateak kirol aholkularitza zerbitzua ematen dute; bideo edizioa egiten dute beste batean eta enpresendako aholkularitza zerbitzua emateko negoziorako erabiltzen dute beste bulego bat. Industriako ekoizpenak egiteko tailerretan, berriz, makinen muntaiak eta konponketak egiten dituzte batean; bizikleten inguruko formazioa eta diseinua beste batean eta etxetresna zaharrak hartu, konpondu eta berriz saltzeko moduan prestatzen dituzte beste batean". Horiez gain, Bidebarri enpresak ere baditu lokalak Olaburun.

Bulego eta tailer horien erabiltzaileei buruz, Ugartek adierazi du gehienak oñatiarrak direla. "Badago bailarakoa den beste bat ere, baina Oñatiko enpresa batendako lan asko egiten du, eta hori ere baloratzen dugu. Herrikoek ez ezik bailarakoek ere badute tokia hemen, betiere Oñatiri lotutako lana edo oñatiarrekin egiten badute".

**Baldintzak**

Bulego berrien egokitzapen lanek 85.000 euroko inbertsioa eragin diote Udalari, eta ekintzaileek edo enpresa berrietako sortzaileek erabiltzeko izango dira. Kontratua urtez urte berriztatuko da eta, gehienez, bost urte arte luzatu ahal izango da. Hirugarren urtetik aurrera, hori bai, luzapenak lokalen disponibilitatera baldintzatuta egongo dira. Udaletxeko Enplegu Bulegoan eska daiteke informazioa.

ESANAK

**"Eskaria handia da eta itxaron zerrenda ere izan dugu"**

JESUS M. UGARTE | ENPLEGU TEKNIKARIA

# San Martingo etxebizitzek ika-mika piztu dute Udaleko bi alderdien artean

## EAJk salatu du Gobernuak "arau-haustea" egin duela eta Bilduk erantzun dio San Martingo hitzarmenak "goitik behera" betetzen duela legea

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

San Martingo etxebizitzen inguruan Bilduk hartutako erabakiak "ez ditu betetzen" indarrean dauden babes ofizialeko etxebizitzen arauak, jeltzaleen esanetan. Hango babes ofizialeko etxebizitzekin kudeaketa "txarra" egin izana egotzi diote Bilduri, eta, ondorioz, "32 familiak dagokien salneurria baino %70 gehiago ordaindu beharko" dutela salatu dute. Idoiagaren esanetan, EAJk egindako proposamena "askoz sozialagoa" da eta oñatiarrendako "mesedegarriagoa eta justuagoa".

Jeltzaleek bidalitako prentsa oharrak dioenez, "San Martingo promozioari dagozkion arauetan babes ofizialeko portzentajea erabakitzeko kalkulu oinarria ez dagokio eraikigarri den azalerari, etxebizitza zenbakiari baizik". Hala, Idoiagak dioenez, "Bilduk onartutako proposamenaren arabera, hasierako planean aurreikusita zeudenak baino 49 etxebizitza gehiago eraikiko dira. Kasu horretan ezarri beharreko araudiaren arabera, 49 etxebizitza horien %65ek, hau da, 32 etxebizitzak, babes ofizialekoak behar dute izan, eta ez libreak".

Prezioei dagokienez, EAJren proposamena hau da: "Babes ofizialekoen batez besteko salneurria 129.352 euro lirateke eta gainontzekoena 219.899,59 euro (babes ofizialekoak x 1,7). Bilduren erabakiaren arabera, 132 etxebizitza batez beste 219.899 eurotan saldu ko dira".

**Gobernuaren erantzuna**

Udal Gobernuak prentsa ohar bidez gezurtatu egin ditu salaketa horiek, esanaz sustatzaileekin sinatutako hitzarmenak legea "goitik behera" betetzen duela.

Bilduk hauxe erantzun du: "Indarrean dauden Oñatiko arau ordezkoak 2006ko apirilaren 4an izan ziren onartuak eta, beraz, 2006ko irailaren 20an indarrean sartu zen legearen aurretik (2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legea, hain zuzen, Eusko Legebiltzarrak onartu zuena). San Martingo Plan Partziala 2006ko uztailaren 6ko Gipuzkoako Agintaritza Buletinean argitaratu zen (128 zenbakiduna). Esan bezala, Arau Ordezkoak eta Plan Partziala lege berriaren aurretikoak zirenez, azken hau ezin zitzaien aplikatu. Estandarra aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da eraikigarritasunaren gehikuntza bat bai aurreko legearekin (17/1994) eta baita berriarekin ere. Hitzarmenak ez du eraikigarritasuna gehitzen, baizik eta dagoen eraikigarritasunean ateratzen ditu etxebizitza gehiago, txikiagoak eta salneurri mugatukoak. Beraz, azaldu bezala, hitzarmenak aplikagarri zaion legea betetzen du goitik behera".

Prezioei dagokienez, Bilduren oharrak hau dio: "EAJ-PNVk aipatzen du beraien proposamena sozialagoa dela. Zer da proposamen sozialagoa? 32 babes ofizialekoak + 100 prezio librekoak (EAJren proposamena) edo 132ak prezio mugatukoak hitzartzea? Orain, hitzarmenari esker badakigu 132ak gehienez zenbatean salduko diren. EAJren proposamenarekin 100 etxebizitza horiek zein preziotakoak lirateke? Auskalo, merkatuaren araberakoak".

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

### Bazkide gehiago lortu gura ditu Txirrinkak eta Foruen plazan egongo dira bihar, zapatua

Txirrinkak, Oñatiko bizikleta zaleen elkarteak, bazkide gehiago lortu gura ditu, "pedalei eragiten jarraitzeko". Bihar, zapatua, Foruen plazan egongo dira, 10 euroren truke bazkide egiten direnei opari ikusgarriak banatzen. 2014rako prestatu dituzten irteera, hitzaldi eta bestelako ekitaldien berri ere emango dute. Kamisetak ere atera dituzte eta salgai egongo dira, 10 eurotan.

### Gure Esku Dago taldeak autobusa antolatu du bihar Bilbon egingo den ekitaldira joateko

Herriz herri egindako lana erakutsi eta ekainaren 8ko giza katerako azken txanpari ekite aldera, nazio mailako ekitaldia egingo du Gure Esku Dagok zapatuan. 17:30ean hasiko da ekitaldia, Casillan, eta bailarako autobusa 15:30ean irtengo da Oñatitik, postetxetik. Txartelak Ona eta Oñati tabernetan daude salgai. Sare sozialen bidez edo posta elektronikoz eman daiteke izena.

### 'Ocho apellidos vascos' filma hamabi aldiz eskainiko dute gaurtik, egubakoitza, eguaztenera bitartean

Emilio Martinez Lazarok zuzendutako *Ocho apellidos vascos* filmak sortu duen ikusminari erantzuteko, hamabi emanaldi prestatu dituzte. Egubakoitzetik (gaurtik) eguaztenera bi saio izango dira egunero: 19:30ean eta 22:30ean. Gainera, arratsaldeko emanaldirako sarrerak agortuz gero, ilaran zain geratu diren ikusleek gaueko emanaldirako sarrerak erosteko aukera izango dute.

### Apirilaren 5ean egingo den spinning maratoirako plaza gutxi batzuk gelditzen dira libre

Spinning maratoia egingo da kiroldegiko kantxa berdean apirilaren 5ean. 140 lagunendako tokia egongo da, eta plaza batzuk libre daude oraindik. Hiru ordu iraungo du; 40 minutuko lau saio egingo dituzte, bakoitza irakasle ezberdin batekin. Jatekoa eta edatekoa ere egongo da eta atsedenaldia egingo dute saiotik saiora. Apirilaren 2a da izena emateko azken eguna, Zubikoan.

# Gazteak elkartu egingo dira hausnartu eta ekiteko

Gazte Topaketak egingo dituzte gaur hasi eta domekara bitartean

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Elkartu, hausnartu eta ekin* leloa ikusi dugu herrian, han eta hemen, azken hilabeteotan. Gazteek egindako deia izan da aste bukaeran egingo duten Gazte Topaketak iragartzeko eta girotzeko. Hitzordua gaur, egubakoitza, dute udaletxe zaharrean (18:00). "Lo-zakua, zerria edo estera eta ideiaz betetako motxila aldean hartu, lotsak alde batera utzi eta herriko gazte guztiei egin diegu dei", diote.

**Gazteei elkartzeko deia**

Aretxabaletako gazte mugimendua "indartzeko" beharra ikusi zuen gazte talde batek aspaldi, eta ideia hura, orain ekitaldi bihurtuko dute. Poliki-poliki eman dute horren berri: *elkartu, hausnartu eta ekin* leloarekin kaleak bete; Santa Ageda neska-mutilen laguntzarekin berba horiek plazara, jendaurrera, eraman; Aratusteetan, Gazte Topaketak aurkeztu; eta gazteen egungo egoeraz jabetzeko pare bat parodia egin: etxebizitzaren egoera salatzeko eta Aretxabaletan bizi eta lan egin gura dutela aldarrikatzeko.

"Buru belarri gabiltza lanean aste bukaera eraginkorra izan dadin, baina argi daukagu, jendearen laguntza behar izango dugula benetan eraginkorra izan dadin eta helburuak lortu", diote antolatzaileek, eta gaineratu: "Izan ere, Gazte Topaketen helburu nagusiena, gazteon problematika identifikatu eta horiei alternatiba komunak proposatzea izateaz gain, Aretxabaletako gazteon arteko harremanak sendotzea da, adina alde batera utzita eta ahal den anitzena izanda". Hori horrela, herriko gazte guztiei egin diete dei gaur udaletxe zaharrean elkartzeko: "Gazteei bertara hurbiltzeko gogoa eta konpromisoa eskatzen diegu, harremanak sendotu eta ideia eta alternatiba asko atera daitezkeelako". Orduan jakinaraziko diete, gainera, non izango den Gazte Topaketa hori.

Aste bukaera "borobila" eraikiko dutela guztien artean jakinarazi dute, eta aurrera begira lanerako gogotsu agertu dira: "Prozesu berri honen jaiotzan proposamenak bota eta partaide izan gaitezen nahi dugu, Aretxabaletako gazte mugimendua aktibatzeko".

## Umeekin lan egingo duten lagunendako ikastaroa

**M.A.** | ARETXABALETA

Umeekin eta gazteekin lan egiten duten eta etorkizunean lan egin gura duten pertsonei zuzendutako hainbat ikastaro egingo ditu Udalak. Apirilean, esaterako, euskararen erreferentzialtasuna izango dute aztergai. Bi saio izango dira, zapatuetan, apirilaren 5ean eta 12an (09:00-13:00). Saio horiek debalde dira eta kopurua mugatua izango da. Horregatik izena aldez aurretik eman beharra dago Gazteria edo Euskara zerbitzuetara deituta (943 71 18 62) edo idatzita: *gazteria@aretxabaleta.net* edo *euskara@aretxabaleta.net*. Izena emateko azken eguna apirilaren 4a. Formazioa jasoa izatea eskatuko du Udalak haur eta gazteei zuzendutako ekimenetan parte hartzeko.

# Gorriñaren martxa egingo dute maiatzaren 10ean

**M.A.** | ARETXABALETA

Murrukixo mendizale elkarteak antolatuta Gorriñaren martxa egingo dute maiatzaren 10ean. Ibilbidea izango da Durana kalean Murrukixok duen egoitzatik irten, Aizkorriraino joan eta buelta Durana kalera. Izena emateko epea zabalik dago: *50mendijarraian@gmail.com* helbidean edo Murrukixon bertan, martitzenetan.

**Taldekako martxa**

1932ko urrian egin zuen Gorriñak martxa hori. 7 ordu baino gutxiago beharko zituela egin zuen apustua orduan; baita irabazi ere. Ondoren beste hainbat aldiz egin dute ibilaldia haren denbora hobetzeko, eta aurten berriro animatu dira Murrukixoko hainbat kide. Antolatzaileek jakinarazi dute ez dela lasterketa izango taldekako martxa baizik, eta asmoa da hiru talde osatzea. Hala ere, banaka eman behar da izena (ez taldeka) eta norberak aukeratuko du gero bost orduko, sei orduko edo zazpi orduko taldean joan gura duen. Bestalde, neskak ere animatzen hasi direla jakinarazi dute, eta horien taldea ere osatuko delakoan daude.

**Gorriñaren denborak**

Gorriñak egindako martxa garai hartako lekukoek jaso zuten, eta haien arabera 06:00etan atera zen Aretxabaletatik kirolaria. Arantzazura 07:25ean iritsi zen eta Urbiara 08:19an. Handik ordubetera Aizkorrin zegoen (09:20) eta zortzi minutuko atsedenaldia egin ondoren bueltako bideari ekin zion. Arantzazura 10:55ean iritsi zen eta beste 10 minutu hartu zituen mokadutxoa jateko. Hala, Aretxabaletan 12:45ean sartu zen, zazpi ordu baino gutxiagoan egingo zuela esandakoa betez.



Gorriña 1932. urtean. | ARGAZKI ARTXIBOA

## Gimnasia erritmikokoak lanean



NURIA FDZ. DE ARROIABE

Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska taldetxoa Oiartzunen izan da gimnasia erritmikoko kimu kategoriako Udaberri Txapelketaren lehen fasean. Esther Barcenilla entrenatzailearen agindueta ra lan egin duten neskak dira: Elene Diaz de Gereñu, Ane Alonso, Maider Hernandez, Nora Ugalde eta Eki Balantzategi. Gustura jardun dute eta pozik itzuli dira.

## Literatura Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan eta apirilaren 3an Irakur Maratoia

**M.A.** | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 31, hasi eta apirilaren 3a bitartean Literatura Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan. Euskal ilustratzaileak dituzte ardatz aurten eta horien lanak ezagututa hainbat ekintza egingo dituzte. Astelehenean, gainera, Yolanda Arrieta idazlea izango dute bisitan eta 1. eta 5. maila arteko ikasleek harekin solasalditxoa izango dute.

Apirilaren 3an, Literatura Astea bukatzeko, 23. Irakur Maratoia izango da. Ekitaldira herritar guztiak gonbidatu dituzte.

## UDAko karatekak bikain Gasteizen

**M.A.** | ARETXABALETA

Estatuko karate txapelketarako puntuagarria den txapelketa jokatu zuten zapatuan, Gasteizen, Aretxabaleta Kirol Elkarteko Eneko Calvo eta Alex Benitez karatekek. Kumite modalitatean jardun zuten biek, eta lehenengo postua eskuratu zuen Calvok hainbat borroka ezin hobeak jokatu eta gero. Benitez, ostera, hirugarren postuan geratu zen lau borrokaldiren ondoren.

Odilo Vazquez entrenatzaileak biak zoriondu gura ditu "aparteko lana" egin dutelako denboraldi guztian: "Orain Euskadiko selekzionatzailearen deiaren zain gaude", argitu du. Izan ere, deituz gero apirilaren 13an eta 14an Oviedon jokatuko den Estatuko txapelketan izango dira.

### 'Ocho apellidos vascos' filma emango dute apirilean gurean

Aretxabaletan ere emango dute *Ocho apellidos vascos* film arrakastatsua. Apirileko lehenengo bi asteburuetan izango da: apirilaren 4tik 7ra bitartean eta 11tik 14ra bitartean, guztira 12 emanaldi.

Aste bukaera honetan, ostera, *El lobo de Wall Street* izango dute helduek eta umeek, *Futbolin*.

### Hondakinen informazio bulegoak telefono zenbaki berria du

Hondakinen informazio bulegoko telefono zenbakia aldatu dute. Hona berria: 943 25 06 82. Eta helbide elektronikoa: *hondakinak.aretxabaleta@debagoiena.com*. Ordutegia, ostera, honakoa da: astelehenetik egubakoitzera goizetan (10:00-14:00) eta astelehen eta eguaztenetan arratsaldeetan ere bai (15:00-19:00).

## Peoi lanak egingo dituzten hiru langabe kontratatzeko dei egin du Udalak

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak, Enplegu Planaren barruan eta Foru Aldunditik jasotako diru laguntzari esker, peoi lanak egiteko hiru langabe kontratatuko ditu.

Kontratazioa bost hilabeterako izango da, egun osoz. Ezinbesteko baldintzak dira: langabea izatea, Aretxabaletan erroldatua eta Lanbiden langabe gisa izena emanda egotea. Hautaketa lehiaketa bidez egingo dute, non Aldunditik irizpide batzuk zehazten diren eta Udalak irizpide horiek puntuatzen dituen. Puntu gehien lortzen dituzten lehenengo hirurak kontratatuko dira, betiere betetzen dituzten irizpideak justifikatuta.

Eskaera udaletxeko Enplegu Sailean egingo da; azken eguna apirilaren 10a (12:00etarako).

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


Aiherra Zurekin taldeko zerrendagaietako batzuk. | AIHERRA ZUREKIN

# Arño Gastanbide izango da Aiherrako alkate berria

**I.G.** | ANTZUOLA

Domekan Frantzian udal hauteskundeen lehen itzulia izan zen, eta Aiherra Zurekin zerrendak Udaleko hamabost aulkietatik hamar eskuratu ditu.

Hauteskunde Legea aldatu zenetik, Aiherran eta halako udaletan proportzionaltasun arauak aldatu egin dira. Abertzaleek Udalean sartuko zirela uste zen arren, ez zuten alkatetza espero. "22 urtez Frantziako eskuineko alderdiak alkatetza izan eta gero, aldaketa historikoa da", azaldu du Patxi Olabarriak, Antzuolako Kultura zinegotzi ohiak. Gastanbide, gainera, Antzuolan behin baino gehiagotan egona da.

**Harreman estuagoa**

Emaitza Antzuolan ere igarriko da. "Gastanbidek Antzuolarekin harremanak sendotzeko plana garatuko duela dakar programan eta hori bi herrientzat albiste ona da", dio Olabarriak. "Hori guztia, gainera, bi herrien arteko senidetzearen 30. urteurrenean gertatu da", zehaztu du zinegotzi ohiak.

# Urteko batzar orokorretik "gaztetuta" irten da Arrola

## Herritarren alboan segitzeko asmoz, orain arteko irteerei eutsiko diete

**IMANOL GALLEGO** | ANTZUOLA

Aurreko aste bukaeran Olaran jauregian egin zuen Arrola Mendizale Elkarteak urteko batzarra, eta, zuzendaritzako kide berriak aukeratzeaz gain, joan den urteari errepasoa egin eta aurten egingo dituzten irteera eta ekimenak zehaztu zituzten.


Arrolako kideek Aretxabaletara egindako irteera. | ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

**Klasikoei eutsi**

Dudarik gabe, Arrola elkartearen arrakastaren sekretua harrobia da. "Hemen antolatzen diren ekintza guztiak herrira begira egiten dira", azaldu du Arrola Mendizale Elkarteko kide Jabier Etxanizek. Horregatik, urtero gazteei zuzenduta egiten diren bi edo hiru irteerak mantenduko dituzte; lan horretan, gainera, Pausoka elkartearen laguntza izango dute. "Martxoan Aretxabaletara joan ginen, eta gure inguruan federazioak antolatzen dituen topaketetara joaten jarraitzeko asmoa dugu", dio Etxanizek.

Hala ere, irteera propioak ere egingo dituzte. Herriko jaien aurretik, uztailean, Pirinioetara joango dira eta, oraindik data zehaztu gabe duten arren, Lapurdiko kostaldera joateko asmoa ere badute. Kanpora egiten dituzten irteerak herriko txokoak ezagutzeko egiten dituztenekin tartekatuko dituzte.

**Zuzendaritza, "gaztetuta"**

Elkartearen norabidea zehazteaz gainera, batzarrak zuzendaritzako lau kide aldatzeko ere balio izan zuen. Kide berriek federatuak izan behar dute, eta, zoriz aukeratu arren, laurak gazteak dira: Aitzol Iturbe, Maialen Guridi, Jon Iturbe eta Leire Collado. Etxanizi kide berrien inguruan galdetuta, hark argi dauka: "Zorte handia izan dugu, laurak oso potenteak dira, eta proposamen, ekintza eta ideia berriak ekarriko dituzte elkartera".

Hala ere, aldaketa horiek ez dira lehen urte honetan igarriko. "Lehen urtea karguari egokitzeko izan ohi da, euren eskua hurrengo urtetik aurrera ikusiko da", aipatu du Etxanizek.

### Mendiko bizikletari bultzada ematea

Aurrenekoz 2013an ekin zioten mendi bizikleta sustatzeari eta aurten bide beretik jarraitzeko asmoa dute. "Aurreko urtean bi irteera egin genituen eta aurten horiek mantentzeko egingo dugu lan", azaldu du Arrolako kide batek.

Horretarako, datak zehazten hasi dira; Finalista Egunean, adibidez, mendiko bizikletarekin irteera egin dute.

# 'Harira' saioan izango da alkatea martitzenean

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Ima Beristain Antzuolako alkatea Goiena telebistan izango da apirilaren 1ean, martitzenean. Herrian pil-pilean dauden kontuen berri emango du Beristainek, hala nola hiri hondakinak, AHTa, bidegorria, autobusa herritik ateratzeko bigarren fasea eta aurtengo inbertsioak.

Alkateaz gain, oposizioko indar nagusiak ere ahotsa izango du, eta, Maria Eugenia Arrizabalagak, EAJren bozeramaileak, Bilduren gobernu jardueraren balorazioa egingo du.

Horretaz gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera: posta elektronikoa erabilita *(harira@goiena.com)*, Twitter bidez *(#harira)*, Whatsapp edota Telegram aplikazioak erabilita (idatzizko zein ahozko mezuak) edota erantzungailu automatikoan ahozko mezua lagata. Azken hiru aukeretarako, telefono zenbaki bakarra erabili beharko da: 688 69 00 17.

Saioa apirilaren 1ean 22:00etan izango da.


Ima Beristain, Antzuolako alkatea, orain dela bi urte, *Harira* saioan. | GOIENA

# Independentzia ospatuko dute festa giroan

Biharko dena prest dute antzuolarrek. Egun osoko festa egingo dute: tortilla txapelketa, triki-poteoa, bazkaria, trikitxaranga eta kontzertuak. Hain zuzen, Eikasia eta Aihertarrak taldeen zuzenekoaz gozatzeko aukera egongo da, 23:00etan.



GOIENA

## OHARRAK

**AUZOLANERAKO DEIA**

Auzolanean Uzarragako iturria konpontzeko dei egin nahi diete herritarrei. Apirilaren 5ean (zapatua), goizeko bederatzietan, Herriko Plazan.

**AUTOBUS ZERBITZUA**

Aldundiak autobusen zerbitzua hobetzeko parte-hartze prozesurako bilera deitu du. Apirilaren 2an, Olaranen, 18:30ean egingo da. Antzuolak garraio publikoaren beharra duela ikusita, Udalak herritarren partehartzea garrantzitsua dela azpimarratu gura du. Informazioa, *www.garraioahobetzen.net* helbidean.

**MANIFESTAZIO DEIALDIA**

Udalak Abortuaren Legearen kontrako Iruñeko manifestaziora joateko autobusa jarriko du. Izena emateko azken eguna apirilaren 2a da, udaletxean.

# EZKONTZAK 2014



▸ Menuak ▸ Bitxiak ▸ Estetika ▸ Argazkiak ▸ Garraioa ▸ Lentzeria ▸ Opariak ▸ Eztei-bidaia ▸ Antzinako ezkontzak

ANE IDIGORAS - BEGIRA

Sikol
lentzeria
Tel.: 943 79 89 32
Olarte kalea 7 - ARRASATE
Bila gaitzazu
Facebooken





# Jatetxeen eskaintza, ezkontza egunerako

## Debagoieneko bost jatetxeren eskaintza bereziak, ezkongaien egun handirako

Ezkongaiendako berezibiko garrantzia izan ohi du ezkontza eguneko jatetxearen aukeraketak. Ezkontzeko aukeratutako tokiak bezainbeste edo gehiago; izan ere, gonbidatuak gustura geldi daitezen pieza klabea da jatetxea. Jatetxea bera eta menua. Ezkontideek tentu handiz erabakitzen dituzte bai jatetxea eta baita menua ere. Normalean, lagun askorendako izan ohi den otordua izanik, ezkongaiek ez dute arriskatzeko ohitura handirik.

**Eskariaren arabera egiten dituzte menuak jatetxeek**

Menua aukeratzeko, dastatze menuak izaten dituzte jatetxeek. Hor aukeratuko dute, egun handirako otordua.

### LAGUNARTEKOAK, GEHIAGO

Krisiak izan du eragina ezkontzetan ere. Bereziki igartzen da hori, gonbidatuen kopuruari begiratuta. Orain gehiago egiten dira lagunarteko edo familiarteko ezkontzak. Horrek, nola ez, eragina izan du jatetxeetan ere. Horiek, baina, ondo jakin dute garai berrietara egokitzen. Bezero bakoitzaren eskariaren araberako menuak prestatzen baitituzte.

Jarraian dituzue Debagoieneko bost jatetxek proposatutako bost aukera. Egun handirako prestatutako menu goxo eta bereziak. Aukera zabala, edonoren nahia asebetetzeko modukoak.




Gure Ametsa jatetxeko Gorka Bolinaga sukaldaria lupiarekin.

## Esklusibotasun osoa ezkontza egunean

Gatzagainen dagoen Gure Ametsa jatetxeak esklusibotasun osoa eskaintzen die ezkonberriei, egunean ezkontza bakarra zerbitzatzen baitute. Hala, gura duten ordura arte egon daitezke jatetxean.

**MENUA**

- Xanpain koktela aperitiboekin.
- Entsalada berezia ahateki eta foie birutekin.
- Mariskoa plantxan edo labean.
- Bakailao xaflak saltsa bikoitzarekin hostopilaren gainean.
- Lupia labean patatekin.
- Sorbetea.
- Antxumea edo solomilloa plantxan.
- Postrea.

## Mendeetako historiaren zaporea

Mende askoko historia gordetzen dute Oñatiko Torreauzoko Etxe-Aundi hotel jatetxeko paretek. XIII. mendeko etxea, toki paregabea da ezkontzetarako.

**MENUA**

- Urdaiazpiko eta solomo iberikoak.
- Etxeko ahate gibel terrina sagar karamelatu eta piku gozokiarekin.
- Itsas lur entsalada epela.
- Bieira onddoz eta langostinoz beteta.
- Legatza txangurroz beteta, marisko saltsarekin.
- Mandarina sorbetea.
- Solomilloa plantxan foiez eta mahats saltsaz.
- Ezkontza tarta jogurt izozki eta mugurdi saltsaz.



Etxe-Aundi jatetxeko Eloy Iartza solomillo platera prestatu ostean.

**Leintz** GARRAIOAK, S.L.

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,
**txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.**

**LEINTZ GARRAIOAK** S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

**Tel.:** 943 71 27 07 / **Faxa:** 943 79 14 19
**Posta-e:** leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com




Guztiz Eder

Kale Barria 29, behea
(Orbea etxea, parke aldetik)
20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

**AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK:**
- Aurpegi garbiketa sakona.
- Aurpegiko orbanentzako tratamendua.

**GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK:**
- Gorputz osoko peelinga eta hidratazioa
- Estalkiak eta masajea (algekin, sagarrarekin, txokolatearekin…)
- Tratamendua Termason makinarekin hainbat gai lantzeko: zelulitisa, gogorketa, umeak jaio ondorengorako…).
- Drelimpur bereziak: sistema immunologikoa indartu eta desintoxikatzen du.
- Berezia: harrien bidezko masajea.
- Eskuz egindako drainatze linfatikoa.





Zelai Zabal jatetxeko Alberto Elortza etxean egindako foie grasarekin.

## 100 gonbidatutik gora izanez gero, DJ zerbitzua opari

Arantzazuko Santutegitik gertu, sekulako natura ingurunean dago Zelai Zabal jatetxea. Ospakizunetarako jangela ederra dauka, eta, 100 gonbidatutik gorako ezkontzetan, DJa jatetxeak berak ipintzen du.

**MENUA**

- ▶ Cava koktela kroketekin.
- ▶ Etxeko foie gras terrina melokotoi konfitura eta mahaspasa ogiarekin.
- ▶ Sasoiko entsalada.
- ▶ Mango gutizia bakailao brandadarekin.
- ▶ Mero errea sasoiko barazki eta berakatz harearekin.
- ▶ Mandarina sorbetea.
- ▶ Txahal masail erregosia iberiar erara patata kremarekin.
- ▶ Torrada karamelizatua jogurt izozkiarekin.

## Historia handiko gelan lo egiteko aukera aparta

XIII. mendeko eraikina da Oñatiko Zumeltzegi dorrea. Jantokian 50 lagundendako tokia du eta ezkonberriendako eskaintza bat ere bai: historia handiko gelan, gaua eta gosaria doan.

**MENUA**

- ▶ Urdaiazpiko iberikoa.
- ▶ Foie mi-cuita sagar karamelizatu eta fruitu gorridun gailetarekin.
- ▶ Langostinoak plantxan.
- ▶ Legatza donostiar erara.
- ▶ Limoi sorbetea.
- ▶ Solomilloa plantxan panadera erako patatekin eta pikillo piperrekin.
- ▶ Sagar banda kremarekin.
- ▶ Txokolate eta aparrezko mugurdi browniea.



Sylvain Pernet (Zumeltzegi), donostiar erara gertatutako zapoarekin.



Lasa jatetxeko Koldo Lasa, gisatutako txerrikumearekin.

## Jauregi dotorean, aukera zabala

Lasa jatetxea Bergarako Ozaeta auzoan dago. Jauregi dotore horretan, 250 lagunek jateko moduko tokia dute; gustua eta luxua eskura, ospakizunetarako aproposa.

**MENUA**

- ▶ Ardo apartsu koktela gazi-gozo beroarekin.
- ▶ Etxean egindako opiltxoak aukeran.
- ▶ Abakando entsalada.
- ▶ Almejak plantxan olio errearekin.
- ▶ Onddoak berroekin papillotean.
- ▶ Sagardo izotz sorbetea.
- ▶ Itsas-zapoa panadera erako patatekin.
- ▶ Txuleta errea goarnizioarekin.
- ▶ Eztei opil-gozo sorta.
- ▶ Askotariko izozkiak karameluzko tulipan.




**OPARITU EMOZIOAK**



Tel.: 663 764 511

www.cestasyregalosadomicilio.com







**Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea**

Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Loretegiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

CALIDAD TURÍSTICA

*leku eta egun ahaztezinak*

Etxe-Aundi

Hotela · Jatetxea

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com

2014-2015ean ezkontzen direnen artean Kanariar Uharteetarako bidaia zozketatuko dugu.



Aliantzak, ezkontzetako ezinbesteko bitxi.



Harri bolkanikoekin egindako masajeak, erlaxagarriak.

# Inoiz ez ahazteko

**Ezkontza eguna beti gogoan izan gura baduzu, hemen hainbat proposamen**

Ezkontza egunerako prestaketa lanek buruhauste dezente eman ohi diete ezkongaiei. Asko dira pentsatu eta antolatu beharrekoak eta egun horretan dena bikain ateratzea gura izaten dute bikoteek: garaiz antolatzen hastea da gakoa, baina hori posible ez bada, Debagoienean dauden enpresa, komertzio eta bestelako zerbitzuek lagunduko dute ezkontza egunerako dena prest izaten. Hona hemen egun horri begira kontratatzen diren hainbat zerbitzuren gainekoak: besteak beste, bitxiak, edertze tratamenduak, argazkilaria eta garraioak. Askotariko aukerak eskaintzen dituzte horiek; nork bere beharren araberakoak eta poltsiko guztietara egokituak.

BITXIAK

## Urre zuria, aliantzetan material erabiliena

Bitxiak ezinbesteko elementu dira ezkontzetan, eta, horren barruan, aliantzak, bereziki. "Betiko gelditzen den oroigarri bakarrenetakoa da, beste guztia galdu egiten da", dio Arrasateko Zubiaga bitxi-dendako Elena Fernandezek. Hori horrela, ezkongaiek bereziki zaintzen duten bitxietako bat da.

**Urre zuria erabiliena**

Horia barik, kolore zuria da aliantzetan erabiliena. "Konbinatuak ere saltzen dira, urre zuria eta horia bateratzen dituztenak, hain zuzen ere", dio Fernandezek. Bada, eskaintza zabala eta goi mailakoa daukate Zubiaga bitxi-dendan.

**Zilarra ere bai**

Krisiaren eraginagatik-edo, geroz eta aurrekontu txikiagoa eskaintzen zaie aliantzei. "Zilarrezkoak eta altzairuzkoak ere saltzen ditugu", dio Elena Fernandezek."Dena den, asko sufritzen duten materialak dira. Urteen poderioz asko galtzen dute eta zatartu egiten dira", gaineratu du.

**Emaztegaia, apal**

Aliantzez gain, ezkongaiendako bestelako bitxiak ere eskaintzen dituzte Zubiagan. Hala ere, horiek ez dira oso erabiliak. "Emaztegaia ez da nabarmen gelditu behar; justu kontrakoa", dio Fernandezek. Eta gaineratu: "Asko jota, belarritakoak eskaintzen dizkiegu".

**Ezkondu aurreko eraztuna**

Elena Fernandezek dio ezkondu aurretik oparitzen den eraztuna sustatu beharko litzatekeela: "Oso opari polita da eta geroz eta gutxiago egiten dena".

ESTETIKA

## Fisikoki eta psikologikoki eder egoteko tratamenduak

Edertze tratamenduekin gure burua zaintzea ezinbestekoa da ezkontza egunean bikain egon gaitezen. "Egun horretan fisikoki eta psikologikoki aparteko egoteko era guztietako tratamenduak eskaintzen ditugu", dio Oñatiko Guztiz Eder estetika zentroko Arantzazu Txintxurretak. Egun horren prestaketa lanek eragiten duten estresa kentzeko masaje erlaxagarriak gomendatzen ditu.

**Masajea, erlaxatzeko onena**

Harri bolkanikoekin egindako masajeak gomendatzen ditu Txintxurretak: "Azkenengo astean egitea gomendatzen diet ezkongaiei, eta jendeak egiten du. Estresa kentzeko modu egokia da".

ZELAI ZABAL Restaurant

• Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
• 180 gonbidaturendako jangela.



Zuen **ezkontza** gurean eginda, **DJ**aren emanaldia **doan**!




Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com

-Ezkontzak
-Estudioko argazkiak
-Book-ak
-Erretoke digitalak
-Hofmann
-Argazkien anpliazioak ordu batean (120x60 cm arte)

Begira argazkilaritza

www.fotobegira.com
Ilargi plaza 1, Aretxabaleta
tel.: 943 53 49 45 637 26 26 86



Ezkontzatan erabiltzen duten 55 plazako autobusa.


Ezkongaiak, Anoetako futbol zelaian, Begirako Ane Idigorasek ateratako argazkian.

**Garbiketa eta hidratazioa**
Azala, eskuak, kolorea... Asko dira ezkongaiek ezkontza egunean apain egoteko zaintzen dituzten elementuak. "Bereziki, emakumeak etortzen dira; gizonezkoak, berriz, non lan egiten duten...", dio Guztiz Ederreko arduradunak. Azalaren garbiketa eta hidratazioa dira ezinbestekoak. "Hilabete lehenago has daiteke tratamenduok egiten, baina azkenengo astean eginda ere nahikoa da", dio Txintxurretak.

**Eskuak eta oinak txukun**
Txintxurretak eskuak eta oinak zaintzearen garrantzia azpimarratu du. "Manikura frantsesa oso klasikoa eta polita da. Askok egiten dute. Oinak zaintzea ere aholkatzen dut nik. Oso garrantzitsua da".

**Solariuma, beherantz**
Ezkongaiek ez dute normalean beltzaran egon gura izaten. "Saio bat edo bi har dezakete, baina ez gehiago. Nik neuk ere ez dut gomendatzen", dio Txintxurretak.

GARRAIOA
## Segurtasuna garantizatzeko hainbat alternatiba

Ezkontza batera gonbidatzen gaituztenean, han egingo dugun parranda da burura lehenengo datorkigun gauzetako bat. Izan ere, ospakizun egun ederra izaten da bi pertsonaren arteko ezkontza egun hori. Noski, hori bideragarri egiteko ezinbesteko bilakatzen da ezkonduko diren horiek gonbidatuei garraio zerbitzua eskaintzea. Izan ere, ezkontza lekua, jatetxea eta gaueko parranda tokia ez dira elkarren artean gertu egoten. Bada, zerbitzu hori eskaintzen du Leintz Garraioak enpresak. Honela dio enpresako Lydia San Martinek: "Autobus zerbitzua oso aproposa da giro jatorraz disfrutatu ahal izateko, segurtasuna ezinbestekoa da–eta". Beste onura batzuk ere azpimarratu ditu: "Autobusean joanda, jendeak elkarrekin berba egiteko aukera izaten du; jendea gerturatzeko balio du".

**Bezeroaren esanetara**
Leintz Garraioak enpresak 55 plazako bi autobus ditu. "55ekoak erabiltzen ditugu ezkontzetarako", dio San Martinek. Desplazamenduak, berriz, bezeroak eskatutakoaren araberakoak dira: "Euskal Herri osoan ibiltzen gara. Debagoienean bai, eta baita Donostia edo Bilbo aldean ere. Eta ez dago arazorik ezkontza lekuaren eta jatetxearen artean distantzia handia badago".

Autobus zerbitzua kontratatzeko orduan, baina, egon dira aldaketak. "Lehen, denerako erabiltzen zen autobusa eta orain, ezkontzen diren tokitik jatetxera eta jatetxetik etxera joateko erabiltzen da zerbitzua", esan du San Martinek.

ARGAZKIAK
## Poltsiko eta gustu guztietara egokitutako argazkiak

Ezkontza eguna argazkitan jasotzen dute ezkongaiek. "Oroigarri polita da eta era batera edo bestera egin egiten dute. Bizi osorako gelditzen da", dio Ane Idigorasek. Aretxabaletako Begira argazki-dendakoa da hura eta dio poltsiko guztietarako eskaintzak egiten dituela: "595 eta 1.800 euro arteko albumak eskaintzen ditugu".

**Argazki modernoak**
Idigorasen esanetan, argazkiak dagoeneko ez dira inprimatzen: albumak digitalak dira gaur egun. Argazki motari dagokionez, berriz, "bezeroaren nahiaren araberakoak" egiten dituzte: "Egin ditzakegu argazki klasikoak edo modernoak", dio. Ohikoena, baina, modernoak egitea da. "Jendeak ez du gura izaten betiko argazki estatikoa. Gustatzen zaie argazkiak mugimenduan egitea, posatzen ibili barik", dio Idigorasek. Gaineratu du berak argazki mota hori aholkatuko lukeela, zalantza barik.

Argazkiak egiteko erabiltzen diren tokien gainean galdetuta erantzun du "leku arraroak" direla ohikoenak: "Garai baten erabiltzen ziren eliza eta ermitak barik, bestelakoak erabiltzen dira; esate baterako, hondartzak, etxe abandonatuak, baserri zaharrak...".

**Gomendagarria egitea**
Azkenaldian zabaldu den joera da argazkiak egitea gustatzen zaion lagun edo familiarteko bati enkargatzea lan hori. Horren gainean hauxe dio: "Gomendatzen dugu argazkilari profesional bat hartzea. Asko etorri zaizkigu gero damututa, egin ez izanagatik".

HOTEL *** Torre Zumeltzegi

Torre Zumeltzegi 11
20560 Oñati
Tel.: 943 54 00 00
www.hoteltorrezumeltzegi.com

50 pertsonarentzako tokia. 30 pertsonatik gora izanda, kristaldun jantokiaren esklusibotasuna.
•
Terraza esklusiboa kanpoko sofekin eta bailarako bista ikusgarriekin.
•
Doako parking pribatua.
•
Historia handiko gelan gaua eta gosaria doan ezkonberrientzat.
•
Ezkontzetarako menuak 45 eurotik aurrera.



# Lentzeria eta opari bereziak

## Ezkontza soinekoarekin dizdiz egiteko ezinbestekoa da barruko arropa egokia

Ez dute ikusiko eta ez du erakutsiko, senargaiari bakarrik, baina jantzi polit bat baino askoz gehiago da emaztegaiaren barruko arropa. "Soinekoa da erakutsi behar dena, baina egun berezi horretarako erosi den aparteko soineko hori ganoraz eta dotore erakusteko ezinbestekoa da barruko arropa egokia", dio Arrasateko Sikol lentzeria dendako Yolanda Sanchezek. Izan ere, bularretakoa ez bada egokia, guztiz zatar dezake soinekoa, eta kontua da soineko hori gorputzera egokitzen laguntzea eta harekin dizdiz egitea emaztegaiak. Hala, hiru pieza dira garrantzitsuak: bularretakoa; kuleroa; eta galtzari eustekoa. "Galtzari eusteko hori ere garrantzitsua da, galtzak egun osoan bere lekuan egongo direla bermatzen duelako", gaineratu du. Emaztegaiak, horren guztiaren garrantziaz jabetuta, amarekin joan ohi dira erostera. Mordotxo bat ikusi, egokiena hautatu eta gero soinekoarekin batera probatzeko eramaten dute.

Emaztegaiaren lagunek ere barruko arropa oparitzeko ohitura izan ohi dute, baina ez ezkontza egunerako. Arropa iradokitzailea izan ohi da, kolore ilunekoa: beltza, granatea... Eta liga ere, begizta urdinduna, noski, lagunek oparitzen diote emaztegaiari.



Emaztegaiendako barruko arropa dotorea.




Mary Lopez, ezk onberriendako saski batekin.

Senargaiek ere gero eta kasu handiagoa egiten diote barruko arropari. Kontua eroso egotea da, baina, era berean, zergatik ez izan polita? "Barruko kamisetarekin ahaztu egiten dira sarri, baina horri esker alkandorak txukun eta izerdi arrasto barik iraun dezake egun osoan", argitu du Sikoleko Sanchezek.

### SASKIAK ETA PUXIKAK

Eta zer oparitu ezkonberriei? A ze burukomina! Ohikoak dira altzari txikiak, etxerako apaingarriak, bainuetxean egonaldiak, aste bukaera pasak... Baina originalak izan gura duenak baditu beste aukera batzuk ere. Hala, Oñatin bizi den Mary Lopez argentinarrak saskiak gertatzen ditu; hainbat eratako saskiak. Arrakasta dutenak gosari saskiak dira: "Ezkongaien azken egunerako enkargatzen dizkidate, batez ere, ezkondu aurreko egunerako", dio, eta gaineratu: "Harrituta geratzen dira gosaria ikusterakoan, baina oso gustura jasotzen dute". Gosariaz gain, beste osagai batzuekin ere gertatzen ditu: meriendarako osagaiekin: gazta, urdaiazpikoa...; frutekin; ezkonberriendako xanpain edo ardo botilekin...

Eta orain puxikak eskaintzen hasi da. Puxika barregarriak, bihotz itxurako puxika sortak eta zerura botatzeko puxikak. Zerura zertarako, baina? Ezkondu direla ospatzeko, noski.

Horren guztiaren berri izan gura duenak, hona helbidea: *www.cestasyregalosadomicilio.com*.

Gure Ametsa Jatetxea

Ezkontza berezia eta ahaztezina!




943 71 49 52 • Leintz Gatzaga • www.gureametsa.es

# Ohitura aldaketen lekuko

**Duela hamarkada batzuetako ezkontzak oso desberdinak zirela diote urrezko ezteiak bete dituzten bikoteek**

Asko aldatu dira ezkontzak eta bikoteek dauzkaten ohiturak azkeneko mende erdian. Hori diote urrezko ezteiak bete dituzten bikoteek: "Lehen, ezkontzak goizeko zazpietan edo zortzietan izaten ziren eta elizkizuna baino lau aste lehenago amonestazioak egiten ziren". Haietan, ezkontzarekin ados ez zeuden herritarrek beren iritzia emateko aukera izaten zuten. Doktrina katolikoa ere derrigor ikasi behar zuten ezkongaiek, "bestela ezkontza ez zen egiten", gogoratzen dute.

**BAZKALTZEKO, OILASKOA**

Garai haietan ez zegoen gaur egun ezagutzen ditugun ezkontza bazkari oparorik ere. "Baserrian egiten ziren bazkariak, eta entremesen ostean letxugaz lagundutako oilaskoa jateko ohitura zegoen", diote.

**Eztei-bidaian gehienak Donostiara joaten ziren**





## Rufino Altuna eta Angelita Aiastui

1964ko otsailaren 8an ezkondu ziren Arrasaten

Joan den otsailean ospatu zituzten urrezko ezteiak Rufino eta Angelita arrasatearrek.

Gogoratzen dutenez, ezkondu zirenean, "antzinako ohiturak indarrean zeuden oraindik ere". Bada, ezkontzen aurretik apaizek oso zorrotz jokatzen zuten, eta bikoteek fededun zintzo zirela frogatu behar zuten: "Apaizak kredoa, *Aita gurea* eta antzekoak ezagutzen genituen edo ez jakin nahi zuen".

**Eztei-bidaian Madrilera**

Garai haietan bikote gehienak Donostiara joaten ziren arren, Rufino eta Angelita Madrilera joan ziren eztei-bidaian.

## Higinio Etxabe eta Benita Lete

1964ko otsailaren 8an ezkondu ziren Aretxabaletan



Jende ugari bildu zen Higinio Etxaberen eta Benita Leteren ezkontzan. 50 urte geroago protagonistek gogoratzen dutenez, "senide mordoa" bildu ziren Aretxabaletan, Anduagan, egin zuten bazkarian. Aurretik, Arkarazo auzoan egin zuten elizkizuna. Egun ederrari amaiera emateko ez zen gaur egungo ezkontzetako DJrik egon. *Eibarko itsua*-k gonbidatu kuadrilla dantzan jarri zuen bere soinuarekin.

Eztei-bidaia Estatuko hiri nagusietara egin zuen Mendiolako bikoteak. Bilbotik irten eta gero, Bartzelonan eta Madrilen izan ziren, Irundik etxera itzuli aurretik.





# Munduan bueltaka

## Bikoteek urrutiko lekuak aukeratzen dituzte eztei-bidaiaz gozatzeko



Machu Picchun izan ziren Irati eta Gotzon.

### Hego Amerikan motxilarekin

Irati Ugarte eta Gotzon Urtzelaik Boliviara eta Perura egin zuten bidaia. Motxilarekin bidaiatzea gustuko dutenez, bi herrialdeen arteko ibilbidea egitea erabaki zuten. "Boliviatik, Uyuni eta goi-lautada (altiplanoa) azpimarratuko genituzke", diote. Peruk, aldiz, "kultura, jendea, paisaia, gastronomia... Denetik dauka".

### Australiako basamortuan

Haritz Maizek eta Maider Morak Australiarako hegazkina hartu zuten ezkondu eta berehala. "Bidaia berezia egin nahi genuen", diote, "akaso errepikatzerik izango ez genuena". Leku ugari ezagutzeko aukera izan zuten; Melbourne, Sydney eta halako hiri kosmopolitak tartekatu zituzten Uluru eta Koral hesi handiek eskaintzen duten ikuskizun naturalarekin.

"Esperientzia guztiz gomendagarria da naturarekin kontaktuan egotea eta, aldi berean, hiri kosmopolitak ezagutzea gustatzen baizaizu", dio bikoteak. Ez dute zalantzarik: "Gustura bueltatuko ginateke".



Haritz Maiz eta Maider Mora, Australian, Ulurun.



Polinesiako hondartza zuriez gozatu zuten Aitorrek eta Patriciak.

### Zeelanda Berritik Polinesiara joanda

Munduko beste puntaraino joan ziren Aitor Aranburu eta Patricia Gende oñatiarrak. "Leku ezezagun batera" joan nahi zuten, eta, horregatik, Polinesiara bidaiatu aurretik Zeelanda Berria ezagutu nahi zuten. "Hegoaldeko fauna handia da, hori gustatu zitzaigun gehien Zeelanda Berritik", diote. Handik Bora-Borako hondartzetara joan ziren eta "itsaso gainean dauden txaboletan" lo egin zuten. Primeran ibili ziren.





*250 lagunentzako jantokia • Gustua eta luxua denon eskura • Bezeroentzako parking-a • Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...*

Ozaeta jauregia - **BERGARA** • Tel.: 943 76 10 55

*www.restaurantelasa.es*

**Txema Abarrategi** | Gure Esku Dago taldeko kidea

# "Herri batzuetako mugimendua ikusita, ezin gara atzean gelditu"

Erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimena astetik astera sendotzen doala dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udaberrian sartu eta ordu gutxira aurkeztu zuen Aramaioko Gure Esku Dago lantaldeak erabakitzeko eskubidearen aldeko Sastiñako Adierazpena. Txema Abarrategik (Aramaio, 1963) egin zuen berba orduan eta gu harekin egon gara, herriko taldearen gainean gehiago jakiteko.

**Zergatik sartu zinen Aramaioko Gure Esku Dago lantaldean?**

Herriko lagun bat etorri zitzaidan duela hilabete eta erdi inguru, beste toki batzuetan mugimendua bizi-bizi zetorrela eta kontu hau Aramaion ere erein beharra zegoela esanez, merezi zuela. Batetik, ilusio pixka bat eta, bestetik, ezetzik esateko adore falta. Eta, ohartu orduko, hemen gabiltza. Gustura, konpainia onean eta lan giro ederrean.

**Zenbat lagunek osatzen duzue taldea? Nola har daiteke parte?**

Orain, zortzi edo bederatzi lagun gabiltza, eta bakoitzak ahal duen neurrian hartzen du parte. Egunero biltzen gara kultura etxean, 18:30ean. Parte hartzeko egin behar den bakarra da bileretako batera azaltzea; astetik astera sendotzen ari gara.

**Zein balorazio egiten duzu martxoaren 21eko aurkezpenaz?**

Aurreikuspenak bete ziren, baina aurretik lana egin genuelako. Komunikazioan asmatu genuen; kartel eta bestelakoez gain, ahoz ahokoan jarri genuen indarra, eta horrek ondo funtzionatu zuen. Jendea gustura geratu zen eta atera genuen argazkia pozgarria da, askotariko aramaioarrak agertzen garelako. Herriari "hemen gaude eta denon artean zerbait asmatuko dugu" esatea zen asmoa eta helburu hori aise bete zen. Erantzuna, ederra.



Txema Abarrategi, Sastiñan, hilaren 21eko aurkezpenean. | IMANOL SORIANO

**"Aurkezpenean 100 sinadura; ernamuin horrekin, haziak loratu beharko du!"**

**Nola adostu zenuten Sastiñako Udaberriko Adierazpena? Zenbat lagunek sinatu zuten?**

Gure Esku Dagoren bidea bailaran beste batzuk guk baino lehenago urratu dutenez, euren idatzian oinarritu gara. Esan dezagun Sastiñako Udaberriko Adierazpenak Aloña inguruko haizea duela. Ia 100 sinadura lortu ziren aurkezpenean; ernamuin horrekin, haziak loratu beharko du!

**Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen asmoak?**

Nahiko genuke apiril eta maiatzean ekintza bana egitea. Hor gabiltza, oraindik ideiak bota eta pilatzen. Ez dugu ezer erabakita, baina ikusita herrietan ze mugimendu dagoen, ezin gara atzean gelditu.

**Ekainaren 8ko giza katea ez da Aramaiotik pasatzen, ezta?**

Ez. Aramaioarroi, Zuiako Kuadrillako gainontzekoekin batera, Irurtzunera joatea tokatu zaigu. Ari gara autobusak antolatzen.

**Nola doa metroen salmenta?**

Hasi berri gaude eta akaso salmentarako ekitaldiren bat antolatu beharko dugu. Apirilerako erronka markatu dugu: 100 herritar Irurtzunerako batzea.



## Papargorri eskolania Haur Abesbatzen Egunean

ARABATXO

Arabatxo Arabako Haur Abesbatzen Elkarteak antolatuta, Haur Abesbatzen Eguna ospatu zuten hilaren 23an Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan. Aramaioko Papargorri abesbatzak ez zuen hutsik egin, eta Larraitz Arriolabengoa zuzendariaren aginduetara 18 ikaslek hartu zuten parte: "Kontzertua oso ondo joan zen, denok oso gustura geratu ginen. Kontserbatorioa goraino bete zen", adierazi du Arriolabengoak.

**NIRE USTEZ**

MARTIN ARRIOLABENGOA



## Zabolako arraintxoak

Gure gaurko protagonistak orain 100 milioi urte jaio eta bizi ziren, Euskal Herriko itsaso tropikaletan gustura, kontinenteetan dinosauroak oinez zebiltzan bitartean. Heriotzak harrapatzerakoan, itsas ondora jauzi eta lurperaturik geratu ziren gizajoak, fosildurik, Kretazeoko arroketan betiko gorderik. Ordutik munduaren egoera asko aldatu da, eta itsas azpia zen ingurua egun mendi tontor izatera pasa da.

Gure arraintxoak, tartean tarteko, Zabolako bailaran geratu ziren ezkutuan isil-isilik, inor molestatu gabe. Egun on baten, baina, hondeatzaile batzuk etorri ziren tren txu-txu-aren zaratarekin. Eta azkenean argia ikusteko itxaropena berpiztu zen arraintxoetan. Azkenik, aske izango ziren berriz ere.

Baina oker zeuden, lehenengo argi izpia ikusi bezain pronto zementuzko kapa batek estali zituen, itxaropen guztiak zapuztuz.

Hauxe da Zabolako arraintxoen istoriotxoa, tamalez benetako gertakizunetan oinarriturikoa. Aramaioko Udaletik zein Euskal Herriko Unibertsitatetik egin ziren orain arte mundu mailan aurkitu ez diren Kretazeoko arrain fosil berezi horiek aztertzeko eskaera, eta tamalez, ez da erantzunik ez aukerarik izan.

Gaur egungo marrazo handiek, nonbait, jan dituzte gure arraintxo txikiak.

**"Egungo marrazo handiek jan dituzte gure arraintxoak"**

### San Martin eskolak eta Udalak antolatuta, Zuhaitz Eguna ospatuko dute ikasleek apirilaren 3an eta 7an

Urteroko ohiturari eutsiz, Udalak eta San Martin eskolak Zuhaitz Eguna antolatu dute Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleendako. Lehenak apirilaren 3an irtengo dira, Ibarran bertan, gladioloak landatzeko. LHkoek berriz, hilaren 7an 75 pago eta 25 hagin landatuko dituzte San Adrian baseliza inguruan. Bi kasuetan, eguraldi txarra egiten badu, egun bat atzeratuko dute landatzea. Zuhaitzak landatu ostean, eta goiza amaitzeko, ikasle guztiek mokadutxoa egingo dute; txokolatea eta fruta jango dute. Hamaiketakoa Udalak jarriko du.

### Sarriako aterpetxean egingo den bertso barnetegian izena emateko aukera dago apirilaren 4ra arte

Zuiako Kuadrillak eta Arabako Bertsozale Elkarteak antolatuta, bertso barnetegia egingo dute apirilaren 22an, 23an eta 24an Murgiako (Araba) Sarriako aterpetxean. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailetako ikasleendako da eta bertsoak bidelagun hartuta ondo pasatzea da barnetegiaren helburua. Izena eman behar da apirilaren 4a baino lehen, eta Zuiako Kuadrillaren bulegoetan edo udaletan –Aramaiokoa barne– eska daiteke izena emateko orria. Informazio gehiagorako, 945 43 01 67 telefonora deitu.

### Arabako Bertso Kuadrilla Artekoan, aramaioarren arteko lehia bihar San Martin eskolako jantokian

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren barruan herriko bertsolarien arteko lehia izango da protagonista bihar San Martin eskolako jantokian (14:00). Bertso bazkaria egingo dute *Unibertsolariak* eta *Aramaioko Garratzak* taldeek, eta aspalditik elkarren lagunak direnez, "umore onean eta familia giroan" joango da saioa. Bazkarian izena emateko 688 68 39 42 telefono zenbakira deitu beharra dago, eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, hamar euro ordaindu beharko da bazkaria.

### Laburbira film laburren zirkuituak geldialdia egingo du gaur kultura etxean, 22:30ean hasita

Euskal sortzaileek egindako kalitatezko zazpi film labur ikusteko aukera egongo da gaur kultura etxean (22:30). Izan ere, Topagunearen Laburbira film laburren zirkuituak geldialdia egingo du gaur Aramaion. Euskal sortzaileen ikus-entzunezkoen ekoizpena Euskal Herrian bertan erakustea da ekimenaren helburua. Herriz herri, aretoz areto. Filmak proiektatu aurretik Kepa Errasti *Euskaldun berriaren esketxa* filmeko aktore eta zuzendari aretxabaletarrak egingo du aurkezpena.

**Beñat Herce** | Eskoriatzako alkatea

# "Irailerako gura dugu inaugaratu Zaldibar antzokia"

## Udalaren egoera ekonomikoaren harira, zorpetzea erdira jaitsi dela adierazi du; 1,5 milioi euro azpitik dago



Beñat Herce alkatea Goiena telebistako platoan. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Luze eta argi jardun zuen Beñat Herce alkateak martitzenean Goiena telebistan. *Harira* saioan elkarrizketatu zuen Eneko Azkarate kazetariak.

**Laster hiru urte izango dira alkate kargua hartu zenuenetik. Zelakoa da orain arteko balorazioa?**

Oso gustura nabil. Kudeaketan aritzea gustatzen zitzaidan, eta, udal bateko kudeaketa ezberdina bada ere, oso gustura nabil.

**Urtebete falta da agintaldia amaitzeko. Errepikatzeko gogoz?**

Ez dakit. Azkartxoegi da erantzuteko. Lehen esan dudan moduan, gustuko dut, baina nire lanbidea ere oso gustuko dut. Garaia heltzen denean hartuko dugu hartu beharreko erabakia.

**Udal Gobernuan daudenak Elizateetako ordezkariak dira, eta ez dirudi harremanak oso onak direnik, aurrekontuak kritikatu dituztelako. Hobera egin du?**

Oso harreman ona daukagu; Iñaki Madinabeitia oso azkarra eta langilea da. Baina Elizatekoen rola da elizateei begira ahalik eta inbertsio gehien egitea. Eta, nola ez, horrek tirabirak sortzen ditu. Baina Udal Gobernuaren barruan gainerako arduradunekin berdina gertatzen da.

**Horri lotuta, zehaztu dituzue elizateetan aurtengo inbertsioak?**

Elizate eta auzo alkateen bitartez erabakitzen ditugu horiek; sekulako zerrenda luzea dute, erdigunean bezala beharrak daudelako, eta batzuk lehenetsi eta adosten ditugu. Beste faktore bat dago hor: Diputaziotik etortzen den dirua. Diru laguntza eskaera dagoeneko egina daukagu; hiru proiektu aurkeztu ditugu. Aurrera dezaket ziurrenik Zarimutzeko auzo lokala egingo dela. Horrez gain, euriteek eragindako kalteak konpontzeko partida ere sartuko dugu. Eta egoera ekonomikoaren arabera, gehitzen joango dira inbertsioak.

**Elizateekin jarraituz, zelan dago AP-1 autobidearen obrek eragindako kalteen auzia?**

Orain dela hiru urte sartu ginenean, topatu genuen panorama zen autobidea eginda eta irekita bai, baina inguru guztiak penagarri utzi zituztela. Auzotar asko haserre zeuden garaiko Bidegiren jarrerarekin. Baina oraingo Errepideetako zuzendaritza oso ondo portatu da, ikusita Bidegik dituen finantzazio arazoak, lehenetsi dutelako. Lan guztiak lau proiektutan batu ditugu; denera, lau milioiko lanak dira. Orain, Maringo proiektuarekin dabiltza, eta laster hasiko dira exekutatzen; eta urte amaitu aurretik, Zarimutz eta Mazmelakoa egingo dituzte, eta datorren urterako utziko dugu erdigunea.

**Zelakoa da Udalaren egoera ekonomikoa?**

*Ona* da. Inoiz baino lehenago heldu zen gurera krisia. Baina aurreko agintaldian egindako lan zorrotzari eta guk horri egindako jarraipenari esker, bagabiltza poliki burua altxatzen. Egoera kaskar hartan desagertu ziren hainbat partida berreskuratu dira; tartean, zaharren egoitza laguntzea. Helburua da partida horiek aurrekontuetan txertatzea. Bestalde, lan handia egin dugu, zorpetzea jaitsi dugu, hiru milioiko zorra izatetik milioi eta erditik azpitik gaude.

**Diru kontuekin jarraituz, aurrekontua onartuta duzue. 5,3 milioikoa da. Zeri eman diozue lehentasuna?**

Eta zeintzuk izango dira inbertsio nagusiak?

Ekonomia eta enplegua, nola ez; euskara, berdintasuna eta bizikidetza. Horiek benetako isla izan dute aurrekontuetan. Eta inbertsioetako atalera salto eginez, 340.000 euroko inbertsioak egingo ditugu; esaterako, Olazar eta hilerri arteko magala, kiroldegiko makina gela konpondu eta igerilekuko sakonera murriztu. Eskoriatzako igerilekua da Debagoieneko guztietatik sakonera handienetakoa duena da. Horrek kontsumo handia dauka, eta herriko beharretara egokituko dugu. Uda partean egingo ditugu kiroldegiko obra horiek, ohiko erabileran ahalik eta eragin txikien izan dezaten; irailean edo urrian jarriko ditugu ostera martxan.

***Oinezkoak lehenengo* proiektuaren barruan, kale nagusia konpontzeko lanak egiten diharduzue. Txukun utzi duzuela herria...**

Egia da falta izugarria zuela, errepide nagusi hori guztiz hondatuta zegoelako. Baina, asfaltatzeaz gain, guretako inportantea zen pertsonak lehenestea, eta proiektuan txertatzea garraio publikoa eta irisgarritasuna. Besteak beste, biribilgunea egin dugu, autobus geltokia lekuz aldatu dugu, 85 ibilgailurendako aparkaleku berria ireki dugu eta Olazar auzoan eta Santa Mariñe eta Santa Ana artean lanak egin behar ditugu oinezkoendako irisgarritasuna bermatzeko. Kale nagusiaz gain, behar handia zuten beste hainbat gune ere konpondu izan dugu; tartean, Aranburuzabala, Olazar eta Hidalga. Orain, Arbiñosten dihardute lanean, eta, hango obrak amaitzean, asfaltatu egingo da eta ingurune hori ere txukun geratu egingo da.

**Zenbateko kostua du horrek guztiorrek?**

> **"Zarimutzeko auzo lokala egingo da, eta euriteek eragindako kalteak konponduko dira"**

> **"Autokarabanendako gunea egokitu nahi dugu Torrebason, turismo mota hori erakartze aldera"**

## OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

**Aitor Urrutia** | EAJ-PNVko zinegotzia

### "Agintaldi lau baten aurrean gaude"

"Agintaldi lau baten aurrean gaude. Krisiaren aitzakiaz, inbertsioetarako eta herrigintzarako intereseko gaiak ez gatz eta ez berakatz doaz. Azken urteotan esku artean dabiltzan Zaldibar antzokikoaz gain, ezer gutxi. Galeriarako obra batzuk besterik ez. Kulturan–eta ere antzera. Nik uste dut agintaldi honen helburua atez atekoa sartzea dela, eta ikusten gabiltza errekurtso eta indar gehienak horretara bideratzen dabiltzala. Ez da harritzekoa, Mankomunitatean ere antzera dabiltza. Faltan sumatzen ditugu neurriak krisiari aurre egiten laguntzeko, enpresak sustatzeko...".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Benetan laua dena da zinegotzia izan eta hilabetean behin bizpahiru orduz soilik agertzea udaletxean. Udal Gobernukoa edo oposiziokoa izan, lanera bidaltzen gaituzte, eta, hortaz, asko ikasi behar du pertsona honek. Ez nago ados inbertsiorik ez dugula egin; kalera irtetea besterik ez dago. Saiatu gara herritarren arazoei irtenbidea ematen. Sekulako lana egin dugu. Eta enpleguari dagokionez ere esfortzu berezia egiten gabiltza kontratazioetan. Esaterako, aurten, denera, bost kontratu egingo ditugu Udaletik".

**Jose Luis Cantero** | PSE-EEko zinegotzia

### "Gizarte arloan anbizio txikia ikusi dugu"

"Udal Gobernuan parte hartzeko gonbitari uko egin diogu. Bestetik, gizarte gaietan anbizio txikia ikusi diogu Bilduri; etxegabetzeen kontuan, esaterako. Enplegu politiketan ere ez dugu ekimen berezirik, horren gai inportantea izanik; Fagor Etxetresnen arazoa hor dugu. Bestetik, presio handia egin ostean, lortu dugu errepidea konpontzea; eta, azkenik, eskoriatzarren nahiaren aurkako Bilduren atez ateko inposizioa ere hor dago. Herria bosgarren edukiontziaren alde dago, herri galdeketan argi geratu zen moduan. Bestelakoan, gauza gutxi: inbertsio gutxi, gizarte laguntza".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Grazia egiten dit. Milioi askotako proiektua ez baduzu egiten, ematen du inbertsiorik ez dela egiten. Datu bat ematearren, Udalak bost milioiko aurrekontua du, eta, Udal Gobernuan gaudenetik, bi milioiko inbertsioa egin du. 4.000 biztanleko herri batendako asko da. Eta gizarte politikei buruz esaten duenarekin harrituta nago; gizarte behar guztiei erantzuna ematea lehentasuna da guretako. Lan handia gabiltza egiten; Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak oso ondo funtzionatzen du eta oso erantzun ona gabiltza ematen".



HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

**Aurrekontuetan aurreikusita ez badago ere, Torrebaso abentura parkean zerbait egingo da aurten?**

"Bai, asmoa daukagu. Sekulako harrera izan du parke horrek, eta aldamenean beste gune bat egokitu gura dugu. Esan bezala, ez dugu aurrekontuetan sartu, presazkoa ez delako. Baina soberakin polita daukagunez, ziurrenik aprobetxatu egingo dugu hori egiteko. Ez hori bakarrik. Autokabanendako gunea ere egokitu nahi dugu hor, turismo mota hori erakartze aldera".

**Noiz hasiko dira Arabako mugaraino iritsiko den bidegorri zatiko lanak?**

"AP-1 autobideko neurri zuzentzaile moduan, trenbide zaharra bidegorri edo bide berdea egokitzearena dago. Horren gainean galdetu dugu eta, Bidegiren egoera finantzarioa ikusita, lehenengo baserrietako bideak konpontzea adostu genuen. Gainera, konturatu gara auzotarrek ez dutela gura bidegorririk, eta proposatu dugu bide berde antzekoa egitea. Baina lantokietara doazen bidegorriak lehenesten dituzte. Udalak, bere aldetik, Kuatrena txukundu du".

**San Pedro auzoan 10. zenbakitik 16-17. zenbakira doan eremua berritzea falta da; noizko auzo osoa txukun?**

"Lehenbailehen erantzun gurako nioke gai horri, baina azpimarratu beharra dago 300.000 euro inguruko aurrekontua duela esandako proiektuak. Udalak urte batean bere gain hartzeko larregikoa da kopuru hori. Dena dela, gure asmoa da agintaldia amaitu aurretik azken fase hori egitea eta auzo osoa berrituta uztea; baina ikusi egin beharko da ze baliabide ditugun. Guztiari aurre egitea ezinezkoa da".

Milioi erdi inguru. Kosta egin da, Eskoriatza bezalako herri batendako milioi erdi asko delako, eta aurreztuz poltsa hori osatzen joan behar izan dugu proiektu hori martxan jarri ahal izateko. Proiektu polita da, eta hori amaituko da erdialdea oinezkoendako egokituta. Eremua pertsonendako berreskuratu behar dugula uste dugu. Egokitzapena, dena dela, partziala izango da: astegunetan, 16:00etatik 21:00etara; eta asteburuetan, zapatu eguerditik domeka gauera. Zirkulazioaren desbideraketa eskatzen du horrek, eta horretan gabiltza.

**Bestalde, hiri hondakinei dagokienez, Eskoriatzan ere atez atekoarekin ados ez dauden herritar asko daude. Zer esango zenieke horiei guztiei?**

Onartzen dugu ezin izan dela herritar guztiak konforme utzi. Ulertzen dugu gaika banatzen dutenek nahiago izatea edukiontziak, baina Eskoriatzak iaz 1.000 tona eroan zituen Sasietako zabortegira. Arazoa larria da. Herritar askok, gainera, ez dute bereizketa ondo egiten eta erabaki bat hartu behar izan dugu. Proba pilotuak kale egin du, sistema eraginkorra behar dugu. Goazen ondo egitera eta, ziurrenik, lortuko dugu arazoari aurre egitea. Apirilaren 6an hasiko dugu atez atekoa. Ontziak banatzen gabiltza, eta orain arte eskoriatzarren %85ek jaso dituzte. Badakigu kontrakoak eta aldekoak daudela; baina lortu duguna da herritarrek zaborrarekin dugun arazoarekin kontziente izatea.

**Udal langileak kontratatzerakoan pleguan eskatu beharreko euskara baldintzak bertan behera utzi dituzue. Zergatik?**

Gobernu delegazioak eskatuta atzera egin behar izan dugu. Garrantzitsua ez da dokumentuetan jasota izatea, aplikatzea baizik. Euskararen presentzia bermatuko dugu.

**Zaldibar antzokiak 1,5 milioiko kostua izango du. Oposizioak dio Udalaren diru-kutxa hutsik utziko duela. Horrela da?**

Ez. Eskoriatzari milioia kostako zaio, bestea diru laguntzen bidez ordaindu da. Herriak eskatu du eta zabalik dagoenean eskertuko dute askotariko ekintzetarako ekipamendu berria. Toki aldetik oso aproposa Eskoriatza bezalako herri batendako. Bestalde, atzerapenarekin doaz lanak. Azken fasea lauzpabost hilabeteetan egin eta irailerako gura dugu inauguratu.

**Amaitu aurretik, herriko merkataritza bultzatze aldera axtrokiak sortu dituzue, elkartearekin batera. Zelako harrera izan dute?**

Oso ona, kontrakorik badago ere. Herriko merkatariak oso pozik daude, eta herritar askok ere ulertzen dute hitzetatik ekintzetara pasatzeko horrelako erabakiak hartu behar direla. Zirkuitu antzekoa sortzea herrian oso positiboki baloratzen dugu.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

**Juan Luis Merino** | Ezker Anitza-IUko zinegotzia

## "Alkateak errodilloa pasatzen du"

"Aurreko agintaldiaren jarraipena da. Indar politikoen arteko elkarbizitzari dagokionez, aurreko agintaldiarekiko zerbait hobetu da, baina ez nahikoa. Erabateko gehiengoa edukita, alkateak errodilloa pasatzen du; ez du ez eskumara ez eta ezkerrera begiratzen ere. Eskumari kasurik ez egitea ulergarria izan daiteke, baina ez dituzte aintzat hartzen beste alderdiak. Hortaz, bai oraingoa eta baita aurrekoa ere agintaldi hilak dira. Pasatzen doa. Ezin dezakegu ezer egin, ez du merezi denbora galtzerik, kasurik ere ez digutelako egiten. Horixe azpimarratuko nuke".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Ez da horrela. Hamaika zinegotzi gara eta Eskoriatzako udaletxean batzordeka lan egiten da. Pertsona hau besteak baino apur bat gehiago agertzen da, baina oso noizbehinka. Baina proposamenak mahai gainean jarri direnean, beti aztertu izan dira eta, Eskoriatzarako egokiak badira, onartu ere onartu dira. Esaterako, ordenantza fiskaletan Ezker Anitzak egindako pare bat proposamen txertatu ziren. Gertatzen dena da Udalean ez daudela eta proposamen zehatz gutxi egiten dituztela. Oposizioa egin behar da".

# Proba pilotuan parte hartu dutenen txanda da

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Astebete pasatxo baino ez da geratzen atez atekoa martxan jartzeko; apirilaren 6an, domeka, hasiko dira sistema berriarekin. Egun horretarako dena gertu egon dadin, lanean dihardute Eskoriatzan.

Apirilaren 1ean eta 2an, martitzena eta eguaztena, San Pedro, Intxaurtxueta eta Gaztañaduiko 27 eta 29. atarietako herritarrek Ibarraundira joan beharko dute, bigarren ontzi marroia jasotzera eta proba pilotuan erabilitako edukiontzi komunitarioen giltza bueltatzera. Honako ordutegian topatuko dituzte museoko ateak zabalik: goizez, 10:00etatik 14:00etara; eta arratsaldez, 16:00etatik 19:30era bitartean.

**Ontzi komunitarioak zabalik**

Bestalde, Udaletik jakinarazi dute apirilaren 1etik 6ra bitartean, auzo horietakoek edukiontzi marroi batzuk izango dituztela irekita organikoa atera ahal izateko. Sistema batetik bestera pasatzean auzokideei ahalik eta eragozpen txikiena sortzeko ahalegina egingo da.

Apirilaren 6an, 19:00etatik 06:00era atera beharko dituzte ontziak zintzilikarioetara. Egutegiaren arabera, organikoa ateratzeko eguna izango da.



ETXERAT

## Gorka Azpitarte presoa aske

Lau preso askatu zituzten eguaztenean; tartean, Gorka Azpitarte eskoriatzarra. 2009ko apirilaren 18an atxilotu zuten Ipar Katalunian, eta iaz irailean bost urteko kartzela-zigorra ezarri zion Frantziako Auzitegiak. Fleury espetxean zegoen. Irudian, Azpitarte, gurasoekin.

## Goio Arrietak 'Lore bat' antzezlana aurkeztuko du gaur

Etxean aurkeztuko du gaur Goio Arrieta eskoriatzarrak *Lore bat* izeneko ikuskizuna. Iban Cano idazle gasteiztarrak argitaratutako bigarren nobela herriz herri ezagutarazteko aukeratutako "modu bitxiaz" jardungo du horretan. Unibertsitatean izango da emanaldia, 22:30ean.

## Autobus zerbitzua hobetzeko batzarra dago martitzenean

Diputazioak herri arteko autobus zerbitzua hobetu gura du, eta horretarako batzar irekia deitu du martitzenerako, apirilak 1, 18:30ean, kultura etxean. Zerbitzua hobetzeko egindako aurreproiektua aurkeztuko zaie oraingoan herritarrei, eta ekarpenak egiteko aukera ere izango da.

## OHARRAK

**GAZTELEKUA**

Oraingo asteburuan ere askotariko ekintzak izango dituzte gazteek: gaur, karteragintza tailerra egongo da; bihar, Gazte Txef lehiaketaren hirugarren saioa egingo dute; eta etzi, domeka, hockey partidua jokatzeko asmoa dute.

**HITZALDIA**

Martitzenean, apirilak 1, herritarren segurtasunari buruzko berbaldia dago, 17:00etan, herriko kultura etxean.

**SAGARDOTEGIRA IRTEERA**

Olazar elkartearen eskutik, sagardotegira joango dira apirilaren 12an herriko erretiratuak. Horretarako izen-ematea zabalik egongo da eguena arte (apirilak 3). Interesatuek martitzenean edo eguenean joan behar dute elkartearen bulegora, 11:00etatik 12:30era.

ELGETA

# Ekainaren 22an egingo du herri kontsulta Udalak

Atarika antolatuta, herritar guztiak deituko dituzte informazio batzarretara

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ados jarri dira, bigarrenez, Elgetako hiru talde politikoak. Hondakinak batzeko sistema adostu zuten iaz apirilean, eta herritarren iritzia eskatuko dute ekainaren 22an. Elgetako erroldan dauden 18 urtetik gorako guztiek izango dute botoa emateko aukera, eta hiru talde politikoek hartu dute emaitza errespetatzeko konpromisoa herritarren herenak, gutxienez, botoa ematen badu.

Udalbatzak aho batez onartu zuen erabakia martitzenean egindako osoko bilkuran.

### Adostasun zaila

Oxel Erostarbe alkateak esker oneko hitzak izan zituen. Talde guztiek "sekulako ahalegina egin dute", adierazi zuen, eta "herritarrek eskertuko dute", gainera-tu zuen.

EH Bilduko Janire Lazkanok onartu zuen bigarren adostasun hori zailagoa izan dela. Esan zuen atez ateko bilketa sistema dela eraginkorrena, baina elgetarrei ahalik eta alternatiba egokiena aurkezteko lan egitea izan dela euren autua. "Lortu duguna ez da lan makala. Azkenean, bakoitzaren idealetatik askotan ez, baina momentu batzuetan urrun geratu gara; hala ere, proposamen txukuna lortu dugula uste dugu. Sistemaren eraginkortasuna frogatzeko epeak jartzeak, herri kontsultaren emaitzak kontuan hartzeko gutxieneko parte-hartzea ezartzeak (...) erakusten dute helburuetara heltzeko konpromisoa hartzen duela Udalak".

EAJko ordezkari Patxi Basauri ere gustura agertu da erabakiarekin. "Hasieratik babestu dugu ekimena. Orain, herritarrei eskatzen diegu kontsulta horretan parte hartzeko hau guztia aurrera atera dadin".

### Ezarpena eta jarraipena

Adostutakoaren arabera eta kontsultaren emaitzek horrela adieraziz gero, hondakin bilketa sistema berria martxan egongo da, beranduenez, abuztu amaierarako. Helburua da bilketa selektiboa %70-80ra heltzea. Bederatzi hilabetera egingo da helburuen betetze mailaren balorazio orokorra.

### Bilerak herritarrekin

Kontsultaren galdera hauxe da: *Udaletxean adostu den hondakinen bilketa sistemarekin ados zaude?* Atarika antolatuta informazio batzarrak egingo ditu Udalak datorren astetik aurrera.

### Adostutako hondakin bilketa sistema

Iaz apirilean adostu zuen Elgetako udalbatzak hondakinen bilketarako plangintza. Ekaineko herri kontsultaren bitartez, herritarrak proposamen horrekin ados dauden jakin gura du Udalak.

Sistema ez da atez atekoa, eta ezta edukiontzi soiletan oinarritutakoa ere. Zortzi neurriren bitartez, eta laburbilduz, konposta egiteko baliabideak emango dituzte; erosketak egiteko modu ekologikoa bultzatuko dute eta enpresa eta komertzioei ematen zaien zerbitzua hobetu egingo dute; zaborra berezita botatzeko ontziak jarriko dituzte kaleko ohiko zaborrontzien lekuan. Neurri horietako gehienak martxan dira dagoeneko.

Hondakinak sailkatzeko bederatzi ontzi jarriko dituzte; papera, olioa, pilak eta bidrioa batzeko orain arteko ontziak mantendu egingo dituzte eta txipa duen edukiontzi marroia jarriko dute; hondakina sailkatzen ez dutenen jarraipena egingo dute; eta erabiltzen ez diren tresnak berrerabiltzeko gune edo ekimenak bultzatuko dituzte. "Erronka nagusia da herritarrak benetan dugun arazoarekin jabetzea eta gizarte konpromisoa hartzea arazoari aurre egiteko", jasotzen du plangintzak.

## Elgetan hobekuntzarik ez garraio publikoaren zerbitzu berrian

L.Z. | ELGETA

Eguaztenean aurkeztu zuten, Elgetan, *Herritarrekin martxan* kanpainaren baitan autobus zerbitzu publikoa hobetzeko Foru Aldundiak gertatu duen aurreproiektua. Bergaratik lotura hobeak aurreikusten dira, baina Elgetan gaur egun ematen den zerbitzua bere horretan gelditu-ko da. Aldundiak ez du aintzat hartu Elgetako parte hartze prozesuan egindako ekarpenik. Itziar Eizagirrek eta Patxi Larrañagak egin zuten aurkezpena, eta esan zuten arrazoia dela Elgetako garraio zerbitzuan egin berriak direla hainbat hobekuntza.

### Eskaerak

Oxel Erostarbe alkatea kritiko agertu zen aurreproiektuarekin: "Eskualdean sortuko den garraio zerbitzu orokorretik kanpo gelditu da Elgetan, beste behin", esan zuen. Herritarrek ere egin zituzten zenbait eskaera: eskaripeko zerbitzua eskatzeko epea zabaltzeko eta zerbitzu gehiago jartzeko. Esaterako, goiz erdian bai Eibarrera bai Bergarara eta iluntzeetan zerbitzua zabaltzeko, goizegi amaitzen da-eta.

## Gure Esku Dago dinamika aurkeztuko dute apirilaren 3an, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian

Apirilaren 2rako zegoen deituta, baina apirilaren 3an, eguena, egingo dute Gure Esku Dago dinamikaren aurkezpena Elgetan. Azalpen bideoa eta bailaran orain arte egindako ekintzen berri emango du Espaloian Debagoieneko Gure Esku Dago lantaldeak. Zalantzak argitzeko edo kezkak eta galderak planteatzeko aukera izango da. "Gure Esku Dago zer den ezagutu edo erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimenean parte hartu nahi izanez gero, animatu!", adierazi dute deitzaileek.

## Yllana antzerki konpainia gaur eta Zea Mays eta Golden Apple Quartet datorren aste bukaeran

Yllana konpainiak *Muu!* antzezlana egingo du gaur, barikua, 22:30ean, Espaloia kafe antzokian. Sarrera 15 euro da; bazkideendako edo aurre-salmentan, 12 euro. Datorren aste bukaeran ere egongo da zer ikusi Elgetako antzokian. Barikuan, apirilak 4, Zea Mays eta Anai Arrebak taldeek egingo dute emanaldia. Zapatuan, berriz, Golden Apple Quartet talde entzutetsuaren txanda izango da. Kasu bietan, sarrerak salgai daude *www.espaloia.com* atari digitalean.

## OHARRAK

**SASKIBALOI SAIO IREKIA**
Gaur, martxoak 28, saskibaloi saio irekia herriko neska-mutikoendako; 18:30etik 19:30era, kiroldegiko gimnasioan.

**IPUINEN ORDUA, BATZARRA**
Martitzenean *Ipuinen ordua* saioen inguruko batzarra egingo dute liburutegian. Orain arteko balorazioa egin eta txanda berria antolatuko dute.

**TURISMO GIDA**
Astelehenean, martxoak 31, amaitzen da turismo gida lan poltsarako izen-emate epea, udaletxean.

**ITZAL-TXOTXONGILOAK**
4 eta 11 urte arteko umeendako tailerra antolatu du apirilaren 15erako Udal Liburutegiak. Izen-ematea zabalik dago liburutegian apirilaren 8ra arte.



L.Z.

## Seme-alabak eta sare sozialak

Maala guraso elkarteak antolatuta, hitzaldia egin zuen astelehenean Baikara elkarteko Esther Martinezek. Sare sozialak zer diren eta gaztetxoek ze erabilera egiten duten azaldu zuen. Esan zuen erabilera arduratsua sustatzea dela gurasoen egitekoa. "Kalean ibiltzen erakusten diegun moduan, Interneten nola ibili ere erakutsi behar diegu". *Pantallasamigas.net* ataria gomendatu zien gurasoei.

LEINTZ GATZAGA

# Edurne Iturbek azkeneko osoko bilkura egin du

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

2007a ezkero Leintz Gatzagako Udaleko idazkari izan den Edurne Iturbe legazpiarrak utzi egin du kargua. Osoko bilkuran bete da kargu-uztea, martxoaren 21ean, eta osoko bilkura berean izendatu du udalbatzak Iturberen lekua beteko duen behin-behineko udal idazkaria: Mari Jose Ganboa eskoriatzarra, gaur egun Leintz Gatzagako udal langilea ere badena.

### Lan-poltsatik

Hain justu, Ganboa idazkari izango da harik eta lanpostu hori modu ofizialean okupatu arte administrazioak izendatutako idazkari baten bitartez. Edo harik eta udalek halako beharrak dituztenerako Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen diharduen lan-poltsa landu arte. "Izan ere, gero hortik atera daiteke idazkari berria. Eta nik uste dut uztailean -edo jakingo dugula horren gaineko zerbait", adierazi du Mari Jose Ganboak.

### Lan bolumena dela-eta

Edurne Iturbek utzi egin dio Leintz Gatzagako idazkari izateari Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako Udalen artean osatutako Elkarte Idazkaritza desegin egin dutelako. Hori egiteko arrazoia da lanpostu horren funtzioak Eskoriatzako Udalean betetzeak duen lan eta zerbitzu bolumena. Hori horrela, eta Edurne Iturberi dagokionez, Eskoriatzako Udaleko idazkari izaten segituko du.

Eta Gatzagari dagokion elkarte administratiboari dagokionez, berriz, datozen urteotarako Elgetarekin osatuko du Elkarte Idazkaritza.

LEINTZ GATZAGA

## Thailandiara bizikletan egindako bidaia kontatzeko hitzaldia

*Andaluziatik Thailandiara poliki-poliki bizikletan* diaporama izango da apirilaren 4an (egubakoitza) kultura etxean, 19:00etan. Zigor Lasagabaster aretxabaletarrak eta Maria Caro granadarrak iaz irailean Algecirastik irten eta Thailandiara egindako bidaia kontatuko du Lasagabasterrek, hemen dagoela aprobetxatuta.


UDABERRIKO
X.MUSIKALDIA
2014
Apirilak 4
Kulturateko Areto nagusian: (20:00)
"BI ARREBA" (Xabier Lizaso eta Andoni Egaña)
Apirilak 5
Parrokian: (20:00)
ORQUESTA RICERCARE
Apirilak 6
Parrokian: (20:00)
LANDARBASO ABESBATZA
Apirilak 11
San Frantzizko elizan: (20:00)
ARRASATE MUSIKALEKO ORKESTRA + GOIKOBALU
Apirilak 12
Parrokian: (20:00)
TXORBELA ETA OPUS CUATRO
Apirilak 13
Amaia Antzokian: (19:30)
TANTTAKA, "ZAZPI ALDIZ ELUR"
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

TXIRRINDULARITZA

# 'Espartaco' babesten Irizar, eta Aristi ere bai Flandrian

X.U. | ARRASATE

Trek taldeko txirrindulariak eguaztenean hasi ziren klasikoetan daude, Fabian Cancellara *Espartaco*-rentzako lanean, eta tartean dago Markel Irizar oñatiarra. Martitzenean hartu zuen Belgikarako bidea, Tirreno-Adriatikoko lasterketa bukatu ostean etxean egun batzuetan atseden hartu eta gero.

Asteburuko lasterketetan lehiatu ostean, astelehenean etxera itzuliko da, segidan Flandesko Itzulian mugiltzeko, urteko hitzordu garrantzitsuenetako bat: "Talde ona dugu eta Cancellara ere topera dator", adierazi du.

**Mikel Aristi, Belgikan**

Bestalde, Euskadi taldeko Mikel Aristi ere Flandrian izango da (apirilak 12), baina, kasu horretan, 23 urtez azpiko selekzioa ordezkatzen. Halaxe erabaki du Pascual Momparler hautatzaileak, eta hitzordu horrekin batera Bergarakoak Frantziako Cote Picarde lasterketan (hilak 16) eta Herbehereetako ZLM Tour proban (19an) hartuko du esku.



Markel Irizar. | KECPROSPORT.COM



Bailarako ordezkariak, eguaztenean, Gorlako maldak hasten diren tokian. | JAGOBA DOMINGO

TXIRRINDULARITZA

# Ibarreko ordezkariak Gorlako maldei aurrez aurre begira

## Domekan egingo dute Gorlako 40. Igoera; bailarako ziklistak hiru taldetan ordezkatuta izango dira

XABIER URZELAI | BERGARA

Amateur mailako ziklistarik onenak batuko ditu Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango den Gorlako Igoerak domekan (10:00, San Martin plaza).

Urte askoan Debagoieneko txirrindulari gutxi izan dira hitzordu handi horretan, baina azken bizpahiru urteetan iraultza izan da eskualdean, kuadrilla polita iritsi da-eta amateur mailara. Hala, Etxabe anaiak, Asier Taboada, Julen Irizar eta Jon Rivero (Debabarrena), Aitor Umerez eta Eneko Lizarralde (Gipuzkoa) eta Alex Aranburu eta Iker Eskibel (Zirauna Infisport) ziklistak irteera puntuan izango dira, Gorlako maldei aurrez aurre begira.

**90 kilometro, eta hiru igoera**

Gorla ez da egutegiko lasterketa gogorrena, baina bertan egoten den maila onak zailtzen du proba. Ziklistek 90 kilometro izango dituzte aurretik, eta, tartean, birritan igoko dute Gorla: 11:00 inguruan igoko dira lehenengoz eta 12:20 aldera iritsiko dira azkarrenak helmugara.

**Marc Soler indartsu**

Txirrindulari katalana da Gorlan irabazteko hautagaietako bat; izan ere, ondoan oilar asko izango ditu, baina Lizarteko ziklistak dagoeneko lau alditan jaso ditu besoak helmugan –Soraluze, Ereño, Urretxu eta Lizarra–. Joan den astean hura izan zen Lizarran azkarrena. Eta lasterketa hartan azpimarratzeko moduko lana egin zuten Jokin Etxabe (seigarren) eta Eneko Lizarralde (zazpigarren) bergararrek.

**Zapatuan, Uzarragako Igoera**

Gorlako Igoera ez da, baina, asteburuan izango den txirrindulari hitzordu bakarra, zapatuan egingo dute-eta Antzuolan (16:00etan hasita) Uzarragako Igoera, eta lasterketa horrek ere 40. aldia beteko du.

Kasu horretan, bailarako gazte mailako ziklistek 81 kilometro izango dituzte aurrean, eta, kilometro gehienak lautadan egin ostean, Uzarragako 2,5 kilometroak erabakigarriak izango dira.

ESANAK

**"Bolun bizi naiz, eta bertatik pasatzen gara ziklistak"**

**"Lasterketa berezia da niretako, nahiz eta ez naizen igotzaile petoa"**

ENEKO LIZARRALDE | GIPUZKOA

**"Denetan ahalegintzen gara lana ondo egiten, ez Gorlan bakarrik"**

**"Ondo igotzeko garrantzitsua da hasieran lekua ondo hartzea"**

JOKIN ETXABE | DEBABARRENA

**"Niretako Gatzagako Igoera da etxekoa, baina Gorla Gorla da"**

**"Egutegiko lasterketa entsutetsuena da; oso maila ona egoten da"**

IKER ESKIBEL | ZIRAUNA INFISPORT



IAGOBA DOMINGO

SASKIBALOIA

# Scariolo, teknologiak duen garrantziaz

MUko kirol zerbitzuek eta Ointxe!-k Sergio Scariolo ekarri zuten martitzenean gurera. Bailarako saskibaloi taldeetako hainbat entrenatzaile eta jokalari joan ziren hitzaldira. Bertan, Baskoniako ordezkariak jardun zuen teknologiak egungo saskibaloian duen garrantziaz: "Ezinbestekoa da partiduak prestatzeko".

PIRAGUISMOA

# Patxi Ugalde bosgarrena izan da Euskadiko Kopan, senior mailan

X.U. | BERGARA

Joan den domekan jokatu zuten Pauen (Frantzia) Euskadiko hirugarren Kopa Txapelketa –Beti Bustik antolatuta– eta, guztira, 90 piraguistak hartu zuten esku; tartean, Bergarako klubeko hiru ordezkari izan ziren. Hala, senior mailan Patxi Ugalde bosgarren sailkatu zen, Aritz Gimbert hamabosgarrena izan zen eta gazte mailan Jokin Labaien zortzigarrena izan zen.

Bakarkako saioez batera, taldeka ere Bergarakoak nabarmendu egin ziren, hiruren puntuei esker hirugarren sailkatu ziren-eta.



Patxi Ugalde.

**Asteburuan Bidasoan**

Oraingo asteburuan, berriz, infantil mailakoek Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute, Bidasoako uretan (San Migelen).

ATLETISMOA

# Espainiako txapelketa irabazi du Malen Ruiz de Azuak, bigarren urtez

## Uztailean AEBetan jokatuko den munduko txapelketan izango da arrasatearra

**MIKEL ARREGI** | ARRASATE

Sasoiko dago Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilari arrasatearra. Duela bi aste, datorren uztailean egingo den munduko junior txapelketara joateko txartela eskuratu zuen Zaragozan; eta joan den asteburuan, berriz, Donostian egin ziren Espainiako txapelketetan urrezko domina janztea lortu zuen.

"Denboraldi kaxkarra egiten ari nintzen, baina azkeneko bi asteetan aurtengo helburuak betetzea lortu dut", dio Ruiz de Azuak. Etxean izan diren lehiaketetan parte hartzen ibili da Super Amara BAT taldeko atleta, eta "esperotako emaitzak jaso gabe" izan da azkeneko hilabete hauetan. Etxean aurkitu ez dituen sentsazio onen bila Zaragozara joan zen duela bi aste; eta han, lau metroko saltoarekin urteko marka onena jarri, eta mundialerako txartela lortu zuen.

Lasaitasun horrekin, Donostian egindako Espainiako txapelketan gailentzea lortu zuen joan den asteburuan. 3,81eko marka nahikoa izan zuen garaipena eskuratzeko; eta 4,01eko saltoa egiten saiatu zen arren, ez zuen muga hori gainditzerik izan.


Malen Ruiz de Azua. | JONATHAN PEREZ

**Oregonera, gogoz**

Bada, denboraldiko helburu nagusiak beteta, uztailean Oregonen egingo diren munduko txapelketei begira dago orain Ruiz de Azua: "Maiatzera arte atseden hartuko dut, eta gero, Espainiako aire zabaleko txapelketetan lehiatuko naiz, Ameriketako Estatu Batuetara bidaiatu aurretik".

Munduko txapelketetan, "mundu mailako lehiaketa batetik ikas daitekeen guztia ikastea" izango du helburu Ruiz de Azuak. Bere marka pertsonala "lehiaketa horretan" gainditu gurako luke, eta baita "munduko txapelketako finalean" aritu ere. Hori bai, helburu horiek betetzea "zaila dela" uste du; izan ere, Oregonen "munduko atleta onenak" izango dira.

ESANAK

"Mundu mailako lehiaketan ikas daitekeen guztia ikastea da helburua"

"Nire marka pertsonala Oregoneko txapelketan gainditu gurako nuke"

MALEN RUIZ DE AZUA | ATLETA

ATLETISMOA

# Endika Donnayk garaipena eskuratu du Azpeitia-Azkoitia herri lasterketan

**M.A** | ARRASATE

Bere bizitzako lehenengo garaipena eskuratu zuen joan den zapatuan Endika Donnay korrikalari arrasatearrak. Atletico San Sebastian taldeko atletak 24 minutu eta 42 segundo erabili zituen Azpeitia eta Azkoitia arteko 7,5 kilometroak osatzeko.

"Hasieratik gogor jo nuen, eta hirugarren kilometrorako lasterketa irabazi egingo nuela ikusi nuen", dio Donnayk. Lehenengo kilometroen ostean, Donnayk bakarrik egin zuen lasterketa osoa; eta, bukaerara arte estutu bazuen ere, bigarren sailkatua izan zen Aitor Madrazo kontrolpean izan zuen momentu oro. Azpimarratzekoa da Endika Donnay zapatuko proban parte hartu zuten 192 korrikalarien artean azkarrena izan zela.

**Domekan Murgian**

Joan den asteko garaipenak "entrenatzeko motibazio handia" eman diola esan du Donnayk, eta, indar hori lagun, datorren domekan Murgian egingo den Zuiako Herri Lasterketan arituko da.

Bada, herri lasterketen denboraldia amaitzen denean, pistan lehiatzen hasiko da maiatzean Atletico San Sebastian taldean dabilen arrasatearra.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKU. BIGARREN MAILA**
Mondra-San Ignacio
Domeka. 18:00. Mojategi.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Santutxu
Zapatuan. 17:45. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aretxabaleta-Aurrera
Domeka. 16:30. Ibarra.
Zarautz-Antzuola
Zapatua. 16:00. Asti.
Aloña Mendi-Lagun Onak
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Ostadar
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Mondra-Orioko
Domeka. 16:00. Mojategi.

**LEHEN ERREG. IGOERA**
Aretxabaleta UDA B-Touring
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**LEHEN ERREG. KOPA**
Bergara-Arizmendi
Zapatua. 17:45. Ipintza.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Euskalduna-Mondra
Zapatua. 17:15. Andoain.
Aloña Mendi-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Ordizia
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**LEHENENGO MAILA**
Gamon Aker-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Errenteria.

**HIRUGARREN MAILA**
Mondrate-Goierri
Zapatua. 18:00. Musakola.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONALA**
Ford Mugarri-Pulpo
Domeka. 12:00. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKO SENIORRA**
Egia Bar-Soraluce BKE
Zapatua. 18:30. Donostia.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**
Aloña Mendi-Quiron Askartza
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Urola-Izarraitz Aloña
Domeka. 11:30. Zumarraga.

**GAZTEAK, FEDERAZIO T.**
Carmel.-Mondragon Lingua Aloña
Zapatua. Zehazteke. Gasteiz.
La Salle-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

**SASKIBAOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Tabirako-MU
Domeka. 12:00. Durango.

**MAILA AUTONOMIKOA**
Erroibide Irun-Natra Oñati
Zapatua. 16:00. Irun.

**SENIOR BIGARREN MAILA**
Soraluce BKE-Tecnum
Domeka. 17:00. Bergara.
MU A-Internacional
Gaur. 20:00. Musakola.
Arri BKL-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Beasain.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Aralar Kirolak-Eskoriatza
Zapatua. 14:00. Tolosa.

**JUNIOR GIZ. ERRENDIMEN.**
MU A-Kiko Enea
Zapatua. 12:30. Iturripe.

**JUNIOR. GIZ. PARTAIDETZA.**
Aloña Mendi-Goierri
Zapatua. 12:00. Zubikoaz.
Cafes Aitona B-Soraluce Bergara
Zapatua. 20:00. Donostia.

**JUNIOR. EMAK. PARTAIDETZA.**
Eskoriatza-Andraitz
Zapatua. 11:30. Manuel Muñoz.

**PILOTA**

**OÑATI**
Gaur, 19:00etan hasita:
Aloña Mendi-Hondarribia (kadete.)
Beloki-Legazpi (gazteak).

**DORLETAKO AMAKO TXAPELKETA**
Domeka. 10:00. Leintz Gatzaga.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

**GIPUZKOAKO ESKOLA ARTEKO B MAILAKO TXAPELKETA**
Zapatua. Bergara. 10:00etan hasita.

**TXIRRINDULARITZA**

**UZARRAGAKO IGOERA**
Zapatua. 1600. Antzuola

**GORLAKO IGOERA**
Domeka. 10:00. Bergara.

Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

EKOBAI
Ezabatu birusak eta garbitu zure ordenagailua!
15€
LEHEN: 30€
DESKONTUA: %50




YAEL ILE APAINDEGIA
Azazkal akrilikoak eta pedikura saioa, biak batean!
34€
LEHEN: 53€
DESKONTUA: %36



TODO-DEPORTE.COM
LZKN Beñat betaurrekoak, aisialdirako aproposak!
40€
LEHEN: 90€
DESKONTUA: %56



ZUMELTZEGI DORREA
Jan eta lo, konde bat bazina bezala, XIII. mendeko Erdi Aroko dorretxean
99€
LEHEN: 156€
DESKONTUA: %37



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05
goiena

# KULTURA

# Bertsomovieda! lehiaketan, Debagoieneko hiru film labur

▶ Bertsoak oinarri dituen eta gazte zein helduentzako den sareko lehiaketa da Bertsomovieda!

▶ 'Bertsomovieda.com' atarian eman daiteke ikusleen sarirako botoa eta gaur da azkeneko eguna

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Bertsomovieda! bertsoak oinarri dituen eta Beasaingo Arrano kultura elkarteak antolatzen duen film laburren sareko lehiaketa da. Hirugarren edizioa du aurten, eta aurkeztutako 24 lanen artean Debagoieneko hiru film labur daude: helduen mailan Oñatiko Gero Pentzauku Produxions taldeak eta Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolako kideek parte hartu dute eta gazte mailan lehiatuko dira, berriz, Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolakoak. *Bertsomovieda.com* atarian daude lanak ikusgai.

Apirilaren 11n banatuko dituzte, Beasaingo Igartza jauregian, aurtengo sei sariak; horien artean dago 500 euroko Ikusleen Saria. Gaur, egubakoitza, da lehiaketaren webgunean botoa emateko azkeneko eguna.

**Bertso-paper sariketatik dator**

Beasaingo Neguko bertso-paper lehiaketak zortzi urteko ibilbidea eginda, bertso-paper lehiaketaren formatua agortuta zegoelakoan sortu zuten 2012an Bertsomovieda! sareko lehiaketa.

Erantzun ona izan du hasieratik; horren erakusle, Euskal Herriko eta atzerriko bertsozale-zinegileen askotariko euskarriekin egindako 26 lan oso ezberdin jaso zituztela lehenengoan. "Gazteek egindako lan asko jaso genituela ikusita, bigarren ediziorako hainbat moldaketa egin genituen; besteak beste, bi maila bereiztea erabaki genuen: gazteena eta helduena. 33 lan jaso genituen orduan guztira. Urtetik urtera ikasten ari gara eta urtero hobekuntzak egiten ditugu; aurten, esaterako, gazteendako beste sari bat gehiago jarri dugu. Oso gustura gaude jasotako erantzunarekin; beraz, aurrera jarraituko dugu", dio lehiaketako antolaketa taldeko Aitor Sarriegi bertsolariak.

**Lanen kalitatea, hobea**

Antolatzaileek moduan, parte hartzaileak ere ediziotik ediziora ikasten ari direla dio Sarriegik: "Gure helburu nagusia bertsozaletasuna bultzatzea da, baina aurtengo lanetan irudiaren kalitatea askoz hobea dela esan behar da. Gaiei dagokienez, aurten ere denetik jaso dugu: gazteek umoretik jotzen dute, gehienbat, eta helduen mailan, berriz, umorezkoak badaude ere, serioagoak dira, sentimenduak ukitu gura dituzten lanak dira asko. Hego Euskal Herriko lanak dira gehienak, gaztetxoetan, bereziki, Bizkaiko bertso eskoletatik bidalitakoak. Iparraldetik jasotzea izan da gure erronketako bat, eta aurten, Hendaiatik jaso dugu bat".

**Debagoieneko egileak**

Aretxabaletako Lekaixoka eskolakoek bigarrenez hartu dute parte. "Ikastolan egindako lan bat bidali genuen iaz, nahiz eta nahasketa arraro bat atera zitzaigun. Oraingoaz pozik gaude; ederto pasatu genuen grabatzen, une batzuetan lotsa ere pasatu bagenuen ere. Kattalin Linazisoro, Enaitz Garai, Xubane Beltran de Heredia, Haizea Arana eta ni gara protagonistak", dio Oihana Aranak. Kameralari lanak, berriz, Xabier Arenatza eskolako irakasleak egin ditu: "Euren proposamena izan zen eta gazteek egin dute ia guztia. Segituan eman nien baiezkoa, bide batez, bertso eskolara etortzeko gonbita egin dugu-eta", dio irakasleak.

Oñatiko Gero Pentzauku Produxions lagunarteak ere badu eskarmentua; iaz 500 euro eskuratu zituen, ikusleek hala erabakita. Ondo pasatzeko helburuaz egin dute aurtengoa ere, sariei muzinik egin barik baina.

Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolakoen helburua, ondo pasatzeaz gainera, herriko eskola sortu berria bertso-eskolen mapan kokatzea izan da. Honakoak dira egileak: Aritz Oianguren, Dorleta Kortazar, Xabier Arenaza, Beñat Errasti, Ibai Oianguren, Beñat Errasti, Dabid Arrieta, Iñaki Astiazaran, Jon Ibabe, Josu Pagaldai eta Miren Amuriza; azken hori, irakaslea.

---

**IÑAKI OLALDE**
GERO PENTZAUKU PRO.

## "Iaz posible izan bazen saria eskuratzea, aurten ere, zergatik ez?"



IÑAKI OLALDE

Ikusleen Saria eskuratu zuen iaz Oñatiko Gero Pentzauku taldeak. Aurten *Bertsofrikia* lana egin dute.

**Iaz saria irabazita, ze aurreikuspen duzue aurten?**

Iaz posible izan bazen aurten ere posible da, batez ere egin dugunarekin gustura gaudelako. Astebetean, bozketak gorabehera asko izango ditu; beraz, zain egon behar...

**Zeri buruz oraingoa?**

*Bertsofriki* bat da protagonista, bizitza osoa bertsoarekin lotuta egon da, eta aurten, txapelketa bukatu berri delako, burumakur edo behea jota dago. Egunero behar du bertso-dosi bat bere bizitzan eta edozer egiteko gauza da hori lortzeko helburuaz.

**Non eta noiz grabatuta?**

Oñatin martxoaren 15ean eta 16an grabatutakoak dira eszena guztiak, baina artxiboko irudiak ere txertatu ditugu.

**Zeintzuk zarete egileak?**

Gero Pentzauku Produxions taldea esan dezakegu dagoeneko talde egonkorra dela. Oraingoan, Leire, Ibai, Egoitz, Arkaitz, Haizea, Ana Mari eta ni neu aritu gara kamera aurrean. Kamera atzean eta muntaia lanetan, berriz, Haizeak eta Idoiak jarduten dute normalean. Gidoia egiteko, berriz, beste askotan bezala, Idoiaren ideiatik abiatuta, guztion artean osatuz gero.

**Zer diozue horrelako lehiaketak antolatzeari buruz?**

Gu gustura gaude; gustua hartu diogu horrelakoei, ia *hobby* bihurtzeraino. Gu elkartu izanaren errua Oñatiko Laburmetrai Rallyarena da.

---



Oñatiarren *Bertsofrikia* filmaren zati bat . | IÑAKI OLALDE



Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolakoen *3 txarrikumak* filma. | A. O.



Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolako film laburreko kideak. | OIHANA ARANA

---

ESANAK

**"Bertsolaritza bultzatzeko aukera berrien bila genbiltzan"**

**AITOR SARRIEGI** | ANTOLATZAILEA

---

## Eskolakoek, ipuin ezagunak bertsotan

**Ipuin klasikoen bertsioak bertsotan kontatu dituzte Eskoriatzako Hankamotx eta Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskoletatik. Lekaixokako bertsolari gazteek, Hamelingo txistulariaren kontakizuna oinarri hartuta, herrian aspertuta dauden gazteei bertso eskolara hurbiltzeko gonbidapena egiten diete. Guztien artean gidoia aurrez pentsatu eta osatuta, egun bakarrean, joan den martitzenean, Aretxabaletako hainbat kaletan grabatu zuten.**

**Orain gutxi sortutako Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolako helduek, berriz, *Hiru txerrikumeak* ipuin ezaguna aukeratu dute, eta, gaur egungo krisiarekin konparaketa eginez, ipuinaren moldaketa egin dute. Eskoriatzako *Deposito zaharrean* grabatu zuten pasa den eguenean.**

# Zazpigarren Huhezinemaren sariak banatuko dituzte gaur

Eguaztenean ikasleen lanak erakutsita, sail ofizialekoak pantailaratuko dituzte gaur (17:00) eta guztien sari banaketa egingo dute 20:30ean

**A. ARANBURUZABALA** | ARETXABALETA

Hilabeteetako prestaketa lan gogorren ostean, eguaztenean erakutsi zituzten Aretxabaletako Arkupe kultura etxean aurtengo Huhezinema lehiaketan aurkeztutako ikasleen dokumental eta fikziozko lanak; hamasei lan. Gaur, egubakoitza, sail ofizialeko hamahiru film laburrak erakutsiko dituzte, 17:00etan, eta 20:30etan hasiko da sari banaketa. Sarrera doakoa eta edonor joan dateke.

**Ikasleen kalitatezko lanak**

Antolatzaileak baikor zeuden eguazteneko emanaldiaren ostean: "Orokorrean, maila asko hobetu dute eta hori igarri egiten da jasotako emaitzetan. Urtez urte ikasleak arlo guztietan trebatzen ari dira, bai teknikoki zein gidoiak landu eta eta gaiak aukeratzerakoan ere. Aurten, gainera, ahalegin handia egin dute telebistako zein euskal zinemagintzako aktore ezagunen kolaborazioak lortzen", dio Iban del Campok, jaialdiko koordinatzaileak.

Ikasleen sailean bost sari banatuko dituzte gaur: ikusleen bi sari, fikziozko eta dokumental onenaren MU sariak eta Basque Culinary saria. "Fikziozko lanetan, umorezko lanak eta filosofikoagoak ere badaude; horien artean, homosexualitatea modu originalean lantzen duen bat; guztietan antzeman dugu, baina, amaiera zabalik uzten dutela. Jasotako hiru dokumentaletan, berriz, disko baten grabaketaren gaineko hausnarketa egiten duen musikal bat eta bi dokumental faltsu jaso ditugu: narkolepsiaren gainekoa bat eta Europan bizi diren txinatarren heriotzen merkatu beltzaren gainekoa", azaldu du jaialdiaren koordinatzaileak.

Eguazten arratsaldean, berriz, aurten indartu duten Basque Culinary atalekolau film laburrak eta Andoni Luis Aduriz sukaldari ezaguna protagonista duen *Mugaritz BSO* filma erakutsi zuten, Felipe Ugarte filmeko zuzendarietako baten eskutik.

**Sail ofizialean ere uzta oparoa**

Atzo, eguena, 2012ko ikasturteko ikasleek egindako *Neurge* film luzea erakutsita, lehiaketa izaera hartuko du berriz ere jaialdiak gaur. Hamazortzi lan jaso dituzte, inoiz baino gehiago, eta horietako hamahiruk pasatu dute epai-mahaiaren galbahea. Askotarikoak dira, lantzen duten gaia edo ekoizteko izan dituzten baliabideak aintzat hartuta; tartean dago Bergarako *Kixi*-ren *Zela Trovke*. Sara Cozar eta Itziar Atientza aktore ezagunek aurkeztuko dute gaur iluntzeko gala.

**ESANAK**

**"Desiatzen geunden hilabeteetako lana pantaila handian erakusteko"**

**IBAN DEL CAMPO** | HUHEZINEMA




Jone Amonarriz eta Eneko Sagardoy ikasleek aurkeztu zuten eguazteneko goizeko emanaldia Arkupen. | TXOMIN MADINA

## 'Muu!2' lana ekarriko du Yllana konpainiak gaur gauean Elgetara

**Z.V.D.M.** | ELGETA

Komedia munduko talde beterano batek bisitatuko du gaur Elgetako Espaloia kafe antzokia; hain zuzen ere, Yllana konpainiak *Muu!2* antzezlana eskainiko du, 22:30ean hasita.

"*Muu!* lana konpainiaren opera prima izan zen, 1991n sortutakoa. Denbora hau guztia igarota berriro hartu eta buelta bat eman diogu, esketx berriak sortu ditugu, parodia gehiago dago...". Hala eman du aditzera Antonio de la Huertak, Yllana taldeko kideak. Hala ere, obra originalean bezalaxe, tauromakiaren inguruko balioak hartu eta euren umorearen jomuga bilakatzen dituzte Yllanakoek *Muu!2* lanean ere.

Elgeta aurretik ezagutzen dute, sarri ekarri baitituzte euren obrak Yllanakoek bertara: "Espaloiak dibertsiorako bidea ematen du, eta herria benetan ederra da".

**Handi egin den taldea**

Konpainia 90eko hamarkadan sortu zenetik sendotuz joan da: "Hazi egin gara eta bide luzea egin dugu. Egiten dugun umorea aldatu egin da, eta arauak apur bat gehiago hausten ditugu; iraganari errepasoa egitea ere esperientzia berezia da".



Asier Etxeandia *El intérprete* ikuskizunean. | SON AOUJIL

**Asier Etxeandia** | Aktorea

# "Ametsak egia bilaka daitezkeela erakutsiko dugu"

Bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian arituko da bizkaitarra 'El intérprete' lanarekin

**ZURIÑE V.D.M.** | ARRASATE

Aspaldi agortu ziren bihar Arrasateko Amaia antzokian 19:30etik aurrera ikusi ahal izango den *El intérprete* ikuskizunerako sarrerak. Protagonista nagusiak obraren ondik norakoak azaldu ditu.

**Zer-nolako lanaz gozatuko dute bihar Arrasaten *El intérprete* ikustera bertaratzen direnek?**

Oso formula erraza duen lana dela esango nuke; biluztasuna, egia eta kalitatezko musika aukeraketa dira osagai nagusiak. Dena nahasten da eta orain arte egin dudan lanik zintzoena da. Baina nola izendatu obra? Iruditzen zait joera handiegia daukagula gauzak kalifikatzeko orduan. Ez da antzezlan bat, ez da musikal bat; *show* bat da, bere osotasunean.

**Eta *show* horrekin ongi pasatuko dute ikus-entzuleek.**

Noski, horretarako sortu baitzen, nahiz eta gogoetarako aukera ere ematen duen. Ikuskizunak aurrera egin ahala ikusleek kontzertu batean daudela uste izango dute, edo antzezlan zein bakarrizketa batean... Ez dut uste jendea aspertu egingo denik, oso dinamikoa baita.

**Zuk esana da, gainera, askatasunari kantu bat dela.**

Zalantza barik. Krisialdietan -eta gauzak aldatzeko bakoitzak ditugun gaitasunak zalantzan ipintzera bultzatzen gaituzte, eta iruditzen zait *El intérprete* lanean dena posible dela erakusten dugula. Gainera, nire bizitza ipintzen dut eredu moduan; aktore, abeslari eta, oro har, artista izateko nire ametsa oinarri hartu eta eginiko apustuari eta lan handiari esker ametsak errealitate bilaka daitezkeela erakusten dut. Jakin badakit istorioarekin identifikatzen direla sarri ikusleak eta euren ametsak jarraitzera animatu izan direla.

**Biharko emanaldirako sarrera guztiak agortu izana obraren arrakastaren erakusgarri da?**

Egia esan, iaz estreinatu zenetik publikoak oso ongi erantzun du eta ia toki guztietan agortu dira sarrerak. Oso-oso pozik nago.

**Obrari esker, gainera, Factoria Madre Constriktor taldea sortu duzue.**

Hain zuzen ere, *El intérprete* ikuskizunari esker sortutako enpresa bat da. Lau bazkide gara, eta gure gain hartzen dugu produkzio exekutiboa, musika zuzendaritza eta interpretazio artistikoa. Horrez gain, Factoria Madre Constriktor egitasmoak gura dugun hori egiteko bidea ematen digula gaineratuko nuke. Bide batez, esan gurako nuke ogibide honetako jende ugariren sostengua ere izan dugula helburua lortzeko, gugan konfiantza osoa izan baitute. Urtebeteko jardunean amets ugari aurrera eramatea lortu dugu, eta proiektu ugari ditugu aurretik, gainera; besteak beste, zinema, antzerki zein musika arloetan hainbat kolaborazio egingo ditugu. Ez dago gaizki, kontuan hartzen baldin badugu garaiak direnak direla, ez gaudela momenturik onenean eta kultura arloan murruak handiak direla. Baina oraindik ere asko haziko gara.

**Esango zenuke askatasun handiagoa duzula lanerako?**

Zalantza barik. Baina baita erantzukizun handiagoa ere, eta egin gura dudanak, gainera, zentzua izan behar du beste pertsonentzat ere.

**"Esango nuke 'El intérprete' lana 'show' bat dela bere osotasunean"**

**Aitzol Iturbe | Bertsolaria**

# "Euskaraz ondo pasatu, txantxak egin eta adarra jo daitekeela erakusten digu bertsolaritzak"

**JON MOÑUX** | ANTZUOLA

Aitzol Iturbe antzuolarrak 23 urte dauzka eta Fisikako doktoretza ikaslea da. Leioan ikasten dihardu egun, Euskal Herriko Unibertsitatean. Fisikaz gain, hala ere, beste zaletasun bat ere badauka, bertsolaritza. Aurretik noizean behin bertsotan egiten zuen arren, orain dela urte eta erdi inguru Gabiriako lagun batzuekin astean behin bertsotan egiteko elkartzen hasi zen. Orduan sartu zen buru-belarri bertsolaritzan.

**Nondik datorkizu bertsoetarako zaletasuna?**

Gurasoak eta bi anaiak bertsozaleak dira oso. Beraz, bertsoak betidanik entzun ditugu etxean. Aspalditik gustatzen zaidala esango nuke. Hasiera batean parrandetan abesten nuen, baina gaur egun serioago hartzen dut.

**Nola ikasi duzu bertsotan egiten?**

Etxean daukagun zaletasun hori dela eta, bertso asko entzuteak berak asko laguntzen du. Taldearekin hasi aurretik moldatzen nintzen zertxobait, baina Gabiriako lagunekin ikasi dut, gehienbat.

**Entseatu egiten duzu, beraz.**

Entseatu baino gehiago, bertsotan egin egiten dut, orain arte ez baitut izan entseatzeko beharrik. Hala ere, denbora edo lagun falta dela eta, nahi baino gutxiagotan egiten dut bertsotan.

**Nolakoa da bertso bat bota aurreko unea?**

Burua estutzeko unea da. Batzuetan, azkar etortzen dira ideiak eta laster osatzen da bertsoa. Beste batzuetan, berriz, kosta egiten da, eta hor oreka aurkitu beharra dago: zenbateraino pentsatu eta pentsatzen zenbat denbora pasatzearen artean. Gainera, norberak denboraren pertzepzio bat izan ohi du eta entzuleak beste bat.

**Eta kantuan zaudenekoa?**

Aurretik lantzeko izan duzun aukeraren araberakoa da. Nahiko denbora hartu baduzu, pare bat puntu ikasita eta oinak pentsatuta, nahiko erraz osatzen da. Ia erabat inprobisatzen denean gehiago kostatzen da, noski. Bertsoan zehar, hala ere, bukaera ahaztea izan ohi da hanka sartzerik handiena.

**Zer moduz joan zen bailarako bertsolari gazteen saioa Bergaran?**

Nik ederki pasatu nuen, nahiz eta uneren batean saioa pixka bat motel zihoan sentsazioa izan nuen. Dena den, entzuten egon zirenak oso gustura egon omen ziren. Eskerrak eman nahi dizkiot Bergarako Ernairi saioagatik, saioaren helburuengatik eta ni gonbidatu izanagatik.

**Txalo gehien jaso zenituenez, zuk irabazi zenuen, ezta?**

Irabazi nuenik ezin izango da esan, ni baino itxura hobea eman zuenik izan baitzen. Lagun dezente hurbildu ziren saiora, eta badakigu gaizki kantatuta ere txaloak jotzen dituztela.

**Beste txapelketaren batean ere hartu duzu parte.**

Bai; Osinalde txapelketan bi aldiz egon naiz. Orain dela urtebete lehenengo aldiz, eta pasa den zapatuan bigarren aldiz. Ederki antolatuta dago, afari giroan egiten da bertso saioa eta gustura aritzen da bat.

**Nola ikusten duzu bertsolaritzaren egoera zure inguruan?**

Bailaran, esaterako, ikuspegi *makro* batetik ikusita, ez dago punta-puntan dabilen debagoiendarrik, oker ez banago, behintzat. Antzuolari dagokionez, zaletasun handirik ez dagoela esango nuke. Baina Euskal Herrian, aldiz, bertsolaritzak geroz eta jarraitzaile gehiago dituela esango nuke. Gazteak asko hurbiltzen ari diren sentsazioa daukat.

**Zer eskaintzen dio bertsolaritzak euskal gizarteari?**

Jolasa izatetik harago, garrantzi handia du bertsolaritzak. Bertsoa euskaraz egiten da, eta euskalduna denak bakarrik ulertu eta egin dezake. Horrek prestigioa ematen dio gure hizkuntzari. Euskaraz ondo pasatu, txantxak egin eta adarra jo daitekeela erakusten digu bertsolaritzak.

**Bertsolaritza etorkizuneko lan moduan ikusten duzu?**

Egia esan, ez dut horretan pentsatzen. Izan ere, ez daukat aukera hori planteatzeko adina bertsotarako gaitasun.

## MARRA AZKARREZ

**Zure herriko txoko bat:** gaztetxea.

**Atsegin duzun kantu bat:** Hertzainak-en *No time for love*.

**Pelikula bat:** Jeans Born-en *Hiruak*.

**Pozik parte hartuko zenukeen bertso txapelketa bat:** edozein.

**Bertsolari bat:** Amets Arzallus.

**Bizitzako helburu bat:** mundua aldatzea.

**Albiste pozgarri bat:** euskal preso eta iheslariak Euskal Herrian aske egotea.

**Bizi izateko leku bat:** AHTrik eta autobiarik gabeko Antzuola.



**Aitzol Iturbe, Antzuolako gaztetxeko agertokian, bertsotarako jarrerarekin.**

JON MOÑUX

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea eta bainugela. 639 28 53 50

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin. 607 27 66 47

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolako bikote bat gara, eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez etxea hartuko genuke errentan Antzuolan bertan. Etxe huts bat duen oro animatzen dut programa ezagutu eta bertan izena eman dezan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. 620 23 58 15

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Deitu telefono zenbaki honetara: 691 16 96 43

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio ekonomikoan. Deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Arrasate.** Pertsona bakarrarendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. 722 45 33 59

**Bergara.** Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 euro ordainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 83 82 15

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 03 33 56

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 24 13 27

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdialdean logela bat ematen da errentan. Prezio ekonomikoa. 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Erdigunean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela dauzkat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro dira pertsonako, gastuak barne. 672 68 57 77

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabilita. Leku lasai da. Hilean 260 euro. Kontraturik ez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Elgeta.** Pertsona behar dugu Elgetan, etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko. Autoa beharrezkoa. Interesatuok deitu 626 78 33 67 edo 686 30 09 29 telefono zenbakietara.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94 .

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Fatima. Deitu telefono honetara: 696 81 09 32

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Mari Karmen. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 10 33 51

**Arrasate.** Emakumezko arduratsua gertu haurrrak edo nagusiak zaintzeko, orduka, edo baita etxean bertan bizi izateko ere. Aukeran, Arrasaten nahiago. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 04 45 38 edo 652 58 41 99

**Arrasate.** Neska euskalduna bulegoak, elkarteak, tabernak eta abar garbitzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 686 27 45 81

**Bergara.** 49 urteko emakumea lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 89 82 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Bertakoa. Deitu telefono zenbaki hauetara: 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

**Bergara.** Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Amaia. 639 04 65 11

**Bergara.** Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Loli. 676 67 19 07

**Bergara.** Prest adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Eskarmendua daukat. 665 75 41 32

**Debagoiena.** Bergarako neska lanerako gertu, orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono honetara: 658 31 06 20

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, informeekin, garbiketa lanetarako gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 27 25 34

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 639 02 00 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsonak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Sonia. 632 84 02 30

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile lanak egingo nituzke, nagusia eta gaisoak zaindu edo etxean laguntzen. Opor garaian ere bai. Deitu 602 51 67 28 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gauez ere bai. Garbiketak, nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 604 11 12 18

**Debagoiena.** Esperietziadun emakumea sukaldean lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:619 18 81 86

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten ditut eta haurrak zaindu ere bai. 631 47 81 87

**Debagoiena.** Gertu nago nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 98 17 79


Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
KOROSTI INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 58 m², 2 logela. 35.000 €.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 210.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berrituta. 114.192 €
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
